

ETXENAGUSIA URIBE, KARMELO

Igorreta-Durangon jaioa 1932.ean.

Ikasketak Gasteiz eta Comillas-en.

Urte luze gogorretan euskal azia eraiten ekin deutso.

Derioko Seminarioan euskeraren irakasle (1955-1970).

UDAKO EUSKAL IKASTAROA-ren sortzaile (1970), Euskal Literatura azaldu dau bertan udaro.

Euskalzain urgazle (1965).

Bere idazlanak:

- *Bizkaiko euskal idazleen lorategia. Itz lauz / Antologia de Prosistas vizcainos. Derio 1965 (Multikopiaz)*
- *Euskal idazleen lorategia. Itz lauz. II Gipuzkeraz. Derio, 1967 (Multikopiaz)*
- *Euskal idazleen lorategia. Itz lauz. Donostia. 1969.*
- *Euskal Idazleak Bizkaieraz. Antologia, testu azterketak, Ariketak, Bilbao 1980. (J. Kortazar eta A. Etxebarriarekin).*

Isileko eta izen gabeko beste euskerazko lan asko egiña, batez ere Eleizako arloetan: liturgia, dotriña, eleiz-agiriak eta abar.

Gaur egun Bilbo Eleiz barrutiko Bikario Nagusia.


1110 5



Euskal Biblioteka Labayru



1010737
LITERATURA / N. 11



IPARRALDEKO EUSKAL IDAZLEAK
ANTOLOGIA

- © K. ETXENAGUSIA.
- © LABAYRU IKASTEGIA.
- © AZALA: LEOPOLDO ZUGAZA.

I.S.B.N.: 84 - 300 - 4765 - 4

D.L.: BI - 1423 - 1981

Impreso y encuadernado en:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.


Carretera Bilbao a Galdácano, 20 - BILBAO 4.

K. ETXENAGUSIA

IPARRALDEKO EUSKAL IDAZLEAK




EUSKO IKASKUNTZA'ren
LAGUNTZAREKIN



LABAYRU IKASTEGIA

Aretxabaleta, 1 - 1.º dcha.- Telf. 443 76 84

BILBAO - 10



SARRERA

Euskal arloan, ba dirudi nire egitekoa argi ta garbi da-goala: euskal idazleen «lorategiak», antologiak, egitea. Amasei urte lanbide orretan sartu nintzala, eta, bein bide bati eldu ez-kero, ezin atzerarik egin, antza, aurrera jo bear. Leenengo, bearrianak bultz eginda, Bizkaiko eta Gipuzkoako idazleen Lorategiak emon nituan, multikopia apal eta lotsorrez, Derio-ko Seminarioan (1965, 1967). Gerotxuago, Ermuako batzar aretan euskaltzale lagun batzuk eskatuta, aurreko biok bat egin, zerbait osotu, eta «Euskal Idazleen Lorategia - Itz lauz» argitaratu eusten Donostian (1969). Igaz, gure Udako Ikastaroaren lagungarritzat, iru irakasle lagunek «Euskal Idazleak Bizkaieraz» eskeini genduan. Orain, urtebetegarrenean, ona emen boskarren au, urrutiagoko idazleen «lili» ederrez eginda-ko sorta lodikotea.

Eskeintza.—Gure IKASTAROkO ikasleentzat egina da, batez ere: urtean urtean udako atsedean aldiari amabost egun kendu eta boskarren mailaraino —gorengo mailaraino!—, eldu zareen adiskideontzat. Zoritxarrez, uda barruko ikastaroan ezingo doguz eskolan liburu onetako zatirik geienak irakurri ta aztertu, orretarako astirik ez eta. Baina, zuen euskaltzale-tasun sutsuaren barri ondo dakigunok ziur be ziur gagoz au-rrerantzean ere pozez beterik urreratuko zareela, bein baino sarriago, gure elertiaren ur gozoetara, jakingurea ase ezinik. Orregaitik, idazle asko ta askotarikoak sartu ditut antologia onetan, mugaz andiko «eskualdunen» apur gozoak dastatzeak geiagoren egarria biztu deizuen, zeuon onerako.

Uste dogu, beste euskal ikasle askorentzat ere mesedega-rrri izango dala, bear bada, antologia au, eta asmo zabal orre-xegaz emoten dogu argitara.

Iparraldeko euskera eta euskal idazleak.—Guztiok daki-gunez, «Eskual Herrian» 4 euskalki bereizten zituan L. L. Bo-napartek: Lapurdikoa (L), Baxenafarroan (BN) bi (mendeba-lekoa eta ekialdekoa) eta Zuberokoa (S). Eurotarik, euskera idatzian, Lapurdikoak izan dau beti osperik andiena: berau dogu, ain zuzen ere, geien landua, «eskola» zabal bat sortu dauana, Axular andiaren inguruan, batez ere. Beranduago eta

apalago agertzen jakuz literatura idatziaren plazara beste euskalkiak; baina, astiro-astiro, Baxenafarroako idazleen eraginez, lapurtera «klasikoa» naastu egin ei da, eta, P. Lafitte jakintsuaren ustez, beste euskalki barri bat nausitu ei da ango liburuetan: «navarro-labourdin littéraire» deritxona. Orregaitik, antologia onetan idazlan bakotxak bere euskalki-ezaugarria daroa (L, BN, S); baina euskalki barri orren menpean idatzitako zatiei ez deutsegu ezetariko ezaugarririk jarri.

Ona emen, laburregi bada ere, iparraldeko euskal literaturaren ezaugarri batzuk: a) gure aldekoa baino ia 200 urte leenago «jalgi»zan «plazara»; b) sekula etengo ez dan ari nausi bati lotuta dago beti, bere «maixu andi» AXULAR daua: au da, tradizino jakin bati lotuta egon da eta dago gaur ere; c) kanpotarren aurrean eder agertzea baino, bertoko euskaldunak erraz irakurria izatea geiago bilatu izan dau (eta oso ondo lortu!); orregaitik, erriagandik ur-urtean bizi izan da beti —izkeraz, esaeraz, asmoz, pentsakeraz...—, gure arteko «ameskeria» usteletan galdu barik; d) Leizarragaren bide kulteranista alde batera utzi, eta Axularren bide errikoitari jarraitu izan deutso (jokabide biok izango zirean mesedegarri, bakotxa bere mailan) e) elizgizonen eskuetan egon da, ia beti eta guztiz, eta, ori olan dala-ta, gairik geientsuenak erlejinozkoak izan dira; baina ba dira osterantzekoak ere, eta ez orren gitxi; f) emendikaldeko euskal literatureagaz ez dau artuemon andirik ez esturik izan, ezta gure artekoaren gorabeera eta goi-egarririk ere... (Ikus L. Michelena, «Historia de la Literatura Vasca», Madrid, 1960, 17-19. Baita, Ibar, «Genio y Lengua», Tolosa, 1936, 141-155).

Gure asmoa.—Derioko Ikastaroak 5 maila ditu, eta maila bakotxean toki berezi bat dauka literaturak. Leenengo iru mailetan, ikasleak ia danak bizkaitarrak dira-ta, bizkaierazko idazle ta idazlanak erabilten dituez, irakurri ta aztertze; laugarrenean, gipuzkeraren barrutian aurkitzen dabe euren eder-egarria non ase; gorengo mailan, boskarrenean, Iparraldeko literaturea eta oraintsuko «euskara batua»-rena eskeintzen jakez ikasleei. Zoritxarrez, Ikastaroko 12 eskoletan ezin gauza andirik erakutsi, baina, besterik ezinean, gain-begiratu bat eta bultzada bat emon bai, gero ikasleok, eurok eurotara,

gaiok sakonagotik aztertu eta biar-etziko ikasleen gogo-biotzetan erein dagiezan.

Au dala-ta, antologia onetan ere ugaritasuna billatu dogu: a) ugari idazleak, 40tik gora, aldi, euskalki, idazkera guztietakoak; b) ugari udazlanen zatiak (ia 100 guztira), askotarikoak, eta literaturaren barruti zabaletik artuta: eresiak, erromanizeak, bertsoak, olerkiak, irakaskintza, ipuin eta gertaerak, alegiak, tetraoa, t.a. Baina ugaritasun onek bere neurriak ditu, alan bearrez; ez dogu emen itzulpenik sartu, banakaren bat baino, naiz eta itzultzaileen artean euskeraren maisu andiak egon (esaterako, *Materre*, *Haraneder*, *Maister*, *Chourio...*); gaur bizi diranetatik ere gitxi batzuk baino ez doguz sartu: batetik, danentzako lekurik ez egoalako; bestetik, eta batez ere, olakoen idazlanak errazago aurkitu daitekeezalako, bai euron liburuetan, bai berarizko antologietan (orra or, esaterako; J. San Martin - S. Basauri, *Hegatsez*, *Zarautz*, 1971; J. Sarasola, *Gerraondoko Euskal-Poesiaren Antologia 1945-1964*, *Donostia*, 1973; J. San Martin, *Uhin Berri*, 1964-1969 bilduma, *Donostia*, 1969).

Erri-literaturan ere urriegi ibili nazana ba dakit, eta ez, egia esan, neure barruko pena andi barik. Ain da, izan ere, aberatsa iparraldeko erri-literatura or! Zorionez, gaurko abeslariak-eta edonun zabaldu deuskuez ango kanta gozo «xarmagarriak», Zuberokoak batez ere; eta ba doguz orretarako bilduma egokiak ere. Batzuk aitatzekotan: F. Michel - A. Irigaray, *Poesías populares de los vascos*, 2 tomo, *Auñamendi*, (S. Sebastián, 1962); Kantuz, «*Aintzina*» (*Bayonne*, urte bari-*k*); P. Etchemendy et P. Lafitte, *Kantuz*, 120 kanta, *musika ta guzti* (*Donostia*, 1980); Kantu, *Kanta*, *Khantore*, *Ed. Ezkila* (*Baionan*, 1967) t.a.

Lagungarri batzuk.—Geuk ikusita dakigu zein gogor egiten jaken ikasle askori Iparraldeko idazleen uretan ezetariko laguntza barik murgiltzea: itz asko arrotzak, esaera bizi biurriak, aditz-joko ezezagunak... eragozpen andia izaten dira, leenengotan beintzat; gero, bein bidea erraztu ezkerro, ondasuntegi arrigarri bat aurkitzen dabe, euren gogo-biotzen pozgarri. Gitxi ta apalak dira emengo lagungarriok: a) idazle bakotxari jarritako sarrera laburrak; b) idazlanen ondoren

emoten diran argibiderik bearrezkoenak; c) azkenean eskeintzen dan «Hiztegi Tipia», *antologia onetan agertzen diran iparraldeko berba berezi geientsuen esanaia argitzeko*; d) gai batzuen eta idazleen aurkibidea...

Antologia onetan ez dogu Testu Azterketarik jarri. Aurrekoan erakutsitako bideak betirako balio dabe; gainera, boskarren mailara orduko, gure ikasleok ba dakie azterketa ori zer dan eta zelan egin bear dan.

Zoritxarrez, mugaz bestaldeko literatura ederra ba danik ere ez ei dakie gure arteko euskaltzale askok eta askok: auxe inoan, 1936 urtean, penaz beterik, Justo Mari Mokoroak (IBAR, Genio y lengua, Tolosa, 1936, 143-144). Gaur alkarregandik urrago ez ete gagoz? Antologia onek zubi bat izan nai leuke —Bizkaiko ertzetik bardinbako Zuberorainoko zubi anaikorra, gure arteko euskaltzaleak iparraldekoen aberastusunak ezaguturik arrituta eta «bozkarioz loriatuak» gelditu daitezana.

Bilbon, 1981, Urkiolako S. Antonio gaztearen jaiegunean

I. ZATIA: ERRI LITERATURA



BERETERRETXEN KHANTORIA (S)

XV. mendean «Ahaide Nagusien» arteko borroka asko izan zan Euskalerrian. «Khantore» onek Agramunt eta Beamunt-tarren artekoa aitutzen deusku. Bereterretxe, Mari Santz-en semea, Lerin-go konteak il eban Maule-n.

1

Haltzak eztü bihotzik,
ez gantanberak ezürrik...

Enian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik.

2

Andozeko ibarra,
ala zer ibar lüzia!

Hiruretan ebaki zaitan, armarik gabe, bihotza.

3

Bereterretzek oheti
neskatuari eztiki:

«Abil, eta so egin ezan gizonik denez ageri?»

4

Neskatuak berhala,
ikhusi zian bezala,

Hiru dozena bazabiltzala bortha batetik bestila.

5

Berterretzek leihoti
Jaun Kontiari goraintzi:

Ehun behi bazeitzola¹, beren zezena ondoti.

6

Jaun Kuntiak berhala,
traidore batek bezala:

«Bereterrex, aigü² borthala: ütüliren hiz berhala.»

7

«Ama, indazüt athorra,
mentüras sekülakoa!

Bizi denak orhoit ükhenen dü Bazko gaiherdi ondua!»

8

Heltü nintzan Ligira,
buneta erori lürrera,
buneta erori lürrera eta eskurik ezin behera.

9

Heltü nintzan Ezpeldoirra,
han haritx bati esteki³,
han haritx bati esteki eta bizia zeitan idoki⁴.

10

Marisantzen lasterra
Bostmendietan behera!
Bi belhañez herrestan sarthü da Lakharri-Büstanobila.

11

—«Bustanobi gaztia,
ene anaie maitia,
hitzaz hunik ez balinbada, ene semia juan da»

12

—«Arreba, ago ixilik!
Ez othoi egin nigarrik!
Hire semia bizi bada, Mauliala dün juanik.»

13

Marisantzen lasterra
Jaun Kuntiaaren borthala!
«Ai, ei, eta jauna, nun düzie ene seme galanta?»

14

—«Hik bahiena⁵ semerik
Bereterretxez besterik?
Ezpeldoi-altian dün hilik; abil, eraikan⁶ bizirik...»

15

Ezpeldoiko jentiak,
ala sendimentü-gabiak!
Hila haiñ hüllan ükhen-eta deüsere etzakienak!

16

Ezpeldoiko alhaba,
Margarita deitzen da:
Bereterretxen odoletik ahürka ⁷ biltzen ari da.

17

Ezpeldoiko bukhata ⁸,
ala bukhata ederra!
Berterretxen athorretarik hirur dozena ümen da.

(1) Emongo eutsozala. (2) Ator. (3) Lotu. (4) Kendu. (5) Zuk
ba zeunkan. (6) Jaso egizu. (7) Esku beteka. (8) Lexiba, colada.

2.—ATHARRATZEKO EZKONGAIA (S)

Ozaze Jaurgaiñian bi zitroiñ doratü,
Atharratzako jaunak bata dü galdatü.
Uken dü arrapostü eztirela huntü;
huntürik direnian batto ükenen dü.

—Portialiala ¹ juan zite, ahizpa maitia,
ingoiti horra düzü Atarratzeko jauna;
otoi, erran izozü ni eri nizala,
zazpi egün hoietan ohian nizala.

—Bai, bena enükezü hortan sinetsia;
hari erraiten badot zü eri zirela,
zazpi egün hoietan ohian zirela,
bera nahi dükezü jin zü ziren lekila ².

—Ahizpa, jaunts ezazü arrauba ³ xuria,
nik ere jauntsiren dit ene zaia berdian,
ingoiti horra düzü zure senar geia;
botzik ⁴ kita ezazü zure sor etxia.

—Klara, zuaza orai salako leihora,
ipar ala hegua denez jakitera;
iparra balinbada, goraintzi Salari,
ene korpitzaren xerka ⁵ jin dadila sarri.

Ama, juanen gira oro alkarrekin;
etxera jinen zira xangri handireki,
bihotza kargatürik, begiak bustirik,
eta zure alaba tumban ehortzirik.

Ozazeko zeñiak dü arrapikatzen,
Jaurgaiñek'andera herritik partitzen;
haren peko zaldia ürrez da zelatzen,
hanko txipi handiak beltzez dira bestitzen.

Atarratzeko hiria hiri ordoki ⁶,
ur handi bat badizü alde bateti;
errege bidia erdi erditi,
Maria-Maidalena beste aldeti.

—Ama, saldü naizü biga bat bezala,
bai eta desterratü, oi! Española.
Aita bizi üken banü, ama, zü bezala,
enündüzün ezkuntüren Atarratze salala.

(1) Portalera. (2) Lekura. (3) Arropa. (4) Pozik. (5) Bila. (6)
Lau, zelai.

3.—EGUN BEREKO ALARGUNTSA (S)

Goizian goizik jeiki nündüzün espusa nintzan goizian;
bai eta zetaz ere beztitü ekia jelki zenian;
etxek'andere zabal nündüzün egüerdi erditan;
bai eta ere alargüntsa ¹ gazte, ekia sartu zenian.

—Musde Irigarai, ene jauna!, altxa izadazüt büria;
ala dolütü ote zaizü eneki espusatzia?

—Ez, ez, etzitadazü dolütü zureki espusatzia,
ez eta dolütüren, bizi nizano lürrian.

Nik banizün maitetto bat mündü ororen ixilik,
mündü ororen ixilik eta Jinko Jaunari ageririk;
buket ² bat igorri ditadazüt lili arraroz eginik,
lili arraroz eginik eta erdia pozuatürük ³.

Zazpi urtez etxeki⁴ dizüt gizona hila kanberan,
egünaz lür hotzian eta gaiaz bi besuen artian;
zitru⁵ hurez uküzten⁶ nizün astian egün batian,
astian egün batian eta ostirale goizian.

(1) Andra alarguna. (2) Lora txorta. (3) Berenoturik. (4) Euki. (5) Limoi. (6) Garbitzen.

4.—MAITIA, NUN ZIRA? (S)

—Maitia, nun zira?

Nik etzütüt ikusten

Ez berririk jakiten:

Nurat galdü zira?

Ála kanbiatü da zure deseña¹

Hitz eman zenereitan

Ez behin, bai berritan,

Enia zinela.

—Ohikua nüzü:

Enüzü kanbiatü,

Bihotzian beinin sartü²

Eta zü maitatü.

Aita jeloskor batek dizü kausatü;

Zure ikustetik,

Gehiago mintzatzetik

Hark nüzü pribatü.

—Aita jeloskorra!

Zük alaba igorri,

Arauz³ ene ihesi,

Komentü hartara!

Agian ez ahal da sartüren serora;

Fede bedera dügü,

Alkarri eman tügü,

Gaiza següra da.

—Zamariz iganik,

Jin zazkit ikustera,

Ene konsolatzera
Aitaren ixilik.
Hogei eta lau urte bazitit⁴ beterik!
Urte baten bürrian
Nik eztiket ordian
Aitaren axolik.

—Alaba diener⁵
Erranen dit orori:
So'gidaziet eni,
Beha en-erraner⁶;
Gaztetto direlarik untsa diziplina:
Handitü direnian
Berant date ordian,
Nik badakit untsa.

Ez dakit jakitatez
Bainan bai segur ustez
Erranik xori batek,
Zerbeit süiet batez.
Bi presuna direnian agrados elgarren
Ez dela probetxürik heier deusik erranez
Ez kontra eginez,
Pietate hala direnez.

(F. MICHEL - A. IRIGARAY: «*Poesías populares de los vascos*», Col. Auñamendi, San Sebastián, 1962, I, 186-190.)

(1) Asmo, plan. (2) Sartu bai nuen. (3) Duda barik. (4) Ba ditut. (5) Alabarik daukenei. (6) Jaramon egin nire esanei.

5.—AGOTA (S)

Artzaina

—«Argi askorrian¹ jinik ene arresekila²,
beti bela entzün nahiz nunbaitik zure botza;
ardiak nun ützi tüzü? zerentako errada³
nigarrez ikusten deizüt zure begi ederra?».

Artzaintsa ⁴

—«Ene aitaren ixilik jin nüzü zuregana
bihotza erdiratürik, zihauri erraitera
kanbiatü deitadala ardien alhagia ⁵,
sekülakoz defendatü ⁶ zurekin mintzatzia.»

Artzaina

—«Gor niza, ala entzün düt? erran deitadazia?
sekülakoz jin zaiztala adio erraitera?
etziradia oroitzen guk hitz eman dügüla
lürrian bizi gireno alkarren maitatzia.»

Artzaintsa

—«Atzo nurbait izan düzü ene ait'ametara
gük alkar maite dügüla haien abertitzera;
hürrüntaaztez alkarganik fite ditin lehia ⁷
eta eztitian jünta kasta Agotarekiala.»

Artzaina

—«Agotak badiadila badizüt entzütia;
zük erraiten deitadazü ni ere banizala;
egündano üken banü demendren leiñüria ⁸,
enündüzün ausartüren begila so'gitera.»

Artzaintsa

—«Jentetan den ederrena ümen düzü Agota,
bilho holli, larrü xuri eta begi ñabarra.
Nik ikusi artzaiñetan zü zira ederrena;
eder izateko aments ⁹ Agot izan behar da?».

Artzaina

—«So'izü nuntik ezagützen dien zuiñ den Agota;
lehen soa égiten zaio hari beharriala:
bata handiago dizü eta aldiz bestia
biribil et'orotarik biloz üngüratia.»

Artzaintsa

—«Hori hala balinbada, haietarik etzira;
ezi zure beharriak alkar üdüri dira.
Agot denak xipiago ba dü beharri bata
aitari erranen diot biak bardin tüzüla.»

(F. MICHEL - A. IRIGARAY: «*Poesías populares de los vascos*», Col. Auñamendi, San Sebastián, 1962, 100-104.)

(1) Egunsentian. (2) Artaldearekin. (3) Esaidazu. (4) Neska ar-
tzaina. (5) Larra. (6) Debekatu. (7) Arin alegindu daitezán. (8) Jato-
rririk txikiena. (9) Seguru asko.

6.—NAZIONEKO BESTA

Semperen egin dute besta bat andia;
Deklaratzera noa guziak guardia:
Jaun erretorak ditu oro gomidatu,
Nazioneako besta dute ohoratu.

Atso zahar batzuek, ongi apaindurik
Plazara bildu dira elgar aditurik.
Ikusi dutenean an etzela deusik,
Ostatura igan ziren, bihotzak ilunik.

Ostatuan sartzean, etxeko jaunari
Atsoek erran diote: «Hots fite, Bettiri;
Gaur besta handi dugu, iguk jatera;
Joan bear dugu gero guziek plazara».

Bazkaiteko denboran batak bertzeari
Oihu egiten zuten: «Hire graziari!
Biba nazionea!», zioten gogotik,
«Gaztetan ez dun orai gu bezalakorik».

Bazkaldu direnean atso gaztetuak
Kontrapasétan dire asi zorotuak:
«Hots, begira uts egin!», zioten atsoek,
«Dantzatu bear dugu gaur emen guziek».

Danzatu direnean, arbaso zaharrak
Kanporat ilki dira, usturik sakelak;
Plazan arribatzean, bisaiak gorririk,
Mundu guzia zagoen irriz zabaldurik.
Jaun erretora berriz, leiorat etorri,
Hantik konplimenduka zitzaie asi:
«Hots! ene aurrak, orai dantza zaitezte,
Ni ere zuyekilan abia nindaite».

Atsoek erreputa jaun erretorari:
«Zu bearko zaitugu ororen gidari».
Emaiten da trunkoa aintzin gidaritzat
Atso xahar guzien gobernatzailezat.

Asi zenean beraz trunkoa ¹ dantzaten,
Gure atso guziak irriz eman ziren,
Bere esku zimurrak emanik anketan;
Oro begira zauden besta handi artan.

Gure atso gaixoak ez ziren unatzen²,
Bere artzainarekin oro kontent ziren,
Ordean heyen senar gaixoak etxean
Tupina utsa zuten batu iluntzean.

Giza gaixoak ziren plazarat etorri,
Bere emazten bilha, zoroak iduri,
Jaun erretorak hori ikusi orduko,
Oihu egin zioten baken egiteko.

«Zuk Joanes, edan zazu, zuk ere Domingo,
Ene eskuetarik zenbait arno trago.
Bilba nazionea! egizu zuk, Pello;
Egun aserratzek deus ez du balio.

Gizon eta emazte, dugun orok edan,
Basoa trinkaturik umore onean.
Zoazte elkarrekin guziak bakean».
Besta akabatu zen hola arratsean.

(F. MICHEL - A. IRIGARAY: «*Poesías populares de los vascos*», I, 72-75.)

(1) Andikote. (2) Nekatzen.

7.—BRODATZEN ARI NINTZEN

1

Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk;
Aire bat entzun nuen itsasoko aldetik;
itsasoko aldetik, untzian kantaturik.

2

Brodatzea utzirik, gan nintzen ama gana,
«hean¹ jaliko nintzen gibelesko leihora,
gibelesko leihora, itsaseko aldera?»

3

—«Bai, habil, haurra, habil, erron² Kapitainari,
jin dadin afaitera, hemen deskantsatzera,
hemen deskantsatzera, salaren ikustera.»

4

—«Jaun Kapitaina, amak igortzen nau zugana,
jin zaiten afaitera, hantxet deskantsatzera,
hantxet deskantsatzera, salaren ikustera.»

5

—«Andre gazte xarmanta, hoi³ ezin ditekena:
iphar haizea dugu, gan behar dut aintzina,
ezin ilkia baitut, haxe da ene pena.»

6

«Andre gazte xarmanta, zu sar zaite untzira,
gurekin afaitera eta deskantsatzera,
hortxet deskantsatzera, salaren ikustera.»

7

Andre gazte xarmanta igaiten da untzira,
han emaiten diote lo-belharra papora,
eta untzi handian lo dago gaixo haurra.

8

—«Jaun Kapitaina, nora deramazu zuk haurra?
Zaluxko⁴ itzulazu hartu duzun lekura,
hartu duzun lekura, aita-amen gortera!»

9

—«Nere mariñel ona, hedazak heda bela!
Bethi nahi nuena jina zaitak aldera!
Ez duk hain usu jiten zoriona eskura!»

10

—«Jaun Kapitaina, nora ekarri nauzu huna?
Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura,
hartu nauzun lekura, aita-amen gortera!»

11

—«Andre gazte xarmanta, hori ezin egina.
Hiru ehun lekhotan juanak gira aintzina...
Ene meneko zira, orai duzu orena...»

12

Andre gazte xarmantak hor hartzen du ezpata,
bihotzetik sartzen'ta hila doa lurrera...!
Aldiz haren arima hegaldaka⁵ zerura.

13

—«Nere Kapitain jauna, hauxe duzu malurra!»
—«Nere mariñel ona, norat aurthiki haurra?»
—«Norat aurthiki haurra? Hortxet itsas zolara!»

14

Hiru ehun lekhotan dago itsas leihorra.
Oi, Ama anderea, so egizu leihora...
Zur'alaba gaixoa uhinak derabila!

(KANTU, KANTA, KHANTORE, Baionan, 1967, 135-136).

(1) Ea. (2) Esaion, esan egion. (3) Hori. (4) Azkar, arin. (5) Egan, egazka. (6) Legor.

8.—ERRESIÑULA (S)

Txori erresiñula
 Udan da kantari
 Zeren ordian beitu ¹
 Kanpuan janari;
 Negian ezt'ageri
 Balinba ezta eri:
 Udan jin baledi,
 Kunsola nainte ni.

Txori erresiñula
 ororen gehien;
 Bestek beno hobeki
 Hark beitu kantatzen:
 Harek dü inganatzen,
 Mündia bai trunpatzen.
 Ber'eztüt ikusten
 Bai botza entzüten.

Botz aren entzün nahiz,
 Erratürrik nago,
 Ni hari hüilant, eta
 Hura hürrünago.
 Jarraiki ninkirio ²
 Bizia gal artino;
 Aspaldi andian,
 Desir hori nian.

Txoria zoñen eijer
 Kantüz oihanian!
 Nihaurek entzün dizüt
 Igaran gaüan,
 Eia! guazen, maitia,
 Bibiak ³ ikustera;
 Enzüten badüzü,
 Xarmatüren zütü.

—Amak ützi nindizün
 Bedats azkenian:
 Gerozti nabilazü
 Hegalez airian,
 Gaiak aurtiki nindizün
 Sasiño batetara;
 Han züzün ⁴ txedera,
 Oi, ene malurra!

Bortiak txuri dira
 Elür dienian;
 Sasiak ere ülhün,
 Osto dienian.
 Ala ni malerusa!
 zeren han sartü nintzan?
 Juan banintz aintzina,
 Eskapatzen nintzan.

—Txoria, zaud'ixilik,
 Ez egin nigarrrik.
 Zer profemitü dükezü
 Hol'aflijitürrik?
 Nik eramanen zütüt,
 Txedera laxatürrik,
 Orhiko borturik,
 Orogen gañetik.

Xoria zaude ixillik
 ez egin kanturik,

 eztüzü profemitürrik
 ni hola penatürrik
 ez eta plazerik
 ni thumban sartürrik.

(F. MICHEL - A. IRIGARAY: «*Poesías populares de los vascos*», Col. Auñamendi, San Sebastián, 1962, I, 124-132.)

(1) Baidau, dau eta. (2) Jarraituko neuskio. (3) Biok. (4) Egoan.

ERRI - TEATROA (S)

Euskal erri-teatroaren ezaugarri bitxia doguz Zuberoko Pastoralak, antxinatik etorri eta gaur ere bizi bizirik ditugunak... Guk emen oraintsuko barri bat eskeintzen dogu, erri-literaturaren zati ederrez ornidua.

9.-ETXAHUN

(Jeikhaldi 25)

«Au champ.»

Barkoxeko elizan.

Jelkhi: Etxahun bi jaunen artin, Süisa eta apheza.

Apheza: 257 Ene aurhide maitiak,
Egün dügü besta handia:
Eliza besta Barkoxen,
Salbatore egüna.

258 Zuiñen goxo zaitadan
Hainbeste jenten ikhustia,
Oro ümil, oro debot,
Khirixti bezala.

Aphezak süisari eta süisak Etxahuni:

Suisa: 259 Jaun erretorak ez dü
Ahal aisa ikhusten
Jaun aberatsen artian
Oroen gainti zü jarten.

Süisak ezar kanpo Etxahun.

«Au champ.»

Oro erretira. Dantza jauzik

Khantariak:

260 Goizik jeiki Barkoxtarrak,
Besta beitügü egün.
Herritarrak, kanpotiarrak,
Khide eta ezagün,
Güziak saldo berian,
Oro algarren lagün,

talde

- Egünko jei horik gaurko jai
 Untsa goza ditzagün;
 Trenputan gireno, sasoian
 Profeita dezagün aprobetxatu.
- 261 Izan nüzü Barkoxen dibertitzen.
 Ixtant bat inganätzen
 Ezharrit ni bezala besterik
 hanitx beitzen.
 Herriko bestak ziren,
 Mündü handi bazen,
 Zahar, gazte, khantán, dantzan,
 Nulaxek libertitzen!
 Nihun ezta gozatzen
 Nula eta Barkoxen.
- 262 Hürünetik jinik bada
 Gazteria handia.
 Sonülariek haientzat
 Oi alagerantzia!
 Pilota partidatto bat,
 Kartieleko lilia,
 Horier soz ez beitia
 Aisa debeiatzia, erraz aspertzea
 Nulaz ez Barkoxe
 Herri famatia?
- Etxahunek khanta:**
- 263 Egün Barkoxen beita
 Libertitzeko besta,
 Jaun Erretorak emanik berak beitüt süjeta,
 Bi kobla khantatü nahi tüt soniareki aldika.
- 264 Barkoxeko eliza,
 Handi eta eder bastiza.
 Erretorak fitsatürik han bada jaunen plaza, seinalaturik
 Haren manüz ezpeitioke hanti praubik entzün meza.
- 265 Praube hurá da izan
 Zazpi erresumatan,
 Bai eta ere mez'entzün bi mila elizatan;
 Barkoxen ükhen afruntia ihunk'aphezek ez eman.

Otxalde eta Etxahun.

Jelkhi: Otxalde eskeleretan gora eta khanta teatre
kanpotik:

Otxalde:

- 272 Agur adixkidia, Jinkoak egun hun.
Zer berri den errazu, zuk othoi Xuberun.
Ezagutzen duzia Barkoxen Etxahun?
Holako koblaririk ez omen da nihun,
Bisitaz joan nindaite ez balitz hain hurrun.

Etxahun:

- 273 Jauna ezagützen dit Etxahun Barkoxen,
Egün oroz nitzotzü hüllantik ebilten.
Bethi gazt'ezin egon ari da zahartzen,
Lau hogeï urthe dütü mündin igaraiten,
Orai ez da bersetez hanitx oküpatzen.

Otxalde:

- 274 Jauna behar dautazu gauza bat onhetsi,
Bainan ez zautzu behar hargatik ahantzi.
Huntaz egiten dautzut gomendiorik aski:
Konprenituren duzu hitz laburrez naski,
Errozu ene phartez milaka goraintzi.

Etxahun:

- 275 Zure komisionia nahi dizüt egin;
Untsa jiten zitazüt hanitx plazerrekin.
Egon nahia zira arren jaun harekin?
Huna Etxahun bera present da zurekin.
Nik ere ez diota zü nur ziren jakin?

Otxalde:

- 276 Jakin ere behauzu dudarikan gabe, behar duzu
Zeren egin dauřazun erresetuz galde.
Entzutia baduzu nitaz lehen ere,
Nor nizan erraitia ez nuzu herabe,
Lapurdin deitzen nute Jan Batixt Otxalde.

Etxahun:

277. Bihotzaren erditik egiten dit erri,
Zure ganik entzútez parabola hori.
Damúzten ez bazaio zelúko Jaunari,
Behar títzúgü eman zunbait berset berri,
Bai eta ber denboran eskiak algarri.

Otxalde:

- 278 Amodioz derautzut eskia hedatzen.
Zenbat atsegin dutan ez duzu phentsatzen.
Gizon batzuek naute ainitz atakatzen,
Ez dutala ikhasi pertsuen emaiten;
Zuk laguntzen banauzu, ez nute lotsatzen.

Etxahun:

- 279 Etxahun Ziberuan, Otxalde Lapurdin,
Bürüzagi girade khantoren egitin.
Ez gütüzü gü lotsa zuin nahi jin dadin
Erranen dit orotan gure Uskal-Herrin,
Jokhatüren dügüla hek plazer dienin.

nornahi

Otxalde:

- 280 Jauna, ez dugu behar sartu urgulutan,
Etsaminatu gabe gur'izpiritian.
Irakurtu izan dut lehen liburian,
Jaunen jaunak direla agertzen mundian
Erbia lo dagola uste'ez den lekian.

Etxahun:

- 281 Lehen zaharretarik entzúna dit hori,
Mündian bat badela denen бүрүзagi.
Halere nahi badira gure kuntre jarri,
Unheski khantatzeko zunbait berset berri,
Lotsa gabe gütüzü denen zerbütxari.

«Au champ.»
Oro erretira.

(Jeikhaldi 27)

«Au champ.»
Etxahun hiltzen.
Jelkhi: Katalina eta Etxahun.

Katalina

282 Etxahun ari zira
Orai ezintzen pürki;
Egin gei khantoriak
Fini dira ingoitik.

Etxahun

283 Huna orai dereziet
Nik eginen azkena,
Oroek ikhas dezen
Zer zen Etxahun zena.

Hiltzerako khantoria.

284 Nahi balinbagira hil eta salbatü,
Arte huntan behar gira kunbertitü,
Bekhatü egiteko kostüma kitatü,
Leheneko eginetzaz nigarretan sarthü,
Berriz ez lerratü ahalaz begiratü,
Hiltziaz orhitü, untsa kobesatü
Denbora juanez geroz ezta profeitü probetxu.

285 Hebeti juanez geroz ezta profeitürük;
Eternitatiak eztü ürhentzerik hemendik
amaitzerik.
Zunbat arima diren han kundenatürük!
Sekül'ez esperantza hanti jalkitzerik...
Hetzaz orhitürük, ümiliatürük,
Etsenplü hartürük gira harritürük,
Nuiz nahi juaiteko mündü huntarik.

286 Ande dena Maria Birjina garbia,
Zure lagünguaren beharrian gira.
Ofentsatü badügü zure Semia,
Zure Semia eta gure Jaun handia,
Gitian ümilia, denboraz balia,
Eternitiaz orhitzen bagira,
Zelüko borthak zabaltüren dira.

«Au champ.»

Jelkhi: aingüriak.

Aingüriak:

287 Etxahun akabi dük
Orai hire esklabajia.
Bethikoz orai dükek
Hik desiratü phausia.

288 Zelüko glorian hiz
Orai bethikoz Etxahun,
Uskal-Herrian famatürik
Eta izar bat Xiberun.

«Au champ.»

Oro erretira.

Jelkhi: jokülariak oro eta khanta:

289 Zazpi probintzietako irusena,
Hanitx jenten ümen da Xiberua,
Dügülakoz bethitik bake handiena
Eta bortüko aide sanua,
Uda bethin itzalik goxuenak,
Negjan aldiz aize hegua,
Gure ganat bijitaz jiten denak
Izaten dü batzarri berua,
Zü beitzira lilirik eijerrena,
Agur Barkoxe gaixua.

(Pierre Bordaçarre, *ETXAHUN IRURI: «Etxahun Koblakari»*, Trajeria, Anglet, 1974.)

BERTSOLARIAK

Beste Euskalerrian legez, Iparraldekoan ere beti izan dira, eta gaur ere ba dira, bertsolariak, euskalki guztietan. Antologia onetan, an-or-emen, olako bertso batzuk irakurri daitezkez (ikus 82.89.90 zenb.).

Erri-literatura sail onetan, bertsolari gitxi batzuk baino ez ditugu aitatuko, geiagorentzat lekurik ez eta, zoritxarrez. Guztien gainetik, Urepel-eko Xalbador.

10.—NERE HERRITIK (Ameriketako bertsoak)

1

Nere herritik izan ditudan paper batzuek diote
Sortzetik hunat baditudala hiru hogoi'ta zazpi urte.
Denbora batez adin huntara heltzerik ez nuen uste.
Pazientzia hartu behar dut, ez gaitezke beti gazte.

2

Gaztetasuna nik iragan dut bertze ainhitzek bezala,
Ilusionez oro betia ustez bertzerik etzela;
Zango besoak zalu'ta azkar, bero bainuen odola,
Orai ardura etxian nago jarririk umil-umila.

3

Halarik ere iduritzen zaut gazte eta azkar naizela,
Ni zer gizona, ahala banu gogoa dudan bezala;
Bainan nihaurek ezagutzen dut odola hoztu zautala,
Erroak behin eihartuz geroz lurrerat doha arbola.

4

Besoak ere gogortu zaizkit, zangoz ardura herrestan,
Lehen errexki egiten nuen kantu'ta dantza plazetan;
Oraino ere egin nezake, banu indarririk zainetan;
Geldi'ta ixil egon behar naiz, zaharturik auhenetan.

5

Soinua nun zen adituz geroz, loriatua jauzika,
Beti prest nintzan harat joateko, laneko tresnak utzi'ta;
Jauziak oro utzirik orai ahal bezala mainguka,
Alde orotarik mila arrangura, hau dut oraiko musika.

6

Mundua ontsa ezagutzeko urhatsa frango eginik,
Penitentzia nerekin daukat bekatuaren ondotik;
Orduko nere erhokeriak ez ditzazket utz burutik,
Oro ahanztea hobe bainuke, indarrak galduz geroztik.

7

Ez nuen nahi, bainan behar naiz oraikoan bortxaz zentzatu,
Lehenagoko ene furiak adinak daizkit garhaitu;
Sortzean egin zorra badakit behar dutala pagatu,
Halarik ere bizi naizeno beti eginen dut kantu.

8

Laster mundutik joanen naizela gaztek naute abisatzen,
Uste dutea hori nihaurek ez dutala ezagutzen?
Ihardesteko zinez aiher naiz berek kasu egin dezaten,
Ni baino ainitz gazteagoak ikusi tut goizik joaiten.

9

Hau da lege bat gure Jainkoak guziendako egina,
Mundu huntara sortuz geroztik kunplitu behar duguna;
Huntarik ez da nehor salbatzen ukanik ere fortuna,
Lurrean utzi behar baitugu lurretik izan duguna.

10

Lurra dugula denen nagusi sinhets dezagun ordu da,
Lurrak emaiten tuen fruituak lurrean gelditzen dira;
Lurra da gure azken egoitza lurretik bizi baigira;
Goiz edo berant nahi ala ez lurrean sartuko gira.

11

Norbaitek sarri erraiten badu: «Hustu dik Josek mundua»,
Hak bazterretik adi dezake zuzen den arrapostua:
Guk egin behar dugun bezala egin dik bere aldia.
Munduaz ontsa probetxaturik, etzukan atzo sortua.

12

Ni hil ondoan enetzat ez da nihun mezarik emanen;
Hortaz segur naiz, pagatzalerik nihun ez baita izanen;
Adixkideri hau galdatzen dut ez dena mila goztatzen:
Orok bihotzez kanta zazue: Requiescat in pace. Amen!

(MENDIAGUE, Jose: in «EUSKERA», XXII (2. aldia), 1977,
345-347.)

11.—MIXELENZO ZUBIA

1

Mixelengo zubia, zubi famatua,
Arraintzariendako toki hautatua:
Haize-hegoak han du azkarra xixtua,
Niri laster egin daut xapelaz tratua,
Xapelaz tratua.

2

Hameka orenetan, oraino barurik,
Zubi hartan arraintzan ari nintzelarik,
Arrain bat naukalarik amuan lothurik,
Haizeak ereman daut xapela burutik,
Xapela burutik.

3

«Hasarre heldu hintzen, hozturik mendian
Niri mendekatu haiz; hobenik ez nian...
Zer huen hartzekorik ene xapelian,
Gisa hortan sartzeko hartuta urian?

4

«Apezari burutik xapela kentzia
Barkhatu erran gabe, hoi duk ausartzia!
Hegoa erho zela nian aditzia...
Noiz ikhasi-gogo duk zer den zuhurtzia?

5

«Hastiagarria haiz, egunaz bai gauaz,
Oro erhokeria; ez dakik zer nahas...
Ez duka urrikirik egin dukan lanaz,
Gisa huntan emanik apheza buru-has?

6

«Nungo Satan gorriak igorria hintzen?
Ez haut ikusi ere xapelaren hartzen!...
Hartu dukan lekhurat ez baduk bihurtzen,
Jakinen duk enekin zertarako haizen.

7

«Haizea, izanen duk justiziaz gerla,
Segur duk preso ere harturen hutela;
Baionan gaitzen badut, Pau-erat apela,
Ez badautak bihurtzen ebatsi xapela.

8

«Aphezen xapelari aski aiher denik
Baduk bai mundu huntan haizeaz bertzerik;
Khentzen ahal baluzte hik bezain ixilik,
Ez ginezakek ibil buruan xapelik,
 Buruan xapelik!»

(D'IBARRART, Pierre: in «KANTUZ», Bayonne, 198-199.)

12.—EZPELETA HERRIAN

1

Ezpeleta herrian, ostatu batian,
Gerthatu izan naiz bazkari batian,
Uste gabian, laur lagunetan;
Etxek'andera bere lanetan.
Espantuia franko bere saltsetan,
Ageriko da gero obretan.

2

Etxek'andera goizik jeiki zen;
Zortzi orenetan sua hila zen,
Haragia're buxerian¹ zen;
Hamek'orenetan garburen sartzen,
Eguerditan bazkaria prest zen;
Manera onez zopa on bat zen.

3

Zopa jan eta haragi hori
Ekharri dauku egosi berri,
Beguiratu eta egin neron irri;
Poxi poxi bat eman zautan niri,
Zer jeneros zen etzen ageri,
Mamia guti, hezurra handi.

4

Arnoa zuten Bordalekotik,
Edo bertzela Taula zokhotik
Agollatua ² ongi uretik;
Edan dezagun beraz gogotik,
Horditziaren beldurra gatik,
Horrek ez gaitik joko burutik.

5

Zalhu dabila zerbitzaria,
Saltsa bat badu egin berria
Nahi dugunez haren erdia;
Egin dezagun beraz guardia,
Saltsa eztela egin berria,
Bezperakua, mintzen hasia.

6

Galdetzen derogu zerbitzariari
Ekhar dezagun erraki hori
Ongi errerik, gizenean guri.
Begiratu eta egin neron irri,
Zikhiruaren fama tzarrari;
Mehe zen bainan etzen ernari.

7

Kafe on batek denak ahazten
Galdetu orduko berehala prest zen,
Ura doidoia pegarrian zen;
Hasi zen beraz noizbeit ekhartzen
Ura doidoia hasia beltsten:
Kikera erdi bat phurruska bazen.

(OTXALDE: in «Kantuz», Bayonne, 156-157.)

(1) Aragitegian. (2) Nahastua.

13.—KANTORE BERRI

Kantore berri xarmant batzuen hastera noa kantatzen,
Iñorant denik balinbada guziek jakin dezaten:
Guziek badakizue badela izar eder bat Luzaiden,
Eztitasunez betia da eta guztiak ditu xarmatzen,
Gaixoa hasi da tristatzen.

Jaun Jainkoaren probidentzia ez dea bada haundia?
Irauzketako plaza hortan holako argi noblia,
Argi horrek merezi luke ederki adoratzea,
Oferendatzat emakozue Mirra edo Intsentsua,
Ahal duenak Urhea.

Barber gazte bat jiten omen da Espainiako aldetik,
Artizar horren kontsolatzerat erremedioz beterik;
Barber gazteak egin ote du, oi mirakuilu handirik?
Erremedioak egin tu bainan deus ez omen du hoberik;
Gaixoa utzi du tristerik.

Kontseiluño bat banikezu, xarmant, emaiteko zuri:
Barbera gazte horrenganik ez balinbazira eri,
Nahi baduzu kontserbatu zure argi eder hori,
Gezurño zombait errakozute adoratzaile hoieri,
Eta ez fida nehoi.

Amodioetan dagon presuna ez da beti alegera;
Plazer bezenbat penarekilan pasatzen baitu denbora;
Ni ere gaixoa hementxe nago galdurik nere odola,
Maitea gabe mundu hunetan ni ez naiteke kontsola,
Hilik ere ez dut axola.

Amodiorik gabe dagonak penak zer diren ez daki,
Gaitz hortan sartu gabetarikan bakotxa begira bedi;
Amodioak ezarri banau bihotzetikan ni eri,
Sekulan ez zaut ez ahantziren, maitea, zure pena neri,
Maitea, zure pena neri.

Ahal banintza esplikatu nik zenbat dutan sofritzen,
Xarmegarria zure gantikan zer penak'tudan pasatzen;
Nik zu horrela maitatzen eta zuk ni horrela tratatzen,
Amodioak, amodioak ez dautzu dolu egiten,
Ez dautzu dolu egiten.

(BORDDEL: in «*Kantu, Kanta, Khantore*», Baiona, 1967,
190-191).

14.—BUNETA ETA TXAPELA (S)

1

Igaran egün batez egin dügü erri;
Hortaz nahi deiziet eman zerbait berri:
Parisetik jin zaikü bidajez Phetiri,
Urthe bakhotx fortüna eginik üdüri.

2

—Agur, eta zertan hiz, Phetiri gaizua?
Ene haur-denborako khantüko aizua!¹
Igaran dük ordüngo denbora gozua,
Eta hi aberastü, ezpehiz zozua!

3

—Parisetik horra nük zien ikhustera,
Han untsa bizi gütü, adixkide Pierra.
Hiaurrek ikhusten dük egin diat afera,
Txapela ezarri diat burutik behera.

4

—Txapela badük bena arhin barnekua:
Nun ützi dük buneta Uxkal-herrikua?
Txapel horrek eztereik edertzen kaskua:
Basta ederra gatik, asto dük astua.

5

—Eztiat ez axolik laiduen batere!
Han ezagützen diat hanixko andere!
Itxürari so-ginez aberats bai ere
Ezküntüren ahal nü, ez erran deüs ere.

6

—Arren, badük ideia hola ezkuntzeko?
Lagün franko badükek hortan segitzeko,
Ofizio bat balitz Parisen hartzeko,
Aberats izan gabe, auher bizitzeko!

7

—Ez nü ez hi bezala lanian akhitzen;
Lan anplexagorik dük hirian agitzen.
Ene alde hasi nü Parisen bizitzen:
Arrüaren² xokhuan oskien argitzen...

—Ofizio ederra oski-argizale:
 Har ezak emaztia ziraje-saltzale.
 Haurrak jinen zaitzie gose-bazkazale:
 Utziren dük Parise ahal bezañ zalhe³.

Ni ja nahi nük egon buneta kaskuan,
 Ene sor-lekhü maite Uxkal-herrikoan.
 Ihurk e jakin-gabe zer düdan goguan,
 Kobla zunbaiten huntzen süthondo-xokuan.

(LIGUEIX: in «*Kantu, Kanta, Khantore*», Baiona, 1967, 179-180.)

(1) Alboko auzoa. (2) Kalearen. (3) Zalhu, arin, azkar.

15.—AITA - SEMEAK

Gaia: *Aitak dirua egin, eta semeak jan... XALBADOR da aita, semea MATTIN. Seinä bertso: aitak asiera.*

Xalbador:

Semea zer dan ikasteko nik
 onekin izan dut jasta,
 aurrera doa bere hartan ta
 nik ezin eman arrasta;
 kusi¹ guziak erosi behar,
 dena dantza eta besta,
 gure etxeko modua hau da:
 nik egin, da hunek gasta.

Mattin:

Orra nola den, jende maitiak,
 zahar hörrien gradua,
 beste gauzarik ez dute maite,
 bakar-bakarrik dirua;

gaztiek berriz ez dute nahi
zahar hoi en urgulua,
diruarekin nahiago dugu
guk kurritu mundua.

Xalbador:

Bai, gastatzaile segurak dira
bainan ez langile finak,
aita ta seme asko ikusten
dira egun ez-berdinak;
diruarentzat errespeto ez,
goza beren atseginak,
berek eginik ez daukate ta
gastatu bestek eginak.

Mattin:

Nik aspalditik kurritzen ditut
zahar horien etxeak,
eta berdinak ikusten ditut
batzuek eta bertzeak;
diru iteko² hortxe dagozi
gehienak erdi goseak,
bertzela bizi nahiak dira
gaurko eguneko gazteak.

Xalbador:

Gaurko gazteak urguluz bete
ari direla abiltzen,
munda guztiak ikusten ditu
zer modutan derabiltzen:
gasta bakarrik eta hor kurri,
ta ez badezue biltzen,
zure semeai gostako zaio
zu bezala erabiltzen.

Mattin:

Aita maitea, zure erranik
niz eztut nahi sinetsi,
eta hortako nabila beti
zure erranetik igesi;
baserri ona daukagu eta
maxina berriak erosi,
zuk baino aisô³ lana eginez
semiak nai baitu bizi.

Xalbador:

Guk ere lehen landu ditugu
pentzeak eta alorrak,
ta egun ez daukagu damurik
ibilirik lan gogorrak;
bainan zuek hor asmo horrekin
gehienetan moxkorrak,
ta gero zeinek pagatuko'tu
tresnetan zuk egin zorrak?

Mattin:

Bein ere enaiz akort ibiltzen
ni hoietan aitarekin,
hunek dirurik ez balin badu
berak ez daki zer egin;
semia ezta batere lotsa
tresnan egin zorrarekin,
tresna hura pagaturen du
beraikin ein lanarekin.

Xalbador:

Zenbait gisetan lan egitea
ez genduke guk makurrik,
bainan semeak ez du ikusten
gaur beste bide laburrik;
diozu: «Tresnak eroskitzu ta
biziko gira gu urrik!»⁴

Bainan berak ez du nai unkitu⁵
ez traktor ta ez aitzurrik.

Mattin:

Zuk enauzula ni konprenitzen
hauxe da gure makurra,
gaurko gaztiak maite baititu
motorra eta trakturra;
hau berriz beti hementxe dago
dirudun gogo-laburra,
nik sasira botako ditut
gaur sega eta aitzurra.

Xalbador:

Segarekin ta aitzurrarekin
lan egiten ginueno,
zorrik ez ginuen nehon ta
osasuna ere sano;
naikoa esana dautzut bainan
hau ere entzun oraino:
dirua gastatzen aisago da
metara biltzea baino.

Mattin:

Burua gogortu zaio aitari
orai semiak sinesteko,
nik beti hauxet erraten diot:
hoiek gogotik uzteko;
azkenian hauxe erran behar diot
hobeki konprenitzeko:
hau beti pobre biziko dela
gero aberats hiltzeko.

(Elizondo-n, 1969-VII-20an kantatuak: «Ezin bertzean», Auspoa, n. 85, 128-132.)

(1) Ikusi. (2) Egiteko. (3) Aisago, errazago. (4) Urririk, debalde. (5) Ukitu, ikutu.

16.—ALARGUNAK BERE EMAZTEAREN ARROPARI

1

Pentsa zazue, alargundu bat
ez daike izan urusa;
dolamen hunek, oi, ez dezala
ainitz gehiago luza!
Orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza...
haren arropa hantxet dilindan
penaz ikusten dut hutsa.

2

Geroztik nihaur ere nabila
guzia beltzez jantzirik;
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak hersterik...
Ez pentsa, gero, andre gaixoa,
ba den munduan besterik
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.

(*XALBADOR*. Donostian, txapelketa batean, emondako gaiari
bapatean erantzunez.)

17.—SORTETXEARI

Oi gure etxe maitea,
orroitzapenez betea,
zorionaren atea!
Zure altzoan iragana dut
sortzetik orai artea.
Izanagatik pobrea,
bertzeak baino hobea
ni sortu nintzan etxea.

Amak, munduratekoan,
etxea, zure xokoan
hartu ninduen besoan.
Geroztik hunat eduki nauzu
zure geriza goxoan.
Nabilalarik kanpoan
ez naiz sosegu osoan,
beti etxea gogoan.

Dudalarik zerbait pena
zu zaitut lagun lehena,
ihes leku hoberena.
Zure alderat inguratzen naiz
ahalik eta maizena.
Munduko leku maitena,
zuri zor dautzut naizena:
izana eta izena.

Arbason eskutik jina,
o egoitza atsegina,
ez dakit zure adina.
Heiek lurpean estali ziren,
zutan utzirik arima.
Hain amultsuki egina,
heientzat zer bihotz mina
zutaz gabetzen bagina!

Etxetik hoinbertze gazte
kanporat zorion eske
zoraturik bazoazte.
Bizi-moduak behartuz edo
etxea ez aski maite?
Gure faltaz balezate
arrotzek etxe hau bete,
hobendun haundi gintaizke.

Zutaz hainbertze entzuna,
aunitzentzat ezaguna,
o bizipide urruna!
Nik betidanik arbuiatu dut
zure aberastasuna.
Hau da guk deraukaguna,
zu baitan eskas duzuna:
etxeke goxotasuna.

Ene haur onak, badakit
luzaro gabe engoitik
joanen naizela mundutik.
Arbason ganik ukan dohaina
ez utz sekula eskutik,
aldegitean hemendik
heier erraitea gatik:
Etxea han dago xutik!

Pertsu hauk bururatzean,
azken finez orrotzean,
emanen naiz otoitzean:
Etxea, noizbait utziko zaitut,
aunitz pena bihotzean;
Jaunak, zure babesean,
nola bainintzan sortzean,
naukala heriotzean.

(XALBADOR, «*Odolaren mintzoa*», Auspoa, Tolosa, 1976,
83-85.)

18.—JAINKOA ETA NI

- 1/ Fede haundiko burrasoan ganik sortu bainintzan mundura,
Jainko legean hezi ninduten jitean adimendura;
hain zen beroa denbor'hartako eliz gizonen kar hura,
ziotelarik gaizki eginak zeramala ifernura,
muinetaraino sartu zitzautan Jaungoikoaren beldurra.
- 2/ Entzuleeri behar diotet hau erran haste hastetik:
errexenerat nintzan lerrakor gauza guzien gainetik;
ahulezia ene nagusi izan da egundainotik;

ukan aholku guzien eta Jainko beldurraren gatik,
ez nau ez deusek nehoiz beiratu bekatoros izaitetik.

- 3/ Legeak zuen erakaspena hausten nuen guzietan,
okaztagarri aurkitzen nintzan Jainkoaren begietan,
nitaz betikotz etsi zuela iduritzen baitzitzautan;
desgustaturik damuz betea egon izan naiz bortzetan,
ez sorturikan Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan.
- 4/ Orduko apez suhar zintzoek halako arak zituzten,
etzen maitasun gozo haundirik heien ahotik ixurtzen;
heiek Jaunari eman itxurak ari ninduen itsutzen,
zeruko edertasunak berak hotz hotza ninduen uzten,
gaztiguaren labe gorria baizik ez nuen ikusten.
- 5/ Orai ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu ote naizen,
etzira egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen;
gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen,
gure arteko hoztasun hartaz hasia nintzan aspertzen...
Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezen!
- 6/ Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik,
zure behako samurra eman nau fidantziaz beterik;
deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik,
ez gaztigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik;
gaurkotz ez dautzut deusik eskatzen, amodioaz besterik.
- 7/ Nehoiz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria,
bihotzak edan duen ur onak hil du zure egarria,
ur on guzien Jabeak berak emanikan negurria;
horra egi bat amodioak gure bixtan ezarria:
Haren oinetan sortzen zaukula bakearen iturria.

(XALBADOR, «Odolaren mintzoa», Auspoa, Tolosa, 1976,
213-215.)

19.—LAFITTE JAUN KALONJEARI

*Iragan zenbaki batean, Lafitte kazeta hunen buruzagiak,
jakin-arazi dauku nola «esku gazteago bati kazetaren molda-
tzeko kargua» utzi duen.*

Karia hortarat huna zonbait pertsu.

Isentsatzea nahiz Jainkoak duen bakarrik merezi,
Zure baztertze hoi, Aita Lafitte, ez daike ixilik utzi.
Hoinbertze urtez gaituzu eta eskuara garbian hazi,
Gu Eskualdunen agur beroa ez duzia irabazi?

Bihotz haundiko gizona eta apeza zira errotik,
Amodio-an sinetsi duzu, jakintsun izana gatik.
Zendako zinets? Nork du zuk baino ikertu barrenagotik?
Zuk sinetsi-ta, guk sinesteaz ez dugu ahalgetzerik!

Eskuararikan ttiki ttikitik ez zautzuten erakutsi,
Hogoi urtetan goiti zinazan zinuelarik ikasi:
Bertze batzuek diotelarik: «dezagun eskuara utzi!»
Hortan berean gelditzen zira Eskual-Herriko iguzki.

Nor da den oroz zuk bezalako jakitatea daukanik:
Pilota nola sortu zen eta dantzak heldu diren nundik...
Gizonen idai mota guziak baderakizu errotik,
Zer du Jainkoak eman munduan behatu ez diozunik?

Maitatu duzu mundu guzia, maitatu Eskual-Herria,
Ezin agortuzkoa daukazu zure eskual egarria.
Goiz eta arrats begien bixtan haren arpegi garbia,
Nola maitea maitearekin bizi guzikotz jarria.

Idaien guneta bidexketan, nola urean aingira,
Harrigarriki iratzarrian, erakusle gaitza zira.
Sokratena gisan zombat ez duzu zuk sortarazi egira?
Zinaudelarik goi graziaren lan ixilari begira.

Gau eta egun ixil lanean, erle ulia bezala,
Izpiritua xorrotx eta hotz, miatzen mundu zabala.
Zilatu gatik mundu huntako edergailuen azala,
Atxiki duzu haurrak deraukan loriatzeko ahala.

Herria eta ahulena alde gazterik gerlan lotua,
Haundikerian ez da alatu zure urteen kantua.
Bai eta zuhaur pobre geldituz, nahiz dohainez hauntua,¹
Bizi osoaz beiratu duzu zure hurreko hautua.²

Etsaiak ere ukan dituzu, izan zaikena bertzela?
Sobera argi sortua zira, hartzeko denen modela.
Eta gainerat su gaitza dauka zure eskualdun odolak,
Itzala ere haundiago du, haundiago den arbolak.

Barkamendua galdatu duzu «Herria»-n hoin umilikan,
Ez da munduan hori eman ez dautzun eskualdunikan!
Gure bihotzek ez dute egun, Aita, bertze otoitzikan:
Eskual izarra argitan zauden luzaz eskual zerutikan!

(ITZAINA, Mixel: «Herria», n. 900, 1967)

20.—AGUR, XIBERUA (S)

1. Sor lekhia ütirik gazte nintzalarik,
Parisen sarthü nintzan korajez betherik.
Plaserez gose eta bürian hartürik
Behar niala alagera bizi..
Bostetan geroztik,
Nigar egiten dit
Xiberua zuri.


Errepika: Agur Xiberua,
Bazter güzietako xokhorik eijerrana!
Agur sor lekhia,
Zuri ditit ene ametsik goxuenak,
Bihotzan erditik
Bostetan elki deiatadazüt hasperena;
Zü ützi geroztik,
Bizi niz trixterik,
Abandonatürik,
Ez beita herririk
Parisez besterik
Zü bezalakorik.

2. Palazio ederretan gira alojatzen,
Eta segür goratik aide freska hartzen;
Gaiñ behera so-ginik betzait üdüritzen
Orhigañen nizala agitzen..
Bena ez dira hebén
Bazterrak berdatzen
Txoriak khantatzen!

3. Ametsa, lagün nezak ni Atharratzerat,
Ene azken egünen han igaraitera,
Orhiko txoriaren khantüz behatzera
Pharka ditzan nik egin nigarrak.
Hots, Xiberotarrak,
Aintzinian gora
Euskualdün bandera.

(ETXAHUN - IRURI: «*Etxahun-Iruri khantan*», Pau, 1977,
9.)

II. ZATIA: IDAZLEAK



DECHEPARE, Bernard (BN)

(XVI. mendekoa)

Ez noiz, ez non jaio eta il zan ez dakigu. Eyheralarreko erritxoan (Donibane Garazi ondoan) egon zan erretore.

Liburua: «Linguae Vasconum Primitiae», *au da*, «Eskuararen lehenbiziko liliak» (P. Lafitte). **Neurtitzak:** erlejinozkoak (3, luzeak), giza-maitasunezkoak (10), Contrapas eta Sautrela (dantza doimuz, euskeraren goratarre bi), itz lauzko itzaurre labur bategaz.

Etxepare-ren poesia ez da «poesia uts-soilla, edertasun billuziaren ispillu izan nai lukeana, baikik eta arrea, loia, giza-gorputz-arimen ondar zikiñak, urre izpiz nahasiak, igeri daramazkien erreka (...) Gure literaturaren lehen-gurasoak darabilen mintzaira erraza da beti, bizia, sarkorra bere laburrean, neurriaren molde gogorak bein ere trabatzen ez duena» (L. Mitxelena).

21.—AMOROSEN GAZTIGUYA

Berzek berzerik gogoan eta nik Andredona Maria.
Andre hona dakigula guzior, othoi, balia.

Amorosak nahi nuke honat beha balite,
hon litzaten gatzgurik agian entzun liroite¹;
amore bat hautazeko konseilu bat nekeye²,
balinetan sekulakoz gogoan sar balekie.

Nikaurk ere ukhen dizit zeinbat ere amore,
bana hantik eztut ukhen probetxurik batere;
anhiz pena, arima gal, harena eta neuri³ ere;
amoretan plazer baten mila dira dolore.

Amoretan othe date³ leyal denik batere,
hitz ederrez ezpa ioyaz mutha eztadin hura ere?
Hoben uste duyenori anhitzetan traidore;
hobena date gaitzenik arimaren berere⁴.



Bekhatuzko amoria bethi date traidore,
erioa daugunian egia zogeri date⁵;
hartu duten plazer oro orduyan iragan date,
bekhatua gelditzen da penatzeko gero ere,
anhitz plazer ukhen badu, anhitz behar dolore.

Amore bat nahi nuke liadutanik⁶ egia,
bizi eta hilez gero hain lakidan balia.
Zerbitzatu nahi nuke halakoa bizian;
heben labor bizia da, iagoitikoz⁷ berzia.

(...)

Amorosek badagite behin bere nahia,
handiago jiten zaie berze nahikaria;
ezin ukhen behin ere bere konplimenduya,
bethi peitu⁸ deramate bere mende guzia.
Emazte eta gizon orok har amore Maria,
eta orori baitekegu berak konplimenduya.

(...)

Itxasoan ur guzia, zeruyetan izarra,
oihanetan itzal ori, lur guzian belharra,
egunari iguzkia, gau beltzari ilhuna,
lehen faltaturen dira ezi Hura gugana,
balinetan egiazki gu bagaude Hargana.

(...)

Nihaur ere ebili niz anhitzetan erhorik,
gaoaz eta egunaz ere hotzik eta berorik:
loa galdu, pena aski, bana ez arimagatik.
Orai oro nahi nuke liren Ieynkoagatik (...)

Ama ezitia, nik badagit zure kontra faltarik,
zuk gaztiga eta dreza nazazu, othoi, bertarik.
Elas! norat ihes naidi, zu neure Ama utzirik?
Neuretako eztazagut zu nolako amarik.

(1) Entzungo leukee. (2) Emongo neuskioe. (3) Egondo ote da. (4) Bederen. (5) Agertuko da. (6) Que me fuera fiel. (7) Betirako. (8) Falto.

22.—CONTRAPAS

Heuskara, ialgi adi kanpora!

Garaziko herria
benedika dadila;
Heuskarari eman dio
behar duyen thornuya¹.

Heuskara,
ialgi adi plazara!

Bertze jendek uste zuten
ezin skriba zateyen;
orai dute phorogatu
enganatu zirela.

Heuskara,
ialgi adi mundura!

Lengoajetan ohi intzan
estimatze gutitan;
orai aldiz hik behar duk
ohoria orotan.

Heuskara,
habil mundu guzira!

Bertzeak oro izan dira
bere gohien gradora;
orai hura iganen da
bertze ororen gainera.

Heuskara!

Baskoak orok preziatzen,
Heuskara ez iakin arren;
orok ikasiren dute
orai zer den heuskara.

Heuskara!

Oraidano egon bahiz
inprimitu gabarik,
hi engoitik² ebiliren
mundu guzietarik.

Heuskara!

Ezein ere lengoajerik,
ez frantseza ez bertzerik,
orain ezta erideiten³
Heuskararen parerik.

Heuskara,
ialgi adi dantzara!

(1) Maila, rango. (2) Gaurtik aurrera. (3) Idoroten, aurkitzen.

23.—AMOROS SEKRETUKI DENA

Andre eder jentil batek bihotza daut ebatsi;
Hartzaz orhit nadinian, deus ere ezin iretsi.
Nik hura nola, nahi nuke hark banentza honetsi¹.
Ezin benturatuz nago beldur, dakion gaitzi².

¡Mirail bat nik ahal banu hala luyen donoa³
Neure gogoa nerakutson sekretuki han barna,
Han berian nik nakusen harena ere nigana,
Hutsik ezin egin nezan behin ere hargana!

Ene gaizki penatzeko hain ederrik sortu zen.
Gaoaz eta egunaz ere gaizki nizi penatzen.
Harekila bat banadi, bihotza zait harritzen;
Neure penen erraitera are eniz ausartzen.

Ene gogoa baliaki⁴, maite bide ninduke;
Ni errege balin banintz, erregina litzate.
Hura hala nahi balitz, elgarreki ginategi;
Haren haurrak eta eniak aurride oso lirategi.

Balinetan nik banerro⁵ hari neure bihotza,
Eta gero balin balit respuesta bortitza,
Dardoak bano lehen liro erdira⁶ ene bihotza;
Duda gabe eror nainde han berian hiltotza.

Artizarrak bertzetarik abantaila darama;
Halaber da anderetan ni penatzen nuyena.
Hanbat da eder eta jentil, hartaz erho narama.
Zorihonian sortu date haren besoan datzana.

Ene gogoa nola baita zuzen iarri hargana,
Haren'ere langoikoak dakarrela nigana,
Ene pena sar dakion bihotzian barrena,
Gogo honez egin dazan desiratzen dudana.

(1) Maite izan. (2) Que le sea molesto. (3) Doaia. (4) Jakingo (ezagutuko) baleu. (5) Esango baneutso. (6) Erdiratuko (zatituko) leuke.

LEIZARRAGA, Ioannes (L, b.)

(Beraskoitze, XVI. mendekoa)

Kalbinista bihurturik, gogotsu ekin eutson erlejino barria zabaltzen, Jeanne d'Albret Nafarroako (Paueko) Erreginearen aginduz eta menpean. Eliz artzain egon zan Labastidan.

Liburuak: 1) «Jesus Christ Gure Iaunaren Testament berria» (1571); 2) «Kalendrera»: *egutegi labur bat* (1571), 3) «ABC edo Christinoen Instructionea» (1571). *Iru liburuok itzulpen utsak dira, La Rochelle-n argitaratuak.*

Leizarragak euskera «batu antzeko» bat lortu gura dau: bera, izkuntzaz, baxenapartarra izan arren, Lapurdi aldekoa artzen dau oinarritzat, baina iparraldeko beste euskalkietara ere zabalik. Izkerera zeatza ta aberatsa dau, latin iturritiko itzez guttiz ornidua (kulteranismoa). Euskal literaturan ez eban eragin andirik izan, ez eskolarik sortu. Euskera zaarraren ikertzaileentzat eta gaurko euskera «kulto»-zaleentzat guttiz da interesgarri.

24.—NAFARROAKO ERREGINARI ESKEINTZA

GUZIZKO ANDRE NOBLE Ioanna Albrete Nafarroako Regina Bearnoko Andre gehiën &c. denari, bere zerbitzari guzizko zipiak eta guzizko obedientak, Ioannes Leizarraga Beraskoizkoak, Iesus Kristen graziá eta bakea desiratzen.

ANDREA, zeren ni zure ezagun gabea bezala naizelarik, Testamentu berriaren heuskarazko translazione hunen zure Maiestateari dedikatzerá ausartu izan naizen, merezi onez arintasunez akusa ahal neinde, baldin neure ausartgoa hunez zerbaít ekusa bereren eman ezpaneza. Bada, niri haur eragin draudaten¹ anhitz berze razoinen artean izan dirade, zure humanitate handi jende prestu guziéz laudatua, eta Iainkoazko zure zelo handia. Zure humanitateaz den bezenbatean, ene mannerá halako bazen-ere, non ezpaitzuen irudirik-ere zure humanitatea sekulan enegana hel ahal leitela, guziagatik-ere anhitz aldez hura baliatu izan zait, eta prinzipalki, zure maiestatearen plazera hala izanik gaje² ordena lekidan, zure Bearnoko herrian entretenitu izan naizen bezenbatean: ezen halaz eman

izan zait ithoa bezala azpitik nendukaten gogo-arranguretarik, eta orhoitzeak-ere buruko biloa latz eraziten drautan kaptivitatezko suiekzionetik ilkhiteko okasione eta moien. Eta zure zelo lankoazkoaz den bezenbatean, hark du enjendratu zu baithara jende prestuén bihotzean halako reverenziabat, non are zure ezagutza eztutenek-ere ezin asko mirets baitezakete zure bert-hutea, zuri zuzen onez emaiten zaizkizun laudorioakgatik ze-ren hain afekzionatu erakusten zaren Iainkoaren tenpleko gau-za gaizkituén³ drezatzen, eta zeren hark, kuasi desegin eta arrasatu izanik, orain zure moienez reedifikatzen delarik, rekrubatu baitarama bere leheneko edertasun Apostoluén denbo-rán ohi zuena. Hunetakotzat exenplutan frangoki alega ahal dezaket zure Bearnoko herria: hura behin berze erran ahal dai-tenik batre bezain Iainkoaren hitzaren rezebitzera behatu gai-tzetako eta rebel erakutsi izanik, guziagatik-ere, Iankoa zure zeloak, zuhurtziaz eta gogo-handitasunaz zerbitzatu izanik ha-lakara⁴ mansotu eta ematu izan da, non egungo egunean Bear-no guzian Iainkoaren hitza paisibleki eta edifikazione handitan predikatzen baita, baieta disziplina eklesiastikoa egiazki eta bide bezala, obserbatzen. Baina zer? Etzait niri eman zure lau-dorién aiphatzez hain aitzina avanzatzea, hetango klaretatea beure minzatzeko insufizienziaz ilhun eztezadanzat. Baina hu-netan gelditzen naizela-ere, zporzu dut ezen, ahal liratekeen bo-rondaterik zuzenenez eta hobenez-ere gaizki minzatzear berze ofiziorik egiten eztuten batzuetarik, ia erran izan denak-ere de-fenda ahal nezakela. Ezen ahal datekea ene kondizionezko ba-xotasunik ezta hunelako berze gauzarik batre, ni hain obra saindu baten, bere zelo eta afekzione sainduagatik mundu gu-zietan hanbat laudorio emaiten zayon Regina bati dedikatzetik gibeleratzeko nuenik? Eta baldin edozeinek replikatu nahi balu eta erran, ezen egin izan dena, nik baino hobeki berze batek egin ukhan lukeela: hunetan aplika ahal dezaket neure defen-sionetan Paedaretus deitzen zen Sparta hiriko batek egun batez erran ukhan zuena: zakusanean ezen hiriko hirur-ehun majis-tratuetarik bat izatera, etzela hura elejitu izan biltzarretik ale-geraki bere etxerat itzuli izan zen, zioela, ezen atsegin handia luela zeren hirur-ehun gizon hura baino prestuagorik hirian eriden izan ziraden. Segur nik-ere erran ahal dezaket ezen milla eriden izan balirade-ere, ni arindu nendukeitenik pena huneta-

rik (zein izan baita nehork lehen bizitik estima ahal lizakeen baino handiago) nik ukhan nukeela hanbat atsegin nola ukhan baitut atsekabe zuren nizaz berzerik hatse baten egitera avanzatu izan ezten. Hunezaz testimoniaje ekhar ahal diezakedé prinzipalki kargu hunen hartzera inzitatu ukhan nautenék. Eta dena den bezala erran dezadantzat, Zure berthute handiak, Andréá, eta prinzipalki nik orain aiphatu ditudanak, bayeta orduan zure Loktenent jeneral Agramondeko Iaunaren ezhortazione handiak, eta Belzunzeko eta Meharineko Iaunén eta zenbeit berze ene adiskideren solizitatze ardurazkoak, ene goga eraziteko asko eta sobera izanagatik: hala-ere konsideratzen nuenenan, nola gure denborán-ere anhitz personaje iakinsurik Testamentu berriaren translazionean enplegatu izan den, hanbat Latinez, Franzesez, nola anhitz berze lengoaje abratsez⁵ eta pratikatuz; eta gero nola Translatazale berék eta hayen ondoan berzék anhitz gauzatan, bai sensuan bai lengoajeaz zer erran eriden ukhan dutén; eta ikhusirik ezen halakoekin konparatzera ez-deus baino ez-deusago ninzela, eta neure buruari kuasi gogo nahiaz eta probetxu egiteko desiraz berzerik ezna-kusolarik, eta nik hala borondate ukhanagatik, beldurrez gauzá ez ledin moldez burutan ilki: karguaren hartzera bathirik⁶ ezin naidikeen, eta guti falta zedin non ezpainendin xoil gibelera, nakusanean hanbat az ene entrepresa handiago, zenbatez nik skribatu dudan lengoaje motá baita sterilenetarik eta diversenetarik: eta oreino, translazionetan behinzat, usatu gabea. Alabaina segur izanez ezen Heuskaldunak berze nazione guzién artean ezgarela hain basa, non gure lengoaje ezin ezagut eta lauda dezagun gure Iainko Iauna: eta ikhusirik ezen okasionea presentatzen zela, bayeta speranzaz ezen ni baino sufizientagorik ere izanen zela obrán esku edukiren luenik (nola eriden-ere izan baita Bearnoko sinodoaren ordenanzaz lan egina bisitatu eta konferitu behar izan denean) azkenean, Iainkoaz landán, zure anhitz berthuterekilako autoritate handian sporzu harturik, gogo egin nezan, neure ahal guziaren egitera, eta Iainkoak eman plazer ukhan drautan guziaren borondate onez haren Elizaren edifikazionetan enplegatzera. Baina are gehienik bihotz eman zerautana zen nik nuen speranzá, ezen moien hunez Iainkoaren hitz purak ukhanen luela sartze eta avanzamendu Heuskal-herrian: eta hunetakotzat zu, Andréá, hunez zerbitza-

turen zinadela tronpetabaten anzora⁷, zeinez Iainkoak deitzen baitzaitu hala zure Nafarroako resuman⁸-ere Satani gerla egi-tera, nola egin eta egiten-ere baitraukazu zure dominazioneko berze lekhu guzietan. Goitikora⁹, nik obra hunetan ezarri ukhan dudan dilijenziatz eta penaz bayeta hunetarik ethor ahal daitekeen emendioaz den bezenbatean, berzék iujaturen duté. Haur bai erranen dut, ezen bethi orhoitik nola Iankoaren manu expresa den haren hitzari deus edeki¹⁰sztakion ez eratzeki¹¹: hala egin ahal dudan fidelkiena egin ukhan dudala. Hunen gainean zure maiestateari suplikamenduz nagoka, dena onetakotz othoi rezebitu nahi duzun, obraren handitasunera eta dignitate-ra behatzenago duzularik ezen ez Translatazalearean inperfektionetara eta xipitasunera. Hanbatekin Iainkoari othoitz egiten draukat, Andreá, nahi zaituen othoi bere Spiritu sainduaz bethi iluminatzen zaituelarik, zure dohain-onetako haur laun Andre-kin batean, bere gloriaren avanzamendutan eta zure suieten edifikazionetan luzaki konservatu. Rochellan Agorrilaren 22. 1571.

(1) Deusteen. (2) Prenda, sari. (3) Alperrik galduen. (4) Ain, ainbesteraino. (5) Aberatsez. (6) Erabagirik. (7) Antzera. (8) Erresu-man, erreinuan. (9) Gainera. (10) Kendu. (11) Erantsi, geiagotu.

25.—TESTAMENTU BERRITIK ZATIA

(Leizarragaren itzulpena)

«Erraiten zerauen halaber gomitatu izan zirenei komparatione bat, gogoatzen zuela nola lehen iarlekuéz hautatzen ziraden, zioztela:

—Norbeitik dei azanean ezteyeta, ezadila iar lehen lekuan, gertha eztaadin, hi baino ohoratuago bat hark deitu duen: eta ethorrik hura eta hi deithu zaituzte-nak erran diezan: «Emók

(Duvoisinin itzulpena)

«Bada, ikhustenez barazkaltiarak lehembiziko to-kien hautatzen zabilzala, parabola bat atheratu zio-ten, erraten zaroetelarik:

—Ezteyeta deithua izan-zen zarenean, ez jar mahain buruan, beldurrez-eta zu baino ikhusiagoa den bat gertha dadien jaun esposaz deithua; eta hura eta zu deit-hu zaituztena ethor dadien

huni lekua»; eta orduan has ezadin ahalkerekin azken lekuaren edukiten.

Baina gomitatu aizenean, habil, iar adi azken lekuan: dathorrenean hi gomitatu auenak erran diezanzat: «Adiskideá, igan adi gorago». Orduan dukek ohore hirekin mahainean iarririk daudenén aitzinean.

Ezen bere burua goratzen duen guzia, beheraturen da: eta bere burua beheratzen duena, goraturen da.

Eta bera gomitatu zuenari-ere erraiten zeraukan: «Egiten duanean barazkari bat edo afari bat, ezitizala dei eure adiskideak, ez eure anayeak, ez eure ahai-deak, ez auzo abratsak, hek ere aldiz bere aldetik gomita ezazatenzat, eta ordaina renda eztakián.

Baina egiten duanean banket bat, dei itzak pau-break, impotentak, main-guak, itsuak: eta dohatsu izanen aiz, zeren ezpaitute nondik hiri ordaina renda: ezen hiri rendaturen zaik ordaina iustoén resurrektio-nean». (S. Luk., kap. XIV, 7-14).

eta erran dezazun: «Huni utzozu tokia»; eta orduan, ahalke gorritan goan zadien azken tokiaren hartzera.

Bainan deithua izanen zarenean, zoaz, jar zaite azken lerroan, deithu zaituenak, dathorrenean, erran diezazun: «Adiskidea, zato gorago». Orduan ohore izanen duzu zurekin mahainean diren guzien aitzinean.

Ezik goratzen dena izanen da aphaltua, eta aphaltzen dena goratua.

Deithu zuenari, berriz, erraten zaroen: «Barazkari bat edo afari bat ematen duzunean, ez deith, ez zure adiskideak, ez anayak, ez ahaideak, ez hauzo aberatsak, beldurrez-eta hekiek ere deith zaitzaten beren aldian, eta horrela bihur dakizun ordaina.

Bainan, barazkari bat egiten duzunean, deith zatzu beharrak, herbalak, main-guak eta itsuak. Eta zorion izanen duzu, zeren ez baitute zuri bihurtzekorik; ezik izanen duzu zure saria, pres-tuak biztuko diren egunean».

26.—(A B C-REN HITZAURREA)

«HEUSKAL-HERRIAN gaztetassunaren irakasteko kargua dutenér eta goitiko guziér, I. Leizarraga Beraskoizkoak Iainkoaren gratia desiratzen.

Berze natione guziék, zeinek bere lengoagean bezala, Heuskaldunak-ere berean duenzat¹, zertan irakurtzen ikas ahal dezan, eta nola Iainkoa ezagutu eta zerbitzatu behar duen, nezesario estimatu ukan dut, ABC haur berze instruktionerekin Heuskaraz-ere iar ledin: eta hunetakotzat, Iainkoak egin drautan² gratiaren araura, haren laudoriotan emlegatu izan naiz: dakussadalarik bada, ezen Iainko egiazkoaren eta Iesus Krist haren Seme guregatik mundura ethorri izan denaren ezagutze-
ra laxo eta ansikabe direnék kontu gutia hunez egiten dutela: baina berak manu bezala Iainkoa ezagutu eta zerbitzatu desir dutenék, segur naiz, bere probetxurik egingen dutela: eta hala-koakgatik ber, haur egin izan da.

Eta mintzatzeko maneraz den bezembatean, Heuskal-herrian religionearen exerzitioa den lekuko gendetara konsideratione gehiago ukan dut, ezen ez berzetakotara: eta haur, speranzaz ezen Instruktion hunez lehenik, eta orain behin gehienik, hetan zerbitzaturen duela. Baina bithartean, irakasteko kargua duzenák, hirur punktuz prinzipalki advertitu nahi ukan zaituztet.

Lehena da, aitzinago hel daitezkeno, zer den vokala edo konsonanta, diphtongoa edo syllabá, haurrér ikasten demborarik emplega erazi gabe, liburutxo hunetako formari simpleki zarreitzate.

Bigarreana, ungi eta trebeki lehen-vizitik letreyatzen haurrér irakats diezezen.

Hirurgarrena, irakurtzera datozenean, kolonaren, komaren edo puntuaren differentiá zerik den, anhitz fundatu gabe, hitzak distinktoki eta klaroki pronuntia eraziz, paussuén egiten kostuma ditzazue.

Rochellan, Urriaren lehenean, 1571.

(A B C edo CHRISTINOEN INSTRUCTIONEA othoitz eguiteco formarequin. Rochellan, 1571.)

(1) Izan dagien. (2) Deustan.

ETXEBERRI, Joanes (Ziburukoa) (L)

(Ziburu, XVII. mendekoa)

«*Doctor theologo ziburutarra*», Ziburun (*Lapurdin*) erre-
tore izana.

Liburuak: 1) «Manual devotioñezcoa» (*Bordele*, 1627.
1669): «*Doctrina Christiana othoitz gisa*», era askotariko otoi-
tzak, 8 eta 14 silabatako bertsotan; 2) «Noelac» (*Bordele*,
1631): zortziko txikiak (8/7), Jesusen bizitzaren, Jainkoaren
eta santuen ohoretan. Sarritan argitaratua. 3) «Elizara erabil-
tzeko liburua» (*Bordele*, 1636. 1665. 1666): bertsotan. Euskal-
dunen bertso-zaletasuna gogoan arturik, bertsotan eskeintzen
deutse kristau irakatsia, otoitz-gai biurtuta.

«*Ithurriak ur hotsa bezala emaiten dautzu hu-
nek (Etxeberrik) neurthitzak bethi nasai, bethi gar-
bi... Eskualdunen bihotzetan ez luke sekulan hil be-
har*» (P. Lafitte).

27.—NOLA SALBATZAILLEA SORTHU ZEN GAUEAN
GAUZA GUZTIAK BOZTU ZIREN (Noela)

O Eguberri-gaua,
bozkariozko gaua:
allegeratzen duzu
bihotzean kristaua.

Mundu guztia duzu
zorionez bethetzen:
zergaitik baitiozu
Salbatzaillea ekhartzen.

Gau illhunean ezta
ageri iguzkirik:
hunetan dakusagu
mirakuluz ilkhirik.

O gau desiratua,
zuzia duzu piztu,
zeñak mundu guztia
behar baitu argitu.

Argizagiak dire
bozkarioz dantzatzen,
ohi baño dutela
gehiago argitzen.

Aingeru onak berriz
hasi dire kantatzen,
tristeak dituztela
boztera gonbidatzen.

Errepikatzen dute
maniurez¹ artzainek,
aradari lehiatz
ihardasten larrainek.

Engadin² mahastia
gau hontan zen loratu,
Erroman oliozko
ithurburua sorthu.

Arrañak ere iauzi
ziren paguz urean:
abreak basoan eta
egaztiñak airean.

Gauza guztiak dire
gau hunetan pagutzen:
orobat egitera
gaituzte gonbidatzen.

Ifernuko oztea
ordean da tristetzen
haren zentzatzaillea
zerengatik den sortzen.

Idolak aldaretan
betan dire mututu:
aztiek arzoa
miretsirik galdetu.

Berzerik eztao³
deus ere ihardetsi
haur batek dituela
baizen ixillarazi.

Ixildu behar zuten,
guk ordainez kantatu,
zorionean dela
Iainko - Semea sorthu.

(1) Hebertarren arpa. (2) Biblian agertzen dan oasis bat. (3) Ez dabe erantzuten.

28.—(HERIOAZ, EA ZER DEN)

Obrez

Ezkurretik ezagun da haritz larraiñekoa,
Bere fruitutik sagarra, bai beretik fikoa.
Halaber da ezagutzen beretik herioa,
Ezen lastima-garria uzten du hatz ondoa.

Izitzen du

Bihotzean ematen du tristezia larria,
Eta izialdurarekin, ezin egin handia.
Hartarakotz errana da, alla¹ herioa motz
Tristezia baizen ezta uzten deusik ondokotz.
Izenaren aiphatzea bera ere da hain latza,
Samson beraren baitzuen non transitu bihotza.
Hersten denean eztaki norat itzul presunak,
Movimenduáz gabetzen ezen zaizko belhaunak,
Ilea ere latzten zaio, lilluratzen begiak,
Ohiko ere galtzen du kolorea bisaiak.

Gizonari darraio²

Gizonaren ihizian gau eta egun dabilla,
Eta sosegurik eztu, non eztakusan hilla.
Ezen amaganik haurra denaz gero mundura,
Pausu gaberik darraio oiñ hatzetik ardura.
Gu non gare, hura han da, gizonen nigarrera,
Den urratsik ttipiena galdu gabe tristera.
Bañan ondotik darraio hala nola itzala,
Bi ahotako eskuan dakharrela nauala.

Atzematen du

Sarri edo berant ditu atzematen guztiak,
Ezen itzultzeko dire bide guztiak hertsiaik.
Mortu zarraturik ezta, non eztekan idoki,
Ez aintzirarik iragan, non eztekan ideki.
Lekhu guztietara du arthikitzen tragaza,
eta urruititik ere azarkatzen³ bihotza.
Haren gana darauntsagu⁴ nola uhiñak kostara,
Berak erakhartzen gaitu nahi duen kozkara.

Hiltzentu guztiak

Hurbilltzen aiz, Herioa, odolez egarririk,
Bekhokia zimur, eta begia bihurrik.
Bistaz ikharatzen dituk buruzagi gogorrak,
Eta ematen daroztek transimendu agorrak.
Gutienik noiz baikare geure hitzaz orhoitzen,
Orduan darokuk bizi maitea atrapatzen.
Alabañan orenaren ez guk iakin berria,
Eta paradazkoa hik hautatzen duk astia.

Probe aberatsak

O kruela odolua naturaren Burreua,
Araitziña hobiratu üen gure Ama Eva.
Geroz eztiok barkatu handi edo ttipiri,
Bañan dituk munduaren kontra armak muthiri.
Hasta duenari diok arthikitzen gezia,
Eta zahar-gazteari idekitzen bizia.
Nola pikatzen baititu segak belhar ferdeak,
Hala azpiratzen dituk puxant eta probeak.
Errege eta arloteek hala ditek frogatzen,

Ezen hi aute nausi beretzat ezagutzen.
Nihork ezin iguriki ziezekek hireei,
Bi aldetara ebakitzen duten arma zorrotzei.
Hire tragazaren kontra eztuk erredolarik,
Ez landetan zauriaren sendatzeko belharrik (...)

(*Manual Devotionezkoa*, Bordelen, 1669, 4344).

(1) ¡Oh! (2) Jarraitzen zaio. (3) Arrapatzen. (4) Diardugu, ari gera. (5) Iltzen ditu.

AXULAR, Pedro (L, b.)

(Urdazubi, 1556 - Sara, 1644)

Nafarroan, Urdazubiko «Axular» baserrian jaioa; abade egin ondoren, Lapurdi aldera joan zan. Donibane Lohitzunen sermolari ospetsua; gero, Saran erretore. Beste euskaltzale batzuekin taldetxo bat osotzen eban, eta eurok bultzatu eben «Gero» liburua idaztera.

Liburua: «GERO» (Bordele, 1643); geroago, bigarren edizino bat egin zan, zerbait moztua ta zuzendua, eta izenburua aldatuta: «Geroko Gero».

Kritiku guztiak ao batez goratzen dabe liburu onen balihoa. Aurrerantzean, Axularren bidetik ibiliko da Iparraldeko euskal literaturarik geiena...

«Euskal idazlerik bikainena» (ORIXE); «pro-sista jator, zabal, paregabekoaren dohainak eta markak ezagun dira, ezin ukatuzko eran, haren liburuan. Etxea beteko idazlea... Hunelako liburu bat, hizkuntzaren dohainak eta mamiaren giharra dohatsuki elkaturik dauzkana, balio trinko eta iraunkor baten jabe da. Etorri gozo etengabekoa eta ezin agortuzkoa du. Berez mara-mara, sekula ahitu gabe, ura darion iturri baten pare da». (L. Villasante).

(Antologia onetan, beste goratzarre batzuk ere ikusi zeinkez: 43.54 eta 72 zenbakietan)

29.—(JAINKOAK EZ DU GIZONA ALFERRIK
EGOTEKO EGIN)

1) Nola gure Iaungoikoak beztitu baitzituen lurreko animaliak, aireko hegaztinak, itsasoko arraiñak, eta oihaneko zuhaitzak ere, bere beztimenda suerte batzuez. Animaliak larruz eta illez: hegaztinak lumaz: arraiñak ezkatatz: eta zuhaitzak azalez. Eta nola zuhaitzak bere dauden lekhuetarik higitu gabe, eta travaillatu ere gabe, bere azpiko lurraren gozoa eta gizentasuna, beregana, bere erroez thiratuz eta edoskiz, hazten, handitzen eta mantentzen baitira: animaliek ere bere bazkak eta iatekoak, berehala, eho gabe, erre eta egosi gabe, iaten baitituzte:

eta bai bere etxeak eta etzauntzak ere, non nahi den, arratsten eta ilhuntzen zaien lekhuak hartzen: eta gehienak, berehala bere ameen ondotik baitoazi; zein baitira abantail handiak. Hala Iainkoak nahi izan balu, eman zerauzkion gizonari ere abantail suerte hauk guztiok, eta gehiago ere. Beztitu zukeien, etxedun egin zukeien. Ordea etzuen hala ibeni nahi izatu. Eta zergaitik ez? Alfer etzegoen amoreakgatik... (I kap.).

2) Izan zutenean Erromatarrek, desiratzen zuten abantaila eta garaitia Kartagotarren gainean, sarthu ziren konseilluan Erromatarrek, ea zer egingen zuten Kartagoko hiri hartzaz. Eta Katonek (prinzipalenetarik bat baitzen) erran zuen guztiak desegin, plaundu eta lurrarekin berdindu behar zuela, zeren gerla guztiak eta egitekoak hiri hartarik sortzen zeiztela, eta hura deseginez gero, bakean eta soseguan iarriko zirela. Baiña Szipion kapitain famatu hark ethorkizunari hobeki behaturik, erran zuen: etzutela neholatan ere hiria desegin behar. Zeren baldin desegiten bazuten, gerla bat iraungi ustean, bertze handiago bat pitztuko zutela. Zeren berehala iendea, alferkeriari, ian-edanari, erran-merranei, eta aisiak dekhazkeien gaixtakeria suerte guztiei emanen zeiea. Eta handik nahastekak, diferentziak, guduak, hauziak, etsaigoak, eta Kartagotarrekikoa baiño gerla perilosoa goa, bere arthean sorthuko zeiea. Eta hala gerthatu zen. Zeren Szipionen konseillua utzirik, hartu zuten Katonena, desegin zuten Kartagoko hiria, iarri ziren bere ustez bakean. Baiña Szipionek erran zerauen bezala, fite berak, eta Erromako hiria ere, behehitu eta erori ziren. (I kap., & 2).

30.—(LUZAMENTUTAN IBILTZEA)

San Agustinek, frogatuak bezala, anhitz gauza erraiten du luzamendutan ibiltzeko pontu hunen gainean. Kontatzen du nola bere bizitze gaixtoaren utzteko ingurunera zenean, ibili zen ezin ethenduz, ezin partituz, eta bere baithan ezin deliberatuz. Kontatzen du halaber, zenbat trabu edireiten zuen, zenbat gerla egiten zioten bere lagunak, okhasionek eta aztura gaixtoek. Alde batetik desiratzen zuen bide onean iartzea, hartara bulkhatzen zuten bere ama sainduaren nigarrek, kontzientziaren autsikiek, eta Iainkoaren manamenduek. Eta bertzetik tra-

batzen eta gibelatzen zuten leheneko usantzek, eta guztiz ere emaztèn balakuek, hitz ederrek eta plazerek. «*Tenaciter colligabar a foemina*». Emaztèk zedukaten bortitzki lothua. «*Dixeram: da mihi castitatem et continentiam, sed noli modo. Timebam enim, ne me cito exaudires et sanares a morbo concupiscentiae, quam extingui*». Emaztètarik apartatzea, hain zeikan gaitz eta gaitzi, ezen bere othoitzak ere, hetzaz geroko, ethorkizuneko egiten baitzituen. Zeren beldur zen, enzun zezan berehala Iainkoak, eta bere plazerak, gozatu nahizko desira handi batekin, bere gogoan zerabiltzanak, gibela ziatzon. Egiteko hunetan zebillanean, erraiten zioen Iainkoari: «*Modo, ecce modo, sine paululum*». Ha, Iana, utztazu aphur bat, igurikazu bertze aphur bat; ez lehia, ez khexa, ez berantets, sarri naiz zurekin. Hunela erraiten zuen, hunela luzatzen zuen... (Kap. III, & 2).

31.—(HARAGIAREN AMORE DESORDENATUAK EGITEN DITUEN KALTEAK)

Handiak dira haragiak, eta haragiaren amorio desordenuak egiten dituen kalteak. Eta kalte prinzipalenetarik bat, prinzipalena ezpada ere, da adimenduaren goibeltzea, ilhuntzea, eta itsutzea. Presuna amurusak eztakusa, eztaki zer hari den: bere gogo guztia haragian daduka (...).

USOA bezala da halakoa. Usoak eztu, bertze hagaztinek bezala, edatean burua goiti ailtxatzen. Edan gogo duena, abreak bezala, hatsik hartu gabe, burua goratu gabe, kolpe batez edaten du. Bertze hegaztinek edateko kurka guztietan, ahatarak baxhotxean, burua goiti ailtxatzen dute. Eta badirudi ezen naturalezak berak erakutsirik egiten dutela hala. Zeren nola orduan baitute perilik gehiena, zeren orduan baitaude geldienik urera beha: eta orduan baitira ihiztariez ere zelatatuak, barren-datuak, eta guardiatuak, halatan daude hek ere iratzarriak orduan: eta edaten duten ur-xorta guztietan ingurunera behatzen dute, eta burua goiti, guardia egiteko bezala ailtxatzen dute. Baiña usoak eztu halakorik egiten, ahoz-pezu dago, ase arteño, eztu bitartean bururik ailtxatzen, eta ez ingurunera behatzen. Eta hartan da ageri usoaren inozentzia eta ergelkeria, perilik gehien duenean baita erhoenik eta antsikabenik. Hala da bada

bere gogo guztia emaztètan ibenia dadukana ere. Etsaia zelatan dagokanean, perilik gehien duenean, da galduenik eta erhoenik. Zeren bere edate hartzaz, eta plazeraz baizen, ezpaitu deusez ere bertzez, konturik egiten.

ZYRO enperadore handi hura, hain itsutu eta ergeldu zuen Apama bere amoranteak, non hartzaz nahi zuen guztia egiten baitzuen. Alde batetik eta bertzerik beharondoka hari zeikan, batean bizarra, bertzean beharriak thiratzten zerautzan: haur batekin bezala, harekin dostatzen zen; eta guztietan enperadore erhoa, hortzak hirriturik, irriz, beha zegokan: miraillean bezala hartan miratzen zen, haren alegeratzeaz alegeratzen zen, eta tristetzeaz tristetzen. Eta emazte gaixtoak batzutan bere burua, berariaz haserre iduri egiten zuen: eta orduan enperadore zoroak, ahal ziren asmuak eta enseiuiak balakatzeko eta baketzeko egiten zituen. Amorantea zen nabusi: no zen tho: emaztea gizon, oilloa oillar. Erran behar da esku handia hartzen duela emazteak amurus itsutuaren gaiñean, halako enperadore bat, ema-eztheus batek, hala errendatzen duenean. (Kap. XXXI & 1).

32.—(EZTA ZAHARTZEKO BEGIRA EGON BEHAR)

Baiña hunelako diferentziarik ezpaliz ere, ezta zahartzeko begira egon behar. Zeren zahar arteraiñoko denbora hartan ere, gazte zarenean ere, anhitz ongi eta ontasun egiten deratzu zeure Iaungoikoak: hazten, mantenatzen, eta bizirik edukitzen zaitu. Ez lizateke bada arrazoin, zuk ere bitarte hartan, zeure denboran, ontasunak errezibitzen ditutzunean, eskerrak errenda ziniatzon, zerbitza zenezan, lauda eta ohora zenezan? Zuri Iainkoak bethi egiten deratzu ongi, zergatik bada zuk ere eztiotu bethiere ezagutza eginen, eta esker emanen? Zure alderakotzat frantko da eta liberal Iainkoa, nolatan bada zara zu hain eskas eta hertsia, zèure gaztetasuna, adinik hoberena, sobera etsirik, gaixtoena, hondarra, zahartzea eman nahi baitiozu? Gaiñak, pikaiñak, eta hautuak bertzeren, hondarrak eta arbuioak Iainkoaren, *Non enim tantum minimum in fundo, sed pessimum*, dio Senekak (Senec. epist.). Gauza hondartuz gero, gutitzen da eta gaixtatzen. Hondarra guti da, eta guti hura ere gaixto. Florea, irina, hoberena, gaztetasuna, eramaiten du etsai

gaixtoak, eta gero nahi duzu kontenta dadin Iankoa zahiaz, eta zahartzeko hondarraz. Arrenkuratzen zen Iainkoa, zeren aniamaliaitsuak, mainguak, eriak, eta hebaiñak oferendatzen zerautzaten (Malach. 2): beraz arrazoiñekin arrenkuratuko da zutzaz ere. Zeren zahartzea baita itsu, eri, maingu, hebain, eta zuk hura oferendatu nahi baitiozu.

Zahartzean begietako bista laburtzen da, beharrietan gorrieria egiten da: belhaunetan hezueria iartzen da, indarra gutitzen da, apheetiua galtzen da, loa ioaiten da, ikhara ethortzen da, larrua zimurtzen da, illea urdintzen da, burua karsoiltzen da, hatsa khiratsten da. Finean, presuna zaharra, hotzberatzen, minberatzen, idurikortzen, haserrekortzen da, eta alde guztiz on-behartzen eta urrikalkizun egiten da: hain urrikalkizun, non baldin nehon ere gorputzak narriorik, arrazadurarik, edo falta estalirik baldin badu, orduan guztiak agertuko baitira. (Kap. XIII, & 3).

33.—(NOLA BIZI, HALA HIL)

Eta nola zuhaitza zutik dagoenean, makhurtua dagoen aldera, erortzen ohi baita, komunzki ebakitzen denean: hala zu ere bizi zareño, norat baitzaude makhurtua, harat eroriko zara hiltzen zarenean. Eztezazula pensa, eztakizula iduri, baldin bizi zareño, sendo eta osasunarekin zabiltzaiño, ezkerererat makhurtua eta alderditua bazaude, eritasunean eta heriotzean eskuiñerat iarriko eta xutxenduko zarela. Bizitzeari darraika heriotzea: nola bizi hala hil.

Ur guztiak ilkitzen dira itsasotik. Ordea guztiarekin ere ur hetarik batzuk dira gazi, eta bertzeak geza: batzuk gogor, bertzeak bera. Eta arrazoiña. Zeren nolako baita lurra, zeinetarik iragaiten baita ura, halako gerthatzen baita ura ere. Urak lurraren gozoa eta zaphorea hartzen du. Ura, lurrak ontzen edo gaixtatzen du. Hala bada heriotzea ere, nola bizitzetik iragaiten baita, bizitzeak ontzen edo gaixtatzen du. Nolako baita chaiten den ehuna eta oihala, halako izanen da oihalaren albenia eta bazterra ere. Beraz hunelatan, nolako baita bizitzea, halako izanen da halaber bizitzearen bazterra, eta akhabatzea ere, zein baita heriotzea. Ongi bizi, ongi hil; gaizki bizi, gaizki hil. (Kap. XV, & 4).

34.—(HASERRETASUNAREN GAITZ ETA KALTEAK)

Anhitz gauzak egiten derauka giristinoari gaitz eta kalte, eta hetarik bat da, eta are buruzagietarik, hira, kolera, haserretasuna, mendekatzeko desira desordenatua. Hunek arima eta gorputza zaurteintu, hunek biak eritzeintu, egunak laburtzeintu, eta muga baiño lehen, illeak ere urdintzeintu. Hala emaiten du aditzera Spiritu Sainduak: *Zelus et iracundia minuit dies, et ante tempus senectam adducet cogitatus* (Eccli. 30). Hunen arauaz eta ereduz erraiten du Senekak ere: *Vitanda est ira, non solum moderationis causa, sed sanitatis* (Senec. ep. 18). Begiratu behar da sobera haserretzetik, alde egin behar zaika kole-rari: eta ez, ez prestuki eta onhetski bizitzeagatik beragatik, baiña bai gorputzeko osasunagatik ere. Zeren haserretasunak, mendekatu nahiak, barreneko hegigoak, irakidurak, hudigoak, gorrotuak, korromioak, eta herrak, arimari eta gorputzari egiten deraue kalte, biei senti arazitzen deraue, biak eritzeintu.

Eta halatan presuna hirosak, erreak, eta haserrekorrak, ez ohi du, begi orde anhitz higatzen, eta ez komunzki bere umen umerik ere bere ingurunean ikhusten. Zeren bere barreneko kole-raren suak eta irakinak, errai guztiak erratzen, elkortzen, eta idortzen baiterautza. Eta hala ikhusiko duzu, bere egitez iauz-kor, eta mendekos diren presunak, baldin berehala bere desiren arauaz mendekatzen ezpadira, egosten eta desegiten direla. Eta baldin halaber mendekatzera eta eskuen odolztatzera gertha badakie, gero ondotik dolutuak eta atsekabeztatuak dabiltzala. Halako suertez, ezen nola nahi den dela, nahiz mendekaturik, eta nahiz mendekatu gabe: nahiz bere gogoak historik, eta nahiz histu gabe, ezta halakoentzat damurik, atsekaberik eta asal-durik baizen.

Eta ezpere beha iazozu haserretua dabillan bati, nola mintzo den, nola ahotik habuiña darion, begietarik iharrak iauzten zaitzan, lurra ostiko ioiten duen, ethortzen zaitzan arartekoez eztuen konturik egiten: eztioen nehoi ere ohorerik ekhartzen (Vide Chrysost. 4 T. 3). Aitzitik erho batek bezala, aitzin gibel behatu gabe: ethorkizunaz konturik egin gabe, guztiak gezurztatzen dituen, desohoratzen dituen: bulkhatzen dituen: hil nahi dituen. Beha iazozu bada halako bati eta zentza zaite haren baithan. Zeren iakizu ezen zerori ere, haserre zarenean, hala

zarela, erho zarela, itsu zarela, hordi bat bezala irrigarri zarela.
(Kap. XX, & 2).

35.—KOLERAREN IRAUNGITZEKO BIGARREN ERREMEDIAO: DIRAKIEN ELTZEARI EGITEN ZAIKANA, KOLERARI ERE EGITEA

Gizon haserretua dirakien eltzea bezala da. Eta irakin hartarik ilkitzen da khe bat, lanbo bat, zeinek, poetak dioen bezala, itsutzen baitu adimendua: *Ira impedit animum ne possit cernere verum*. Bada elzeari sobera dirakienean, gainez dohanean, hirur moldez emaiten ohi zaika erremedio. Lehenbizikoa, sutik aldaratzeaz eta urruntzeaz. Bigarrena, egurren edekitzeaz eta gutitzeaz. Hirurgarrena, ur hotz gaiñetik emaitiaz eta egotzteaz. Hala bada koleraz eta gaitzerizkoaz, bere etsaiaren kontra dirakienari ere, hirur erremedio hauk, bat baillira bezala, eta hautzaz bat eginik, eman behar zaitza, eta hauk behar ditu hartu eta bere koleraren iraungitzeko begiratu.

Lehenbizikoa, sutik hastan: erran nahi du, bere etsaiaganik aldara, aparta eta ihes egin. Zeren nola ez erratzeko erremediorik hoberena baita sutik urruntzea, hala da ez ihardutze-ko eta ez haserretzeko ere, gizon haserrekorretarik eta etsaiatarik apartatzea eta begiratzea. Presuna haserrekorrak, zuhaitz aranzetsuak bezala dira, eztira ferekatzeko on; nehork uki balitza zaurtzen dute. Harri mugerraren pare dira, barrenean dute sua, asko dute ukitzea. Halatan erran zioen Rebekak bere seme Iakobi: Ene seme, haserre da zure anaia Esau, zure kontra koleran dago, aldara zakitza, beraz, bidetik, etzaitzala zenbait egunez ikhus, eta agian bitartean hotztuko da eta ematuko. Zeren erran komuna den bezala, ikhusten eztuen begiak eztu miñik.

Hala Iesus haurrak ere egin zuen ihes Herodesganik. Eta badio Iondone Paulok ere: *Date locum irae* (Rom. 12). Demogula lekhu, demogula amore hirari. Erran nahi du begira gaitzilla presuna haserrekorretarik eta haserretzeko okhasinoetarik, hauzitan sartzetik, liskartzetik, eta behaztopa guztietarik. Zeren behin behaztopátuz gero, zaldia laur-oiñka, aldapa behe-
ra, koleran abiatuz gero, gaitz da baratzea, gaitz da aitzina iragan gabe, gaitzerizkoan sarthu gabe gelditzea. Beraz hunela-

tan, dirakien eltzeari, bere irakinaren gelditzeko, emaiten zai-
kan erremedioa, emozu zuk ere zeure buruari, zeure mendeka-
tzeko desira desordenatuaren eta haserretasuneko irakinaren
hotzteko. Sutik gibela, okhasionetarik aparta, etsaietarik ihes
egin. (Kap. XXII).

OARRA: Aurreko textu guztiok A. Villasante Euskaltzainburuak
prestatuturiko «GERO» liburutik artu dira: Ed. JAKIN, Arantzazu, Oñati,
1976. Argitalpen bikaina, gaztelaniazko itzulpen eta guzti).

OIHENART, Arnault

(Maule, 1592-1667)

Legegizon zuberotar au politika arazoetan sartuta bizi izan zan, Maulen eta Donapaleun. Gizon jakintsua. Beste lan batzuen artean, ona emen aipagarrien diran

Liburuak: 1) «Notitia utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitaniae» (París, 1638): latinez, *Euskalerra osoaren historia eskeintzen deusku.*

2) «Les proverbes Basques, recuillis par le Sr. d'Oihenart; plus les poésies basques du mesme auteur» (París, 1657). *Zati bi, euskeraz:*

- ATSHOTITZAK edo Refraua: 706 guztira, frantsez itzulpen eta guzti, *Euskalerra guztikoak.*
- O. (ihenar)ten Gaztaroa neurthitzetan: *maitasunezkoak eta jainkozkoak.*

Aurreko ta orduko euskal bideak alde batera utzi eta era barri bat sartu eban gure poesian: olerki landua, ikasia, kultoa..., baina, sarri askotan, gogorra, ilun samarra, otza, aditz sintetikuz eta itz garbiegiz jositako izkeran.

36.—GRAZIANARI

Hambat nago penatan,
nik eztakit nolatan,
gau et' egun gor batek
naduk' arrenkuratan.

Izena du Graziana,
graziaz beth' izana;
dihulatez neroske¹
harzaz maitatu izana.

Ezta gupi, ez zeihar, ez,
bana xuxen bizkarrez,
zehe-batez lait' izari
gerri hori meharrez.²

Adats ikustekoa,
aztaleranokoa,
leunez, baitare mehez,
zetaren gainekoa.³

Ederrenen bardina
(ezpadohat' aitzina)
da begitartez, eta
diskret oboro ezina.⁴

Ahoño, mihi ozena,
hortzik den aratzena,
begi bizi, so hutsaz
maitharazi diroena.

Lepho arrai miratzeko,
goxo besarkatzeko,
bolharr'ask' ilhumbean
argi zerbitzatzeko.⁵

Oina, kaizuz, nolako?
Ikusten gogarako:
ukaraia, besoa,
arhan-lil' itxurako.⁶

Esku eta zango biak
xuri bezain guriak,
erhi mehe, gaineti
zilharztatu iduriak.⁷

Hambatez beud' erranak
agerriz dadutzanak,
eztazkit, ezterrazket,
gordailuan daunzanak.⁸

Elkoit dakit elkorra,
esker gabe, gоторra,

del' enetzat, bait' are
harri bezain gogorra.⁹

Erran draukat ardura
zer den en' arrenkura,
eta nola jabetzat
hartu dudan berura.¹⁰

Nola nitan botere
duen, handi hal' ere,
eta berze maiterik
nol' eztudan batere.

Bana hura, hargati,
nizaz ezt' axolati,
et' enu itoitzen, berak
sartu nauen phenati.¹¹

Kausit ahal baneza
nombait berhez-berheza,
hunl' ene penatzea
baka bide baileza.¹²

(1) Dirutza andiz erosiko neuke. (2) *Gupi* = konkor; *zeihan* = oker; *lait izari* = neurtu leiteke; *zehe-batez* = eskua zabalduz biltzen den neurria. (3) *Adats* = uletza; *aztal* = oin. (4) *Ezpadohat'* = ez badohate, ez badoakie; *oboro* = geiago. (5) *Arrai* = distiratsu, brillante; *bolhar* = bular. (6) *Kaizu* = neurri; *ukaraia* = eskuiturra; *arhan-lili* = okaran lora. (7) *Erhi* = atzamar. (8) *Ezterrazket* = esan ezin daikedaz; *dauntzanak* = etzanik dagozanak. (9) *Elkoit* = bakarrik; *gotor* = gogor, arro. (10) *Erran draukat* = esan deusatzat; *berura* = berhura, berbera. (11) *Enu itoitzen* = ez nau atzeratzen. (12) *Kausitu* = aurkitu; *berhez-berheza* = bakar-bakarrik; *hunl'* = onela; *baka* = pagatu.

37.—EDERRAGOARI

Zurekin ezagutze hartzen
hasiz gero, Ederragoa,
sendit dizut nitan eihartzen
berzetrako amorioa,
orai eta sekulakoz
zure nizatealako.

Ban' alaz! hambat dizut hugu¹
zureki minzatu ezina,
zeren jagoitik² ezpaitugu
bi hitzen erran aizina;
orai eta sekulakoz
zure nizatealakoz.

Mirets ziniro³ bazeneki
gau et' egun, zein ardura,
nahiz batzarre egin zureki,
jin nizan zur' okolura,⁴
orai eta...

Zurekin izatera haizu⁵
ezpanaiz ere gorpitez,
alabadere ba narraizu⁶
bethi gogoz et' orhitzez,
orai eta...

Maite banuzu berzez goiti,
nik zu zaitudan bezala,
zukanik hon ardietsi engoiti⁷
pens' ezazu ordu dudala,
orai eta...

Zuk niri uko badagidazu,
nik zuri galde bezambat,
eridenik eztadukazu⁸
nik nola maita zitzan bat,
orai eta...

(1) *Hugu* = gorroto. (2) *Jagoitik* = sekula. (3) *Mirets ziniro* = arri-
tuko zinake. (4) *Okulu* = etxaurre. (5) *Haizu* = zilegi. (6) *Narraizu* =
jarraituko zaitut. (7) *Engoiti* = aurrerantzean. (8) *Eridenik eztadukazu*
= ez dozu aurkituko.

38.—ATSOTITZAK edo Refrauk

1. Adiskidea zaharrik, kontua berririk (2).
2. Adiskidea gauza xipian behar da porogatu, handian emplegatu (3).
3. Aharrak ziten alxonak,¹ ager ziten gazna ohonak (10).
4. Aharrausi usua, gose edo lomezua (11).
5. Amoratzea, gaztearentzat loratzea, zaharrarentzat da zoratzea (25).
6. Apezak azken hitza bere (29).
7. Arrotzak ez lan daidik,² ez deraidik³ (37).
8. Artzainaren emaztea, arratsean eder (42).
9. Atzeak⁴ eskua latz (46).
10. Aurhide biren alhor artean, ungi dago zedarria.⁵ (55).
11. Badu ere axeriak biloa uzten, bere egitea eztu biluzten (62).
12. Gizon bizar peituti, eta emazte bizartuti, ihes egik nola khosuti⁶ (193).
13. Gizon erribera, edo elgera⁷ edo alferra (194).
14. Haz nezak egunko aragiaz, atzoko ogiaz, eta xazko⁸ arnoaz, eta atxeterrak⁹ bihoaz (213).
15. Hi arraza handiko, ni seme jauregiko, egur hori nork drauku hautsiko? (231).
16. Nori berea da zuzenbidea (341).
17. Orhiko xoria Orhin laket (372) (Orhi da Bortuetan mendi gora bat, Nafarroa elgatako¹⁰ eta Zuberoako muga).
18. Orogen adizkide dena, ezta nehoren (375).
19. Orratzak mundu oro du beztitzen, eta da bera biluz gelditzen (380).
20. Senar duenak jaun du (406).
21. So eztagoena geroari, deiez dauko goseari (407).
22. Zalduna, egik semea Duke: ez ezaguke (424).
23. Urhea, emaztea eta oihala, eguardiz bezi har eztitzala (465).
24. Anhitz dakí on eta gaitzen berri, inguratu dituenak anhitz herri (485).
25. Bidaide, gogaide (495).
26. Emok arloteari egositi, eska dakidik errekiti (514).

27. Jokoak, emaztek, et' arno onak
dostatzez galtzen tuzte gizonak (525).
28. Belea ikuz daite, xurit eztaite (556).

(1) Morroiak. (2) Egiten dik. (3) Eragiten dik. (4) Kanpotar. (5) Munarri. (6) Kutsu, izurrite. (7) Ergel, fatuo. (8) Ihazko. (9) Osagi-leak. (10) Garaiko. (11) Baizik, baino.

OARRA: Oihenarten textu guztiak liburu onetatik jaso ditut: «ATSO-TITZAK ETA NEURTITZAK», Irakur sail, Donostia, 1971, Larresoro'k prestatua.

Zuberotarra. *Arue-n erretore izana. Zuberoko euskeraz leenengo idazlea.*

Liburuak: 1) «Onsa hilceco bidia» (Orthez, 1666): *liburuaren elburua, Tartasek berak dino zein dan: «euskeraz porogatzeko, onsa hiltzeko bidia dela, herioaz eta hiltziaz ardura orhitzia, eta salbatzeko eztela bide hoberik mundian».*

2) «Arima penitentaren occupatione devotaq» (Orthez, 1672): «*orazionia, barura eta amoyna*» (otoitza, baraua eta li-mosna).

Zuberoko euskerea darabil, baina zabalago: «ene euskera eztakit aprobatiatzen denez; bai ala ez, badu orotarik zerbait, Zuberoak, Baxanabarrrek eta Lapurdik eman drauko zerbait, baina ez oro; Arue-n egin dut neure pieza pobria, hanko lengajia ezpada aski eder, hanko euskerak du ogena, eta ez euskaldunak»...

39.—NOLA ONSA HILTZEKO BIDIA DEN HERIOAZ ORHITZIA

Aesopus, espiritü alegera eta plazent hark, kondatzen dü ederki bere librian eta bere fabületan, egün batez lehoiña, baita animal ororen erregia eta noblena, eritü zela eta zahartü, edo aumens egiñ ziala eriarena; eta, lezebarna baten zolara joanik, han zagoela heda heda etzanik, noiz lo, noiz iratzarririk.

Lehoiñ hunen eritasunaren berria bertze animalek entzün zütenian, orok, nork bere aldian, bedera bedera¹ bere bisita eman zütela lehoiñ hari, eta oro joan zirela haren ikhustera.

Zer üste düzü, lehoiñ hark zer finezia eta joko egiten ziala? Joan bezanbat hiltzen zütian oro, eta züntzürretik lotürrik, odola orori edaten eta egoskiten; eta moien hartzaz eri zela estakürria hartan, bere xilotik eta bere lezetik higitü gaberik, bonaxera² egiten zian, eta bere denbora onsa eta alegeraki iragaiten, animale miserable haien odolaren despendioz.

Finalki zer heldü zen? Axeria, baita animale ororen fiñna, joan da bere tornian lehoiñ hunen bisitatzera, eta bere erre-

giari bere egiñbiden errendatzera. Heldü denian leze eta xillo haren tinira eta mügala, so bat egiñik leze hari, ikhusi ditü gaiñeti behera joan ziren animalen hatzak eta herexak, eta eztü ediren, ez ikhusi, bat ere hatzik, ez herexarik, peti gora, lezeolatik gora itzultzen zenik. Hanbateki jüjatü dü zühürki axeriak, leze hartrat³ joan ziren animaliak oro galdü eta peritü zirela, zeren ezpaitzen bat ere goiti itzuli, ez bihurtu. Jüjatü dü, halaber, eztela on eta segur leze hartan behera joaitia. Pensamendü hartan zagoela, noizpait hasi da lehoiña mintzatzen, eta dio:

«*Ma comere*, sar zite, abanza zite; berze orok zük baizi⁴ ikhusi nüte neure ohian, eta bisitatü neure eritasunian. Zük ere ikhus nezazü». Axeriak arrapostü emaiten dü ederki lehoiñari, eta dio:

«Ene erregia, eri bazira, sendo zite ordü onian. Hementik zure ikhustiaz kontent niz; enaite haboro abantza. Bidia ikhusten düüt zügana jiteko, baiña eztüt ikhusten biderik züganik hunat jiteko. Jenkoa⁵ lagün dakizüla, eta sendo zitzala. Züganat jin direnak, jiteko balira, bat elitezü jin».

Gisa hartan axeriak bere bizia salbatü zian eta itzuli giberat.

Neure adeskidia, gure aitzinekoak oro joan dira, hil dira, gü ere hillen gira, eta gure ondokoak ere bai. Behiñ hil dira sekülakotz, bat ezta itzultzen herioaren xilotik eta hobetik...

(1) Bakotxa bera. (2) Otordu, banquete. (3) Haretarat. (4) Zuk izan ezik. (5) Jainkoa.

40.—(BI ADESKIDE)

Istoria eder bat irakhurtzen dügü bi adeskide handiz eta leialez, zoinak deihatzen baitziren Damon eta Pythias, biak adeskide fidelak eta segurak. Bi adeskide haietzaz egiten dü menzione Zizeron (Cicero, lib. 3, de Officiis; Valerius, de Amicitia) et Valerius bi author handi haiek. Istoriak dio, eta ederra delakoz, nahi düüt ene librüto hontan eskhiribüz ezarri, Denis Syraküsako tyran handi hark bi adeskide brave eta leial haietarik bata kondemnatü ziala hiltzera.

Kriminelak galdo¹ egin zian hamabost egün ephe eta spazio, presondegitik jahirik bere adeskiden eta askazien ikhustera

joateko. Jüstiziak refüzatü zian kriminelari galdatü zian hephe eta spazioa, beldürrez behin larganza balü presontegitik jalgiteko, eladin bihur karzelüra, elezan bere hitza edüki eta jüstiziaz trüfa ladin, behin kanpoa eta libertatia ardies baleza.

Zer egin dü bertze adeskidiak? Sartzen da karzelian, adeskide kondemnatiaaren berme, pakto eta kondizione eginik, kondemnatia ezpaliz bihurtzen hamabost egüen barnian, hark igaren behar zian pena eta süplizioa patitüko ziala haren lekhütan.

Pakto horren azpian, bata jalgi da karzeletik, eta bertzia han sarthü haren plazan.

Zer gerthatü da? Hitza zen bezala, hamabost egüen barnian, kriminela itzuli zen presuntegiala, bere adeskidearen bere bermegoatik deliberatzera.

Denis tyranak, ikhusirik bataren amorioa eta bertziaren leialtasuna, eta amiratürik bi adeskide haien korajia, kriminelari eta kondemnatiaari eman zian bizia, eta hil biak othoitü, bera heren adeskide bere konpañian rezebi lezaten, hayen adeskide nahi zela bizi eta hil.

Nork eztü amiratüren eta ohoratüren bi paganoren artian amorio bat hain leialik eta relijiosik, eta haien alderat tyran handi baten kortesia eta klemenzia handia?

(1) Galdatu, eskatu.

(OARRA: Tartas-en zatiok: Juan Tartas, «Ontsá hiltzeko Bidea», JAKIN, Arantzazu, 1975, 58-59 eta 107-108).

GAZTELUZAR, Bernard (L)

(Ziburu, 1619 - Pabe, 1701)

Jesuita. Etxeberri bere erritarraren antzera, Gazteluzar-ek ere, bertsotan eskeini eutsezan kristau egia bere irakurleei, euskaldunen —eta, batez ere, itsas-ertzekoen— bertso-zaletasuna ondo ezagutzen ebalako: «Ezen nola plazer hartzen baitute itxasoan latinez Elizako himnoen kantatzeaz, atsegin gehiago izanen dutela himno beren eskaraz errateaz, aire berean eskaraz eman tut...»

Liburua: «Eguia Catholicac salvamendu eternalaren eguitemo necessario direnak» (*Pau, 1686*).

Gazteluzar, Lafitteren ustez, Axular baizen mirezgarri jaku. «Eder, gogoko zaizkigu, egia esan, A. Gazteluzar'en olermen lanak. Bigun eta zaintsu, errez eta ao-gozoz dagizki lanak...» (S. Onaindia).

41.—GIZON GUZTIEN AMUDIOA IESUS HAURRA-RENTZAT

Jendeak, laster egizue,
Ageri duk estalia
manyateran,¹ belhar gainean,
Zeruko Iainko handia.

Iainkoa duk, eta Gizona,
Adoratzera ioan gaiten,
Amudioz bethe gau huntan,
Amudioz erre gaiten.

Hain duk cztia, non bihotzak
Baititu bereganatzen,
Eta bortxatu gabe nihor
Prinze baita ezagutzen.

Gau argi, eder, saindu huntan
Ungi zuek egiteko,
Hil behar zarete ahalkez,
Amudioz ez hiltzeko.

Arma gabe, bere eskuaz
Harritu dik Ifernua,
Deabruak ikharan ezarri,
Amudioan mundua.

Ala hunek begi argiak!
Zerua die illhuntzen
Distiadura divinoez,
Eguna die estaltzen.

Argi eta ithurri dituk,
Nigar baitute egiten,
Eta nigarrekin batean
Amudioa erakusten.

Ematen die Amudio
Bihotzaren erretzeko,
Eta die nigar egiten
Arimaren garbitzeko.

Begietarik sasoin hotzak
Nigar zioek eragiten;
Eta bisaiaren gainean
Nigarrek horma egiten.

Bañan Eguberri Egunak,
Egun berri zerukoak,
Hormatik sortzen ikhusten tik
Amudio karrezkoak.

Gizonak bere seaskara
Deitzen tik Aingeruekiñ,
Eta bere troxak trukutzen
Amudiozko sokeekiñ.

Estatu huntan IESUS. haurrak
Gu hobeki beretzeko
Fletxak belharrez egiten tik
Gure bihotzen zaurtzeko²

Bere seaskan gehiago
Ziarokuk³ erakusten:
Amudioaren Thronua
Seaskaz baitu egiten!

Ala hik beraz behar baituk
Fortuna hagitx dulzea!
Sentitzen baduk bihotzean
Hunen begien kolpea.

Egun eder dohatsu huntan
Hik nobleki egiteko,
Hil behar uke tristeziatz,
Amudioatz ez hiltzeko.

Bethi beratz maita dezagun,
Maita gure herioan:
Har dezagun pena gozo hau
Gure bizitze osoan.

(134 - 136 or.)

(1) Aska. (2) Zauritzeko. (3) Deuskuk.

42.—ARRANTZALEA (*meditazionea*)

Amu hunek milla herio
bethi egiten tuenak:
hemen hartzen tik egun oroz
jende uretan daudenak.

Laster egiñik apastara,
herioak tik sesitzen:
helas! horra ni ere nola
munduak nauen trompatzen!

Tropa bat atzematen
ene sareen erdian,
hautan dostetan dabiltzala
itsasoaren hegian.

Ah Piarres arrantzalea!
Har-nazak hire sarean,
zeruetara altxa nazak
hire arraiñen artean.

(450 or.)

(Sara, 1668 - Azkoitia, 1749)

Miriku edo osagile, leenengo bere jaioterrian, gero Beran, Hondarrabian eta Azkoitian. Humanista ta euskaltzale andi, Axular-zale sutu.

Liburuak: 1) «Lau-urdiri gomendiozko carta, edo guthuna» (Baiona, 1718): *Bere euskal lanak argitaratzeko laguntza eske Ustaritzeko Biltzarreari alperrik egindako eskabidea (40 orrialde). Auxe baino ez eban argitaratu, bera bizi zala.*

2) «Escuararen Hatsapenac», edo-ta, X. Kintanak naia-go dauanez, «Eskuararen Ethorkia»: *Euskeraren alde euskeraz egindako apologia. Gazteriari euskal jakintzaren jabe egiteko dei zolia. Euskeraren batasun-bearrizana argiro ikusten dau, eta Axular jarten dau batasun orren oinarri sendotzat.*

3) «Escuarazco Hatsapenac latin ikhasteco»: *Latina euskeraren bidez ikasteko euskerazko metodoa. (Azken liburu biok J. Urquijo-k argitaratu zituan, 1907. urtean; ordurarte ezezagunak ziran).*

*Beste Iztegi andi bat ere egin eban, 4 izkuntzatan (euske-
ra, gaztelania, frantsez eta latinez): Larramendik ezagutu ei eban, baina gaur galdutzat daukee.*

*Axularren goresle au doi-doi ei dago bere mai-
su andiaren azpitik, P. Lafitte-ren eretxiz.*

«Benetan esan daiteke prosa atsegin eta dotore bat duela, irakurterraza eta bortitza, zirrarezkoa zati askotan, gure letren egiazko klasiko bat-tzat edukitzera bultzatzen gaituena... Zinez esan daiteke, Sarako doktor medikuarekin Axularren, Etxeberri Ziburukuaren, Materreren, Gazteluzarren eta beste lapurtarren urrezko mendea bukatzen dela, honekin gure letren sasoi distiratsu bat amaituaz» (X. Kintana).

43.—(AXULAR GORAGARRI)

Beraz arzoinekin erran diteke, zerbait ere moldez, ordena eta gradu miragarri hauk guztiak Axular baithan kausitzen direla; eta halatan hau bere denboran izatu zela eta orai ere de-

la, baita oraino aitzinarat ere izanen, Eskual Herriko buruzagi filosofoa, Dotor, Aingirua bezalako; Hipokrates arimetako narrio eta erhasunen sendatzeko erremedio emaillea; Justiniano zeruko lege Sainduaren kridaria; Elizako aitzindari leiala eta buruzagi egiazkoa; zeruko erresumen begirale fidela; Sarako Elizako harma Sainduen gobernaria eta jenerala; Populua-ren aita arthaduria,¹ eta bihotz samurra; Alexandro Handia baino kapitain kuraios² eta balentagoa; Euskal Herriko Ciceron bokhantzaz³ bethea. (122. or.)

(1) Arduratsua. (2) Adoetsu. (3) Izker a dotore.

44.—ESKUAL HERRIKO GAZTERIARI

Gogoetan nengoelarikan egun batez, zer perpaus hautatuko nuen gure gazteriari aiphatzeko, gogora zitzaitan, hei¹ gehienik agrada ahal dakioketen gauza dela gerla: zeren jende gazteak, eta bereziki eskualdunak, bere baitharik emanak baitira gudura eta gathazkara; eta nola gaztei eman behar baitzaie hekien disposizioari dagokan enplegua, hargatik bada nik ere hautatu dut hemen aiphatzeko gerla.

Ordea behar bada boztuko dira, ustez ezen gonbidatzen tudala Marteren suzko eta kharrezko joko eta habarrots izigarrietara. Ez; zeren nihork gonbidatu gabe, berak baitira hartara asko emanak. Baina deitzen tut² Minervaren dosteta ezti eta kanta-alosien³ bidez enorantziaren kontra egiten den gerla oho-rezkora, eta bat bederak batere arriskurik gabe hainitz abantail eder ardiets detzakenera.

Hau da gerla eder eta miragarri hura, zeinetan jakintasunak nahi baitu gizona altxatu eta abantailatu: hala nola enorantziak nahi baitu aurthiki eta ostikatu. Hauxe da, bada, nik aiphatzeko dudan gerla. Halatan, beraz, arrazoin lukete gure gaztek laster egiteko ene deihadar huntara: ezen ezta munduan gizonik jakitea desiratzen eztenik, zeren guztiok jeneralki baitugu geure baitharikako gutizia bat jakiteko, eta hargatik naturalki penduratzen gara jakintasunera, gure perfezinora bezala. (169-170 or.)

Jakintasuna eta enorantzia baliatzen dira bi harma diferentez. Batak darabila nekhea eta travaillua. Bertzeak aisia eta alferkeria; jakintasunak edo zientziak gerla egiten dio enorantziari nekhearen eta travailluaren bidez, harma hautaz garaitzen du. Halaber, enorantziak ere aisiaren eta alferkeriaren bidez kontra egiten dio jakintasunari, trabatzen du, eta irabazten diotsa hainitz izpiritu gai eder, eta, batzuetan, munduan diren adimendurik haltoenak, eta gairik hoberenak. Batzuek estudiantu zutelarikan aisia eta alferkeria dela kausa, estudiantu gabez, eta bertzeak estudiantu ondoan halaber aisiari eta alferkeriari bere buruak emanez, eta ikhasi zutena ahanztera utziz. Orai ikhusten duzue, beraz, gazteak, gerla hunetan bataren eta bertzearen harmak zein diren? Orai zuen baithan dago hautatzea, hauterizan⁴ zaudete, bietarik bat hauta zazue, gerokondoan urrikirik eztukezuen bezala, ezen nolako hauteriza orain eginen baitukezue, hura bera zuen zahartzean hautatua kausituko dukezue.

Ordea, nor ahal dateke adimenduaren kutsua duenik, jakintasuna hain gauza ederra, aberatsa, ohorezkoa, balenta eta merezimenduzkoa utzirik, enorantzia erromes, laidagarri, herbal eta hobenduria hauta dezakenik, ez izaitekotzat zenbait erho zoro burutik jauzirik? Badut uste hauterizan gainean guztiok akhort garella; zeren guztiok jakintasunaren gutzios baitgara.

Ordea baldin eskoletako harmen bidez nahi baduzue zuen bethiereko omena hedarazi, jakin zazue, zuen eginbidea dela, estudioan behar bezala enplegatzea, egiazko garaitiaren ardies-teko; errekonpentsa berezi bat nahi baduzue ardietsi, letren haziak erain zatzue, zeren estudioko arbolatik bilduko baituzue bethiereko omenaren fruitua. Baldin gutzios bazarete loriaz aberasteko, eskoletako urre-meatzetan enplega eta travailla zaitezte. Baldin desiros⁵ bazarete ohorearen zelai eder eta zabaletan pasaietan ibiltzera, har zazue estudioaren karrosa. Baldin nihor kausitzen bada zuen artean estimuaren egartsuaz sekeriatua dagoenik, laster egin beza eskolako ithurrira, handik atherako tu egiazko estimuaren usin hondar gabeak, xirripa eta hibai usintsuak. Nahi duzue laudorioen portura hedatu? Sar zaitzke autoren untzian, edo fragatan. Nahi diozue thiratu zuhurtziaren xedeari? banda zazue Apoloren balezta. Baldin

erreputazino onaren dorrea ezartzera gutiziatzen bazarete, fintka zatzue liburuetako zimenduak. Baldinetariak⁶ errepausua-
ren eta sosegua-
ren kopetara ikhateko gogoa baduzue, trabai-
lluaren zurubiak hurbil zatzue. Baldin bethiereko aiphamena-
ren itxura edo figura nahi baduzue pintatu, har zatzue eskoleta-
ko koloreak, tintak, eta pintzela. Nahi duzue khoroa eder bat?
orrazta zazue izpiritua Minervaren orrazeaz, adatsa izur, eta
kroskoilla pinta, eta ungentuz gantzu (190 or.)

(1) Harei. (2) Ditut. (3) Musa, inspiración. (4) Aukera. (5) Gu-
raritsu. (6) Baldin... ba...

45.—(ESKUARA ETA ESKUALDUNAK)

Eta nitukelarik oraino asko bertze arrozoinamendu egite-
ko hunen gainean aiphatzeko, uzten tut guztiak, zeren ez baitut
uste nihor kausitu, eskualdunak baino, fede eta froga segurago-
rik eman ahal dezakedanik, denaz geroztikan gauza bat hain
jakina, eta egun guztiaz bat bederak frogatzen duena, Eskual
Herri-
tik ilkhitzen garen bezain laster, hitzkuntza arrotzen pre-
mian jartzen garela. Eta oraino bertze alde, geure herri-
tik ilkhi
gabe Eskual Herrian berean barrena, geure artean dugu pena
eta neke ondikozko¹ hau, zeren geure hitzkuntza propiala bai-
tarabilagu hain nahasia eta trukhatua, non eskualdunok gerok
pena eta neke baitugu elkharren aditzeko.

Ezperen bat bedi Nafarroa-Beherearra edo Zuberoarra
Bizkaitarrarekin edo Alabesarekin, eta Otxagabi-
arra edo
Erronkalesa Baztandarrarekin eta Lau-urtarrarekin; edo zein
nahi Eskual Herriko alde batekoa bertze alderdikoarekin, eta
ikhusiko duzu, elkhar ezin adi dezaketela; aitzitik elkharri idu-
rituko zaizkio eskualdunak direlarik, ez tirela hitzkuntza bere-
koak. Eta hau heldu da, eskualdunek bere hitzkuntza propiala
ez estimutan idukiz, eta munduko bertze gainerako jendaki
guztiekin bere hitzkuntzan iskiribatzen duten bezala, eskuaraz is-
kiribatu faltaz.

Ezen zenbat ere liburu iskiribatzen baitituzte, hetarik ge-
hienak dakuskigu, iskiribatzen tuztela, zeinek bere herriko hitz-
kuntzan; hau da gauza bat egun guztiaz ikhusten dena. Eta

oraino hetarik hainitzek dakitzatelarik hainitz hitzkuntza arrotz, hekien herrikoa baino lekhu eta erresuma gehiagotara hedatzen direnak guztiarekin ere bere herriko hitzkuntzarentzateko amodioa dela kausa, eta bere herriaren ohoratzeagatik, eta progotzarazteagatik, bere hitzkuntzan iskiribatu tuzte bere liburuak. Eta oraino bertze alde, bereak hala iskiribatzea ez askietsiz, bertze hitzkuntzetan iskiribaturik daudezinak² ganbiantzen eta itzultzen tuzte bere herriko hitzkuntzetara.

Hargatik ordea dakusagu hitzkuntza hek bethi ere dohazila aitzinatuz, hedatuz eta edertuz; ezta ordea zer miretsi, zeren liburuak baitira kutxak eta arkhak, zeinetan hitz eta solas ederki eta ongi erranak, eta pentsatuak, galdu gabe baitaude altxaturik begiratuak eta goardatuak; eta hala manera hunetan ikhasten da ongi eta ederki mintzatzen, eta bide beraz hitzkuntzak ere dohazi bethi aitzinatuz, hobeagotuz eta edertuz.

Eta baldin bertze hitzkuntzetan bezala izan balira lehenagotik liburuak eskuaraz iskiribatuak, hetan begiratuak eta altxatuak egonen ziren gauzen izenak, eta mintzatzeko hitz eta manera eskuarazkoak; eta gisa hunetan baliatu ginakeen hetaz mintzatzeko. Bainan nola izan baitira hain aphurrak eta gutiak eskuaraz argitarat ilkhi diren liburuak, hargatik alde batetakoak ezin jakin zetzaken bertze alderdiko hitz guztiak eta gauzen izenak. Eta hala denborarekin, edozein lekhutan joan izan dira hitzak, eta gauzen izenak, aphur bana emeki emeki bertze gauza guztiak bezala, trukhatuz, eroriz eta ahantziz.

Lehenago Espainia guztian eta Franziako hainitz herritan eskuaraz bertze mintzorik etzelarikan, egun dakusagu zein herri gutitan mintzo garen eskuaraz. Eta oraino mintzo garenoi ere eskas zaizkigu hainitz hitz eta izen lehenagokoetarik, zeren hekien lekhuan hartu baititugu bertze batzuek hitzkuntza arrotzetarik; eta hek ere ez gisa berekoak guztiak, zeren batek hartu baitu hitzkuntza batetik, eta bertzeak bertzetik.

Mirestekoa gauza da, eta oraino nihori guti gogoratzen zaioena: mundu guztian etzelarik eskualduna baino jendaki edo leinu nobleagorik, odol hobeagotakorik, adimendu zorrotz eta biziago duenik, zein nahi den gauzetan antzatsuagorik,³ naturallezaz ethorkorragorik, zerbitzatzeko leialagorik, manatzeko emeagorik eta zuhurragorik; itsasoz eta leihorrez suharragorik eta hobetakorik; bakean bakezkoagorik eta amultsuago-

rik, gerlan eta gerlako gauzetan halaber gerlosagorik, eta nihor berdintzen zaioenik; prestutasunean hurrantzen zaioenik, eta Jainkozko gauzetan abantail eramaiten dioenik; nahiz den noblea, nahiz ez; nahiz aberatsa, nahiz probea edo erromesa; nahiz handia, edo den ethorkirik aphalenetikakoa; nahiz dohala manatzera, nahiz zerbitzatzera; egun guztiaz ikhusten dugun gauza da, eskualdunak gauza guztietan bere burua ezagutzera eman arazten duela; nahiz dohan Franzicara edo Espainiara, edo Indietako zein nahi den partetara, edo nora nahi den dela. Eta halatan da hain estimatua, maitatua eta prezatua, non mundu guztiak bertze leinu eta jendaki guztien gainetik nahia-go baitu eskualduna bere aldean.

Hauk guztiak hunela ikhususirik, ezin nagoke erran gabe, zein axola guti eta artha aphurra izatu duten eskualdunek bere eskuaraz, eta deusez ere baldin egin ahal badakie erantzukirik, da gauza hunetaz.

Halakotz, bada, eskualdunen pena eta neke hau ikhususirik hasi nintzen eskuaraz, latinez, franzesez eta espainolez hitztegi baten moldatzen, bide hartaz eskualdun guztiak eta bereziki ene hertar⁴ Lau-urtarrek zenbait fagore eta laguntza izan leza-tengatik; bere herritik kanporat ilkhi gabe, zenbait hitzkuntza-ren parte bederen ikhasteko. Ordea, noiz eta ere uste bainuen aitzina neramala neure obra, gogora zitzaitan deus guti balio zuela ene traillaak, eta zimendu gabeko obraren pare izanen zela, baldin lehenbizirik ezbanituen moldatzen eskuarazko lehenbiziko hatsapenak... (286-289 or.)

(1) Zoritxarreko. (2) Dagozanak. (3) Trebe. (4) Herritar.

LARREGUY, Bernard

(XVIII. mendekoa)

Ustaritzen eta Basusarrin erretore izana. Ortik kanpora, gauza gitxi dakigu...

Liburua: «Testament Zaharreco eta Berrico historia» (2 t., 1775 - 1777). Itzulpena.

Santuen bizitzak eta sermoe batzuk ere ba dakar. «Cantico Izpiritual» batzuen egile ere izan da.

46.—DAVIT ETA GOLIATH

Biztu izan zen gerla berri bat filistindarren eta israeldarren artean. Batzuk eta bertzek bildu zituzten bere indar guziak, hurbilduak ere ziren elkhar ganat. Filistindar bat extrainioki handia zena gorphutzez, ez gutiago arguilluz, Goliath zaritzona, agertu zen berrogoi egunez, israeldarrei trufa eta idoi egiterat, erraten ziotelarik oihuz: «Zerentzat nahi zarete guziak gudukatu? Egizue obeki; hauta zazue bat zuen artean, eta bedi guduka ene kontra. Eramaten badarot bizia, jarriren gara zuen gathibu; hala-hala, nik garaitzen balin badut, eta gabertzen balin badut bere biziiaz, gure meneko beharko zarete».

Saulek eta israeldarrek ezin ikus zezaketen izigarriki handia zen gizon hura lastu gabe: horrek berak erakhartzen zuen Goliath bursudia guzietarat, erraiterainokoan ere desafioa eman zioela israeldarren armada osoari, eta etzela bat atrebitu haren aitzinean agertzerat.

Davit, Isairen semea, etzen, ordu hartan, erregerekin: bihurtua zen Bethleemerat, zaintzekotzat bere aitaren arthaldeak, eta bazituen hirur anaia armadan. Egun batez, hala beharra!, Isaik egortzen du Davit bere haurridetarat, jateko zerbaitekin. Hetarat zen, xuzen-xuzena, bi armadak elkharri lothzerat zoazela. Davitek utzi zituen berekin zaramatzen gauzak, eta egin zuen laster guduko lekhurat. Harat zeneko, horra non agertzen den Goliath, ohi bezala, bi armaden erdian, egundainoko burfundia eta desafio bereekin, eta non ihesi egortzen dituen israeldar iziperak.

Bertzelako animoa erakutsi zuen ordean Davitek. Erraten zioten inguruan zituenei: «Zer luke saritzat filistindar hori hill lezakenak? Borra lezakenak israeldarren laidoa?»

Ihardetsi zitzaion: «Balin edireten balitz norbait Goliath hill lezakena, erregek eman liozokela nahi beخانbat ontasun, bai eta bere alaba ezkontzan». Eliab, Daviten anaia zaharrena, entzutean solak hek, erran zion bere haurrideari: «Zer tutzu elhe horiek? Zer egiteko duzu zuk hemen? Non zabilta ardiak trebes utzirik mortuan? Ezagutzen dut zure xedea: gudu-katzen ikhusi nahiak erakharri zaitu alde hautarat».

Davit urrundu zen bere anaia ganik; ordean, gauza bera zioen heltzen zen lekhu guzietan.

Saul egin zen jakintsun Daviten solasez, eta erakharri zuen bere aitzinerat. Huna nola Davit mintzatu zitzaion erregeri: «Nihork ez beza izan beldurrik filistindar hartaz. Erakharria naiz haren kontra gudukatzerat: ez da errana ez dudala eskurako». Saulek erran zioen Daviti: «Gaztegi zara; etzara gai buru egiteko filistindar gudutan ohitua den hari». Davitek ihardetsi zuen: «Ene aitaren arthaldea zaintzen nuenean, heldu ziren batzutan lehoiak eta hartzak, ardi arrapatzerat: ordu hetan, jarraikitzen nintzaioten ondotik, lothzen nintzaien, eta utzarazten niotzoten zaramatzaten ardiak: heldu balin baziren ene gainerat, hartzen nituen zintzurretik, eta galarazten nioten bizia. Bada, gauza bera eginen dut filistindar haren alderat: lehoineen hortzetarik eta hartzeen aztaparretarik beiratu nauen Jainko hark berak beiraturen nau filistindar haren eskutarik».

Saulek entzun zituenean gauza espantigarri hauk guziak, erran zioen Daviti: «Zohazi, beraz, Jauna dela zurekin». Emanarazi ziotzan kuiraza bat, erran nahi da, gerrontze-kara bat gorphutzean, altzairuzko kaska edo kalota bat buruan, eta ezpata bat gerrian. Hauk guziak etziren Daviten nekhatzekotzat baizik. Aurkhitzen zen planta berrian ezin hurren igi ere zitekeicn; khendu behar izan zituen beraz bere kuirasa, bere kaska eta bere ezpata: etzen alabainan halakoekin ohitua. Hartu zituen bere leheneko armak, zeinak baitziren makilla bat eta ha-baillak, eta abiatu zen filistindarraren kontra.

Goliathek ikusi orduko Davit, burlatu zen hartaz, erran zioela: «Zer egin gogo duk? Zer? Makilla batekin heldu haiz ene gana? Zertzat idukitzen nauk? Uste duk naski zenbeit

xakhur naizela. Jakin ahal dezakek jan-araziren diotedala hire gorphutz ttipia aireko egaztinei eta lurreko aziendei». Goliathek egitearekin batean zenbait hurrax bere lantzarekin Daviten gana, Davitek, harturik harri bat, erabili zituen bere habaillak, landatu zuen harria Goliathen kopetaren erdian, eta artiki zuen ahuzpez, lurrerat. Orduan ebaki zion burua beraren ezpataz. Heriotze hark hedatu zuen ikhara filistindarretarat, eta bozkarioa Israel guzirat.

Daviten exenplu ederrak irakhasten daroku ezartzen gure fidantzia guzia Jainkoa baitan. Etsai borthitzenak eta muthirienak, hala nola pasione nausituenak, laster dire garaituak eta ezdeustuak Jaunaren laguntza sainduarekin. Goliathen suphertasunak erran nahi du, ez dela zeren kondatu hazkartasunaren gainean; Jainkoak beheratzen eta urmariatzen ditu supherrak eta sendoak, altxatzen eta khoroztzen dituen denboran humillak eta munduaz arbuyatuak.

(Bernard LARREGUY, *Testament Zaharreco eta Berri-co Historia*, Lehenbicico Liburua, Bayonan, M.DCC.LXXV, 276 - 279).

Ibarreko erretore izan zan (Mixel Garikoitz santuaren jaioterriko erretore). Alfonso Rodríguez-en «Práctica de la Perfección Cristiana» liburu ospetsua frantsesetik euskeratu eban, baina laburtu eta euskaldunen preminetara egokituta, itzultzaileak berak itzaurrean autortzen deuskunez. Darabilen euskalkia ez ei da askotzarik erabili liburuetan. Euskal itzulpen-lan askoren nekeak, asmoak eta xedeak egoki ikusi geinkez itzaurre onetan. Aditz-jokoa interesgarria.

Liburua: «Alphonsa Rodríguez, Jesusen Compagnaco Aita Guiristinho perfeccioniaren practicaren pparte bat Heuzkarala itçulia, Heuzkara beçic eztakinen daco». (Avignhonen, M.DCC.LXXXII).

47.—LIBURU HUNEN HUZKARALA IZULZALIAK IRAKURZALIARI

Eztut uzte, Irakurzale Maithia, baden Libururik arima hunak devozione perfeitaren bidian handiskiago lagunt ditzakeenik, eziez¹ baita Alphonsa Rodriguessen Perfekzione Giristiñuaren Pratika deitzen dutena, zoiñen parte bat heben Heuzkarala itzulirik ezkentzen baiterauzut. Liburu horren Eile² Jinkothiarrak hil izan duzu seindutarzunesko urrinian,³ eta Liburu balioz huntan eman diraguzu seindutarzunik gorenera heltzeko bidia. Gizon argitu eta Jinkothiarrak Liburu horrendako duten eztimiak,⁴ eta nihaurek haren balioztarzunaz dudan sinheste handiak, anhitzetan gutiziarazi diraazie Heuzkarala izan ladin itzulia, amorekatik Heuzkara bezik eztakiten girithiñuak ere probetxa ahal litten Liburu preziatu hortzaz. Gure bi Jaun Apezpiku handiri, Suarez d'Aulan, eta Charlez Augusta Kieni, uken dizit ohoria mintzatzeko gutizia hortzaz, eta biek-elga arimen Salbamendiaren dako obra balioz bat zatekeela Heuzkarala itzultze hori segurtatu nizie, eta erran unxa⁵ eginen niela haren eithia.

Bena, Irakurzale Maithia, gomitu errespetagarri horiek gortzen⁶ baninduten lan horren inxeatzera,⁷ Franzesaren

Heuzkarala itzultziaren neke handiak, eta ene heuzkararen azki unxa jakin gabiak, bai-eta orano Liburu Franzesian sei-heun pagetako laur partetan den horren Heuzkarala itzultzeko lanaren luze eta handitarzunak izitzen eta gibelzten nindizien, noiz-eta ere Adiskide jakinxu jinkothiar batek berriz gorthu bainu, erranez Jinkoazko lanetan ez unxa egithiaren beldurrak ezkithiela baratu behar; borondate hun bateki inxeatziak, eta gauzaren unxa egin nahizko ernetarzunak dutenaz geroz Jinkoaren aitzinian mereximendia, ez aldiz gauzaren bere beithan unxa egithiak; eta Jinkoaren benedikzioniak lan fuerte hotan eztaltzen ahal thiela Langiliaren exkartzarzunak, eta ezinago unxa einak balira bezala, arimetan probetxa-araziten. Lanaren luzetarzunaz zen bezambat, ene Adiskidiaren seindimendia zuzun⁸ laburtzia hobe zela, Liburu hedatu horren parte bat jende komunanaren hoben denaren xoilki Heuzkarala itzuliz, eta besthiak utziz; zeren halaz Liburia labor-ago baitate eta merkiago, eta hantik jende praubek ihikiago⁹ erosiren, eta aborok probetxaturen.

Arrazoin horiek, ene Irakurzale Maithia, ene bihotzeko dudak kendu tizie, eta ekarri nizie erran dudan Liburu horren, ez ororen, bena parte baten Heuzkarala itzultzera inxeatzera, eta ene uztez horren kapitulu jende komunaren probetxosenak hautatu tizit, bai-eta heendako euher zauzkidan kapitulu heen parte zumbait utzi. Jaunak detxala haren gloriatako eta arimen hobetan ene hauthian¹⁰ kausitu dudan!

Hitez hitz Franzesaren Heuzkarala itzultzen hasi ninduzun; bena orhiturik hala eginez gure Heuzkararen ara edo ethorza anitz pundutan bortxatzen zela, eta Franzesaren zenziak¹¹ etzela anitzetan hain lanhoki explikatzen ahal, deliberatu dizit, franzez terminhuer sobera xehe jarraiki gabe, zenziaren ahalik klarkiena Heuzkarala itzultzera; zumbait aldiz ere, bena gutitan, Liburu hortako franzez therminhuek ekarten zuten beno aitzinoo¹² joan nuzu gauzaren hobeki endelgarazitzeke, bena behinere ene uztez Liburu horren franzesian den substanziaren kontre.

Kapitulu hautatu horien segidaz den bezambat, etzit uzte uken necesario zela, oraiko demborako Liburietan usatzen den bezala, anitz partetan berhesthia.¹⁴ Jende komunak, zoinendako lan haur egin baitut, etzirozu probetxa Liburu hunen par-

tekatze hortzaz. Irakurzaletarik bat-bederak Liburu hunen Tablan, edo hunen akabanzan ezarriko diren substantzien herrokan,¹⁵ idirenen¹⁶ tizi irakurtu nahi duken gauzaz minzo den kapitulia, eta kapitulu hura idireiten den pagiaren edo solharen segñalia. (3-8 or).

(1) Ezen ez. (2) Egile. (3) Santutasunezko usainean. (4) Estimazi-noak. (5) Ontsa, ondo. (6) Goritzen, sutzen. (7) Entseatu, ahalegin-du. (8) Zenduan, zan. (9) Errazago. (10) Neure aukeran. (11) Senti-du. (12) Aitzinago, aurrerago. (13) Ulerterazteko. (14) Bereztea, zati-tzea. (15) Rango, leku, maila. (16) Edirenen, aurkituko.

(Barkoxe, 1796 - 1862)

Bizitza «malerusa» izan eban: zoritxarreko ezkontza; espetxerik espetxe («galeretan»), eta erromes... Bertsolari edo obeto esateko, «koblakari» au goi-mailako poetatzat daukeen askok. Bere denporan entzute andikoa, gure egunotan sinbolotzat artua: ainbat jakitun alegindu dira Etxahun sakonetik aztertzen: Lhande, Larrasquet, Dassance, Y. Etxaide eta, batez ere, J. Haritschelhar...

48.—URX'APHAL BAT

1

Urx'aphal bat badügu herrian trixterik,
nigarrez ari düzü kaloian barnetik,
bere lagün maitiaz beit'izan ützirik:
kuntsula ezazie, ziek adixkidik!

2

Oi! ene izatia dolorez betherik!
Mündian ez ahal da ni bezañ trixterik,
ni bezala maitiak traditü dianik...
Habil, Amodiua, hürrün ene ganik.

3

Traditü zütüdala deitadazüt erraiten;
bata bezañ bestia biak akort ginen,
ene bihotza düzü zuri beti egonen:
kitatü behar zütüt lotsaz etzekuen.

4

Oi ene traidoria, zer düzü erraiten?
Elhe faltsü erraitez etzireia asetzen?
Ene flakü izanez zira prebalitzen,
hortarik ageri'zü nunko seme ziren.

5

Maitia, nahi zütüt segreki mintzatü,
arrazuak dereitzüt nahi esplikatü;
bihotz öroz züntüdan osoki maithatü:
kitatü behar zütüt, hiltzera nuazü.

Thunba bat nahi dizüt lürpian ezarri,
ene khorpitz trixtia gorde mündiari,
ene ixterbegiak ditian liberti:
akort izanen zira zü ere haieki.

49.—BI AMA ALHABA

1

Barkoxen badira
Bi ama alhaba;
Algarri segretien khuntatzen ardüra.
Hek uste gabe heltü, haier beha zena,
Etxahun xaharra,
Jinkuaren haurra.

2

Alhaba amari
Zen erraiten ari:
«Mündi'ari zitazüt bethi trüfaz eni,
Erraiten beteitade: 'toü pay qu'ey toü payri'».¹
Zer othe da hori? (bis)

3

Auxilik, alhaba!
Hori dün mardalla!
Hitzaz oküpü² ondun hil ziña senharra;
Hamar hilabeteren bürin, hi jin haurra,
Harek egin obra,
Hirur hortzekila!

4

Hamar hilabete nin,
Sorthü nündüzünin!
Enila hura aita jarten niz beldürin;
Aiei, hau doloria! eta ezin jakin
Züganik aita nur nin! (bis)

Hire egüzaita,
Zer gizon xarmanta!
Hareki bürüz bürü jan diñagu zopa;
Ordin danik badiñat bai nik bethi lotsa
Hunki zeitan kota³ (bis).

(HARITSCHELHAR, Jean, «*L'oeuvre poétique de...*», in EUS-KERA, 1969-1970, 404-407).

(1) Zure aita zure aitabitxi da (Biarnoko izkeraz). (2) Seindun, aurdun gelditu. (3) Gaineko gona.

HIRIBARREN, Jean Martin

(Askain, 1810 - Baiona, 1866)

Apez au gazterik agertu zan euskaltzake sutsu. Ainbat lan utzi dau argitara barik (sermoiak, gramatika, erlejino-gaiak, esakunak, olerkiak...), eta, batez ere, Euskal Iztegi bat (geroago P. Lhande-k erabili ebana).

Liburuak: 1) «Eskaldunak...» (Baiona, 1983): *Folklore aldetik txalogarria (euskal jolas eta joko, oitura, gizandi ta olako asko ezagutzeko berebizikoa), baina poesi-senez ez orniduegia.*

2) «Montebideoko berriak» (1853).

3) «Escaraz eguia» (1858): *Erlejino-gaiak.*

50.—PILOTA YOKOA

...Asko partida dire irauten dutenak
Betehetzen dituztela udako egunak,
Batzuk ez bertzek amor nahi gabez eman,
Hastean baizen fresko iduri ariman.
Ez uste pilotari hoik saltzen direla,
Zezenen pikadore batzuek bezala:
Lehen premuak dire zenbeit herrietan;
Ethorki gustuz dire hedatzen pilotan;
Ez da negozio bat holako yokoa,
Bainan eskal-yosteten lehenbizikoa;
Gorputza da hartarat gazte lehiatzen;
Handi ala ttipiak baltsan nahastatzen,
Partida handi baten aiphamena aski,
Yende oro biltzeko baterat arinki;
Uzten dituzte lanak, gero egiteko,
Eta ba dohaz goizik plazen kausitzeko.
Lau aldetan hertsatuz yartzen dire oro;
Ez dute zeren handik mugitu aboro,
Ez galtzekotz tokia, laster atzemana,
Higitzen bada handik nihor gutiena.

Agertzean launazka zortzi pilotari,
Gazteria emaiten irrintzirinari;
Irrintzirina baita bozkario gaina,
Eskualdunetan kanta itxitzen duena.
Laster kizkola denak dohaz ixilduaz,
Orroitzean yendea botaren oihuaz;
Gorphutzez ala gogoz plazan da emaiten,
Yan-edana ere da han deino¹ ahanzten.

Pilotari on denak lehen bota pika,
Hastetik yarrarazten bazterrak oihuka;
Erreferak² badio bigarren botari
Pasoaz ihardesten, guziak *bibari*.³
Trebesak orduan du lekhukotan menta;
Ezbalitz pariatzen, hotz liteke besta;
Hartako ere behar, nola gastutako,
Nornahik hirriskatu bi bortz liberako.

Errex da ezagutzen zen-zeinentzat diren:
Kintze⁴ galtze bakhotxak galtzaile histuren;⁵
Ezin ixil oihutik irabaztailea,
Lausengatzen duela yoko egilea.

Ehortzen da orena, zeinetan pipira
Edatzen baita ixil barnez bira-bira:
Pilota dabil airez, ezin bara nihon,
Gibeletik egortzen, barne ezin egon,
Bortz, sei aldiz ethortzen eskularruz yoa,
Aphaletik duela ziztuan hegoa;
Altxatzen da zerurat, hortzadar bezala,
Arkurik ederrena egiten duela;
Buru guziek betan diote beiratzen,
Ezker-eskuin direla harekin itzultzen;
Gibelegoak badu aldia yotzeko,
Hura begi guziek dute bilhatuko;
Erreferan sartzean urrundik pilota,
Begiek berriz harat bere tarrapata;⁶
Zortzi pilotariak oinen puntan dire,
Pilotari segitu beharrak baitire;
Ethortzean pilota eder besoari,

Frixtan egorriren da beherekoari,
Airea harraraziz ethorri bideaz,
Nonbait sarthu den arte haustaile kolpeaz.

Kintze akhabatzean, bolatzen xiztuak;
Gizonen tresna orok iduri piztuak:
Maipolis, gaphelu, makhila, gerriko,
Bozkarioz airetan orok ibiliko.
Iguzkiak yotzen du bere minenean;
Arthoa erre luke harriak gainean;
Halere nihork handik biderik egiten;
Gaphelua eskuan *Anyelus* erraten;
Othoitz saildu horrekin ez akhabo yoko;
Nihoiz baizen hazkarki pilotan lothuko,
Lau yuiek⁷ dioteino ilhundu duela,
Itsasoan ekhia ungi sarthu dela.
Yaun hoiek berek dute yuiatzen hauzia,
Zenbeit kintze denean goibel ehortzia;
Biltzen dire guziak plazaren erdirat,
Gapheluak eskuan, nola biltzarrerat;
Hekin errana nihork ez duke ezeztza;⁸
Hek mintzatu artean, gelditzen pilota;
Ez dukete paria, batzuen ez bertzen,
Intresak duelakotz gizona itsutzen.

Herriek emaiten herriei partida,
Bakotxaren esteka⁹ herri aldeko da;
Españolak badire kontra Fransesaren,
Bihotz guzietan da su erresumaren.
Irabazi dutenak, errege agertzen;
Ehun *biba* diote zintzurrek egortzen:
Nola ziren Grezian bestako nausiak
Trionfan eramanak populu guziak,
Hala pilotaria, irabazi badu,
Gazteriak etxerat kantaz segitzen du.

(J. M. HIRIBARREN, *Eskaldunak*, Bayonan, 1853, 211 - 213).

(1) Dagoen artean. (2) Resto (pelotan). (3) «Biba»-ka. (4) Jokoa-ren zati bat. (5) Tristetuko. (6) Carrera. (7) Epailari, juezak. (8) Ukatu. (9) Lotura, lokarri.

DUVOISIN, Jean Pierre (L)
(Ainhoa, 1810-1891)

Larresoroko Seminarioan abadegei izana, gero Aduanetan lan egin eban, «Capitain» izateraino. Jakinguraz erreta be-ti, euskaltzale sutsu, langile aspergabea izan zan; L. Luziano Bonaparte Printzearen laguntzailerik zintzoena...

Liburuak: 1) «Liburu Ederra» (1856): *Cardaveraz-en li-buru baten itzulpena.*

2) «Dialogues basques» (Londres, 1857): *Bonaparteren aginduz, P. Iturriagaren «Solazak» beste 3 euskalkitara itzuli ziran: bizkaieraz (J. A. Uriartek), Zuberokoan (Intxauspek), Lapurdikoan (Duvoisinek).*

3) «Bible saindua...» (Londres, 1859-1865): *Biblia osoa-ren leenengo euskal itzulpena. Bonaparteren aginduz.*

4) «Laborantzako liburua» (Baiona, 1858): *Aita-seeen alkarrizketa bidez, baserri-gai interesgarriak, euskerarik jato-rreanean.*

5) *Beste euskal idazki asko egin zituan: batzuk, argita-ratuak, geienak argitara barik geldituak...*

51.—BEHIAZ

Aitak.—Gaur mintzatuko gare behiaz.

Semeak.—Hori aditu nahia nintzen, ezen Eskal-herrian behitik atheratzen da probetxurik gehiena.

Aitak.—Hala da. Zaude beraz erne, zeren behiaren gainean erranen darozkitzut gauza batzuek, egundaino aditu ez-ditutzunak.

Bordale-aldean hiri bat bada, Liburna deitzen dena. Ondo hartako aberezain bat, Genon otsez, aiphatua da egungo-egun-ean Frantzia guzian. Ezagutzen du behiak zenbat esne eman dezakeen, zer esne mota eta zenbat denboraz.

Semeak.—Gauza miresgarria da hori!

Aitak.—Bai eta ez-da naskikoa;¹ segura da. Haren antzea gu-baithan sar baledi, preza² ginezake.

Egin izan du bada liburu bat guri irakhastekotzat bere ja-kitatea. Zenbait baliatu izan dira, bainan ez-dugu guziek begia bardin ona, eta bizkitartean hortakotzat begia behar da.

Nahiz antzea ez-den buru batetik bertzera iragaiten, makhila bat esku batetik bertzera bezala, halarik ere hariz-hariz³ ikhasten da; emeki-emeki ohartzen da eta trebatzen gauza guzietan.

Zuk ere, geroago baliatzekotzat, burutan har zatzu oraiko solasak.

Huna zertarik Liburnako aberezainak ezagutzen dituen behi onak.

Idiek eta behiek badute gibelean, buztanaren azpiko-aldean, *ile izarra* deitzen den seinale bat.

Seinale hori deitzen dute oraino *ogi-burua*, zerenazienda batzuetan ogi-buruaren itxura zerbait baduen.

Beraz abereen *ogi-burua* edo *ile-izarra* biak bat dira.

Ile-izar horrek hainitz errannahi du behi batean; handia eta zabala bada, seinale ona; ttipia edo meharra bada, seinale txarra.

Ile-izarra ezagutuko duzu azienden ixter-arteari gibeletik ongi begiratzuz.

Badakizu abereen ilea gain-beheiti etzana dagoela. Bainan izarreko ilea azpitik goiti doha. Nola hainitz xehea baita, artharekin ikhartu behar da. Argi onera atherako duzu behia hortarakotz, behatzaz-ere haztatuko larrua, ezagutzekotzat nondik hasten diren ilearen goiti-beheitiak.

Goiti dohan ilea izarrekoa da; beheiti etzana dena, ez.

Azienda batzuetan izarra ongi ageri da, zeren goitiko ileek eta beheitikoek, elkar jotzearekin, kizkurdura bat egiten baitute, bizkitartean ez inguru guzian.

Semeak.—Holetan *ile-izarra* ezda ezagutzeko errexa.

Aitak.—Begia ongi emanez geroz, bai.

(«*Laborantzako liburua*», XXXI garren kapitulutik zatia)

(1) Badaezpadakoa. (2) Estimatu. (3) Ekinaren puruz.

52.—EZEKIELEN PROFEZIA

Eta Jauna mintzatu zitzaitan, zerralarik:

Gizasemea, Jerusalemmeri bere izigarrikeriak ezagutaraz diozotzu. Eta errozu: Hau dio Jainko Jaunak Jerusalemmeri:

Hire erro eta ethorkiak Kanaango lurretikakoak ditun; aita Amorrhearra eta ama Zethearra hintuen. Sorthu haizen egunean, hire sort egunean, ez daine xilkhoa ebaki; ez haute hire salbamendutan urez garbitu, ez gatzez gazitu, ez xatharrez inguratu. Begiak ez hau guphide izan, horietarik bat egiteko hiri, ez haute izan urrikari; bainan hire sort-egunean, lurraren gainera arthiki¹ haute, hire biziaren axolagabez.

Nik ordean, hire ondotik iragaitean, oin-pean ostikatua ikhusi hintudan hire odolean; eta erran nainan, hire odolean hindagoelarik: «Bizi hadi!»; diot hiri erran naunala: «Hire odolean haizen arren, bizi hadi!»

Handiarazi haut sorhoetako belharra bezala, eta handitu eta larritu haiz, adinetara heldu izan haiz eta emaztekien lerro-ra; hanpatu dire hire bulharrak eta ilhea sortu zain, eta buluza eta ahalkez estalia hintzen.

Eta iragan nintzen hire aldetik, eta ikhusi hintudan; eta hara hire adina, galai adina zunala, eta hire gainera hedatu nainan ene soinekoa, eta estali ninan hire laidoa, eta zin-egin nainan, eta patutan² sarthu nindunan hirekin, dio Jainko Jaunak, eta egin hintzan enea.

Eta urez garbitu hindutan, eta gainetik xahutu nainan hire odola, eta olioiz gantzutu hindutan. Jauntzi hindutan soineko karantzatzuz eta gorrimorezko oinetakoz; tinkatu hindutan liho hautazko gerrikoz, eta estali soineko finenez. Aphaindu hindutan edergailuz; eskuetan ezarri narozkinan eskumuthurreta-koak, eta lephoan gathea. Urhezko usteya ezarri nainan begihartean, beharrietakoak beharrietan, eta khoro ederra buruan. Urhez eta zilharrez izatu haiz aphaindua, liho hauta lorekatuz eta karantzatzuz jauntzia; hazi haiz irin-lorez, eztiz eta olioiz; ederra egin haiz ororen geinetik, eta igan haiz tronura.

Jendakien artera ilkhi izan dun hire izena hire begiharteko distiraren ariaz,³ zeren osoki baihintzen ederra, nik hire baithan ezarri nuen edertasunean, dio Jainko Jaunak... (EZEKIEL, XVI. Kap.)

(1) Jaurti(gi). (2) Alkargo, pacto. (3) Gaitik.

INCHAUSPE, Emmanuel

(Zünharreta, 1815 - Omize-gaiñe, 1902)

Baionan eliz kargu andiak izan zituan, eta I Vaticano Kontzilioan Apezpikuaren teologo izan zan. Lan asko egin eban euskerearen alde, euskeraz (Zuberokoan eta lapurteraz) eta erderaz. Bonaparteren laguntzaile ere izan zan.

Liburuak: 1) «Dialogues basques» (Londres, 1857): P. Iturriagaren idazlan au Inchauspek jarri eban Zuberoko euskeraz, Bonaparteren aginduz; 2) «Le Verbe Basque» (Paris, 1858): Zuberoko aditzaren erak (eta beste euskalkietakoak ere bai). Lan luze sakona.

3) Axularen «Guero Guero»-ren Itzaurrea eta argitartzea (Baiona, 1864): Lapurtera argi dotorez.

4) «Jesu-Kristen Imitacionia» (Baiona, 1883).

5) «Maria Birjinaren hilabethia...» (Paube, 1894).

6) «Kantika saintiak Zuberoaco euskaraz» (Baiona, 1897): *ORIXE*k gorengo mailan jarten dau liburu au, beronen euskera ederragaitik.

53.—ISTORIOA EDO GERTHALDIAK

Ave Maria da Aingürü Gabrieleek Jinkoaren phartez Maria Birjinari egin dian gürra edo salütazionia. Egun batez Santa Mektildak erran zeion Ama Birjinari: «O Ama Maitia, nahi neizketzü erran gizonak erraiten ahal deitzün laidorio handiënak eta zure bihotzarentako hitz laketgarriënak». Ama Birjina agertü zeion eta erran: «Ene haurra, uste ükheiten ahal düna gizonak ahal déitadala laidoriorik eta erraiten hitz hunkigarriagorik, zoin bëitira Jinkoaren beraren phartez Aingürü Gabrieleek erran deitzadan hitzak eta eman déitzan laidorioak? Ez, eztëitan erraiten ahal, eta eztün gizonik erraiten ahal déitadanik, othoitze edo laidorio onhésgarriagorik, zoina beita *Ave Maria*. Hori uste ükhëitia lüken Jinkoa beno gorago joan nahi izatia».

Sën Frazések erraiten zian: «*Ave Maria* erraiten düdanian, zeliak zabaltzen dira, Angüriak bozten, lürra ügaizten ¹, ifernia ikharatzen eta débriak ² ihes joaiten». Suarez Thologiën Sabantak ³ erraiten zian, bere jakitatia oro nahiago zükiala gal-

dü, eziéz ⁴ *Ave Maria* baten merezimentia. Dezagun arren maite ükhen erraitia eta milatan arrerraitia ⁵ *Ave Maria*, bizian, hilzeko menian ⁶ eta gero zelian!

Dupanloup Aphezakupiak khuntatzen dü déithurik izan zéla Dama gazte batengana, zoin haur ükhéitetik gaizkitü beitzén. Franziazko Marechal baten alhaba zen; ezkontze handi bat eta aberats bat eginik, seme baten sortzeko ükhen zian bozkarioa; bena barberék ⁷ erran zién bera hilzeko ménian zela, eta Jaun Dupanloup kargatü zien berri horren ériari emaitiaz. Aita, ama eta senharra desolazione handiénian zirén. Dupanloup hüllantzen da tristezia handi batekin; ériak hónkijin ⁸ egiten dio erri ezti eta itxüra eme batekin.

—O, Madama —dio Aphezakupiak— zer zorigaitza!

—Zer! —ihardesten deio ériak—, hil behar düdala? bena, Jauna, eztüzia uste zeliala nizala?

—Bai, bai esperantza dizüt.

—Oh! bena ni segür nüzü eta hartakoz deskantsü dit bihotza. Ene haurzarotik maite ükhen dit *Ave Mariaren* erraitia, eta aspaldiko urthétan egün oroz erran ditik kunderak ⁹. Eta hainbeste aldiz amoriorekin eta konfidantzarekin erran ondoren Mari Birjinari: «*othoi egizü enegatik orai eta ene hilzeko orenian*», segür nüzü heltüra eginen déitadala; heben dela ene khantian eta zelialat eramanen diala ene arima».

Hil zen sendimentü hoiétan, beriak oro konsolatzen zütialarik; güzién bihotzak eraikiten eta ürgeitzen bere fede handiaz eta arimaren emetarzün alageraz.

(«*MARIA BIRJINAREN HILABETIA...*», Pau, 1894, 72-75.)

(1) Laguntzen, konsolatzen. (2) Deabruak. (3) Jakintsuak. (4) Ezen ez. (5) Bein eta barriz esatea. (6) Orduan. (7) Osagileak. (8) Ondo-etorri. (9) Errosarioak.

54.—AITZIN SOLHASA (Axularen «Gueroco Guero»ri jarria)

Euskaldun maitea, huna non duzun AXULAR zaharra, omen handitako gizon hura, euskaldun eskiribazailen artean lehena eta buruzagia; huna non duzun berriz phiztua, berriz argitarat agertua, anhitzen nahiaren arabera.

Berrehun eta hogoi urthe badu izan zela lehenik haren liburu ederra imprimatua; aspaldi zuen etzela edireiten, phuzkatu-rik eta zathaturik baizen; eta aspaldian ezagutzen zutenek galdegiten zuten othian etzutenz ¹ AXULAR berriz imprimatu- ren. Anhitz luzatu du, baina gerokotz heldu da; ezpaita sobera sarri, zeren holako liburuek behar lukete guztien eskuaran izan; eta ophatzeko liteke, Jaun Aphezpikuak dioen bezala, bat bedere lizen etxe eta familia guztietan.

Uste izateko da lehen ekhoiztea edo edizioea etzuela Axularen gidatu eta arthatu ahal. Liburuaren baimenduetan ik- husten dugu ordukotz etzela Sarako erretor: *Nuper Rector de Sara... Olim Rector de Sara*: Sarako erretor ohia, deithua da. Horrek nabarbentzen du nola edizioe hartan hainbertze huts eta narrio aurkhitzen den; urhatska trabatzen baitute irakurzai- llea, eta ezin komprenituz geldi arazten.

Liburuaren zathi guztien batundetzean ere bada zerbait nahasketa, eztira behar litezken segidan ibeniak.

Badirudi Axularen guthun edo paperak emanak izan zire- la imprimazailleari ondozkatu gabe, ordenan ezarri gabe; eta hunek imprimatu dituela albezala, eskuen artean gerthatzen zi- tzaizkan ereduraz, lehena azken, azkena lehen, etzuelakotz gi- daririk eta ez xuxenzaillerik.

Ekhoizte berri hunetan gauzak ondozkatu digutu eta libu- ruaren zathi guztier iarraikite eman derauegu. Hutsak ahalaz khendu edo xuxendu ditugu; zenbait, naski, guri ere itzuri zai- kegu, ezpaititake bertzela; baina hekiek, uste dugu, irakurtzai- lleak aise xuxenduren dituen.

Guti tokitan behar izan dugu Axularen mintzaia ere estali, aphaindu edo aldatu, oraiko ienden delikatatusanagatik. Axu- laren demboran, bai erdaraz bai euskaraz, orai baino librokia- go eta nasaikiago mintzo ziren; gauzen bere izenaz deitzeaz ne- hor etzen asaldatzen. Oraiko azturak, nahiz eztiren ordukoak baino hobeago ez garbiago, bai ordea minberago dira beha- rriak; eta benturaz gogoa ere gaizkiaren phensatzera zalhuago eta lasterrago. Minberatasun horren ariaz, eta amorekatik ari- ma garbienek probetxuekin irakur ahal dezaten Axularen libu- ru ederra, garbitu, leuntu eta aphaindu ditugu lekhu harro, kak- har eta gordinegi zirenak; alabaina osorik uzten ditugularik Axularen lanegina.

Eskiribatzeko araz ere bi hitz erran behar dugu, zeren bategisa batera, bertzek bertzera nahi baitzuten Axularena alda genezan.

Oraiko demboretan euskaraz eskiribazaille gehienek hautatu dute eskiribatzeko molde bat euskararai obeki eta zuzenkiago dohakona. Baina eskiribatzeko ara hura ezta oraino asko hedatua; ezta ere populuaz ongi hartua, zeren eman behar baitzaikate letrei erdaran emaiten eztioten soinu eta balio bat; eta are kateximako eta Eliza-liburuetako euskara ezpaita hala eskiribatua.

Bertzalde, bat badera libro bada bere obraren nahi duen moldean eskiribatuzera, ezta hain errazki atrebitu behar bertzeren, eta guziz Axularen, eskiribatzeko araren ukitzera eta aldatzera. Begiratu behar dugu, beraz, Axularen eskiribakida, eta hori gaitzesten dutenei erranen derauegu Axularekin:

«Zeren komunzki hala eskiribatzea nola mintzatzea, nori berea iduritzen batzaika hobenik eta ederrenik; gure haur ezpada zure bezala, ez othoi hargatik arbuya eta gaitz erran. Hunetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zure molde-ra; eznaiz ni hargatik bekhaitzuko, ez muthurturik gaitzez iarriko.»

Baditake guztiarekin euskara eskiriba ditekeyela Axularek eskiribatu duen baino arthezkiago; baina nork erranen du mintza ditekeyela hobeki? Hunetan guztien, bai lehenekoen bai oraikoen, nabusi eta buruzagi da Axular. Nehork ezta hain ederki, hain garbiki, hain lañoki eta hain ugariki euskara mintzatu. Guztiek behar diogu gure burua biluzi, agur egin eta nabusi ezagutu. Euskaldun ongi euskara erran nahi dutenek, eta euskara ezagutu nahi duten atze iakintsuek, Axular behar dute irakurtu eta auteman.

Ezta Axularek bere antzorako euskara bat egin; ezta bere mintzaia makhurtu, bihurtetu, eskarniatu eta eskazatu, erdaren aderetara edo erregeletara plegatu nahiz, bertze zenbaitek egin eta egiten duten bezala. Hark euskara euskaraz mintzatu du eta eskiribatu; euskara garbia mintzatzen den tokietan, Zugarramurdin bere sor lekhuana, eta Saran bere erretorian, erraiten den bezala.

Baina hek guztiak, bai eskiribatzeko bai mintzatzeko moldeak, Axularen obraren kampoa eta azala dira. Eta eztago he-

kietan haren liburuaren baliorik handiena. Barrean du barrean bere egiazko prezioa; mamia du arraroena eta baliosena. Han ikhusten da Axularen iakitate hedatua, haren asmu xuxena eta segura, haren izpirituaren goratasuna eta xotiltasuna; eta ere arimen salba araziteko zuen sugar borthitza. Eskritura saindua, Elizako Aiten erranak, Filosofo zaharren zuhurthitzak, istoria saindua eta bertze istorioak, komparantzak, gogomenak, etsortuak, hain ederki eta arthez aldikatzen ditu, irakurzaileari eskaintzen eta ekhartzen, non xarmaturik bezala edukitzen baitu. Iduri du haren liburuak baratze handi eta eder bat, zeinetan aurkhitzen baitira laketgarri guztiak: lore, fruitu, zuhaitz, ithurri, itzalpe, hegaztin, harmolde, eta lurrak ekhartzen dituen gauza eder orotarik.

Euskaldun maitea, sar zaite baratze eder hartan, eta zero-rrek frogaturen duzu erraiten dugunz egia. Har ezazu Axularen liburua, has zaite irakurtzen, dasta ezazu; eta zaren anhitz ala guti iakintsu, gozaturen duzu, ederretsiren duzu, maithaturen duzu, bethi eskuetarik nekez utziren duzu; eta gero on eginen derazu: haur baita hunen berriz imprima araztean gehienik gutiziatuen duguna.

INCHAUSPE, Apheza.

(*Guerroco guero...*, Edione berria, Bayonan, 1864.)

(1) Ea ez ete eben...

ELIZAMBURU, Jen-Baptiste (L)

(Sara, 1828-1891)

Larresoron eskolatua, soldadu izan zan (kapitain). Sari-keta askotara bialdu zituan bere bertsoak, eta gorenengo sariak jaso. Oso ezagunak dira olako asko gure Errian: «Maria», «Apexa eta Lorea», «Urrundik», «Nere Etxea» (= «Ikhusten duzu»)... Guk emen bi baino ez ditugu emoten, biak zein baino zein ederragoak, eta gairik ezbardinenetan: alde batetik, irria ta umore ona; bestetik, biotzaren negarra... Itz lauz noblela labur bat baino ez dogu ezagutzen: «PIARRES ADAME».

55.—LAU ANDREN BESTA (Amets bat)

1

Igan¹ besta biharamunean,
berek dakiten xoko batean,
Lau andre, hirur mutxurdin, bat alarguna, yarririk itzalean,
—harri zabal bat belhaunen gainean—
hari ziren, hari ziren trukean².

2

Zer othe-duten nik yakin nahi
Pitxarrarekin bertze jaun hori;
zorroa du biribila, moko meharra, tente xutik egoki...
Xahatto bat othe-den nago ni
hanpatua, hanpatua ederki.

3

Yesus! oraino zer dut ikhusten?
Zer hegalpean dute gordetzen?
Egoitza goxo hortarik, burua alto, xahattoaz trufatzen
—bihotzez azkarrago zeren den—
kuiattoa, kuiattoa ari zen.

4

Besta delakotz egun herrian
 aphaindu dire handi-handian
 Ederki gazteen gisa panpinatuak, ez patxada ttikian...
 bihotz onez partidaren erdian
 irriz daude, irriz daude lorian.

5

Handik ximiko, hemendik irri,
 haurrak bezala yostetan ari;
 tartean amodiozko begi-kolpe bat hegalpean denari...
 hitz bat erran gogo diote sarri
 beharrirat, beharrirat kuiari.

6

—Gezurrik gabe goazen, Maria;
 eman yokoan ezti-eztia...
 Hurbil zan untzi beltz hori, dezagun edan trago bat edo bia³;
 bihotza dinat epheltzen hasia;
 harek zuen, harek zuen grazia!

7

Zahagiaren seme yoria,
 nun duk aixtiko⁴ zorro lodia?
 Gaizoa! lehen-birundan xurgatu dautek odolaren erdia;
 orai hor hago, zimur arpegia,
 kokoriko, kokoriko yarria!

8

Seira trux dire zazpietarik,
 tantoz orobat bi aldetarik...
 Erori da xahakoa, mokoz-ipurdi, naski odol usturik;
 kuiattoa hantxe dago etzinik
 azken-hatsa, azken -hatsa emanik.

Nahiz zeraukan azken-eskua,
 Mariak zuen hasi gudua:

—Truk. —Yo zan... Mariak xango, Katixak zaldun, Marixumek
 hirua...

—Marimartin, xoratu zain burua!
 Lauarekin hiruairen keinua!

10

—Ago, Maria, othoi, ixilik!
 Ezdun ikusi nere keinurik.

Xorta bat edanez-geroz, begiak ñir-ñir; zer? ez dun ahalkerik?
 Edan hezaken azkar hortarik
 gatilua, gatilua beterik.

11

—Bazakinagu, tresna makurra,
 Ez dunala hik hatsa laburra.

Ez dun, ez, dionan bezala, horma xurgatuz biribildu muturra!
 ez eta naski gorritu sudurra
 milikatuz, milikatuz elhurra.

12

—Apho, mutxurdin, moko-bipila!
 Zeren ondoan othe-habila?

Hatz badun gibel-aldean ikusiko dun zenbat naizen abila;
 xuhur badun⁵, ago, neska xirtxila,
 ixil, ixil, ixil, ixil, ixila!!!

13

Kartak utzirik eta tantoak,
 hantxe zituzten gero saltoak...

Bakarrik hiruen kontra zer eginen du Marimartin gaizoak?
 Nahiz izan azkar zango-besoak,
 hartu ditu, hartu ditu paloak.

14 (*Ametsa*)

Herriko besta arrats-aphalean,
lau gathu zahar anjelusean:
bat maingu, hirur saltoka, sorgiñak puyés! zohazila bidean,
ikusi ditut nik amets batean
Akhelarre, akhelarre-gainean.

(*A. M. Labayen, «ELIZAMBURU»...*, Donostia, 1978, 206-208.)

56.—SOLFERINOKO ITSUA

1

Harmen hartzera deitu ninduen gazterik zorte etsaiak;
urrundu nintzen, herri alderat itzuliz usu begiak,
itzuliz usu begiak.

2

Zorigatzean baitut ikusi Solferinoko hegia!
Alferrikan dut geroztik deitzen iguzkiaren argia,
iguzkiaren argia.

3

Nihoiz enetzat ez da jeikiren goizeko argi ederra;
zeru gainetik nihoiz enetzat ditziraturen izarra,
ditziraturen izarra.

4

Betiko gaua, gau lazgarria!, begietara zait jautsi:
ene herria, ene lagunak nihoiz ez behar ikusi,
nihoiz ez behar ikusi.

5

Ene amaren begi samurrak bethiko zaizkit estali,
maiteñoaren begitartea behin betiko itzali,
behin betiko itzali.

6

Larrainetako haritz, gaztaina, mendietako ithurri;
horiek oro enetzat dire amets histu bat iduri,
amets histu bat iduri.

7

Ene herrian, gazte lagunak kantuz plazara doazi,
eta ni beltzik, etxe zokoan... irri egiten ahantzi,
irri egiten ahantzi!

8

Oraino gazte, gogoz ez hoztu, eta biziak lotsatzen;
Dohakabea! Zer egingen dut, Jaunak ez banu laguntzen,
Jaunak ez banu laguntzen?

9

Ai, aski hola! Jainkoa, barka! Begira zure haurrari,
kotsolamendu zerbeit emozu: noizbait duzun urrikari¹,
noizbait duzun urrikari.

(«SALABERRI»)

(1) Erruki zaitetz.

57.—PIARRESEN OMORE ONA BIDEAN...

Piarresek historio hori akhabatu zuenekotz, Azkaingo herri-
ritik hurbil ginen, eta herri hortara heldu baino lehen, iragan
behar zen erreka luze batean ginohazilarik, bidean ginuen man-
dozain bat, bi mando zahar kaprestutik zaramatzana ikhatzez
kargatuak.

Nola gehienek ezagutzen baitzuten Piarres Adame, eta nola Piarresek ere ezagutzen baitzituen gehienak, gapheluak khendurik elkharri agur erran ginuenean, ikhazkinak erraten du:

—Bagabiltza, Piarres?

—Ba, bagabiltza; zuek ere ba? (Dударik gabe Piarres mandozainari eta mandoeri mintzo zen denbora berean).

—Urrun goazi hola, Piarres?

—Holaxe... holaxe... norbaitek galdetzen badarotzu, aski duzu erratea ez dakizula.

—Semea duzu aldeko muthiko hori?

—Ez, alaba.

—Ori, fortuna du.

—Zertako?

—Zeren, zurea balinbada, semea izan dadin, edo izan dadin alaba, ez baitu aitaren egiterik.

Piarresek, ezpainak zimurtuz, ezarri zuen pika hori sake-lan; ez ordean hargatik erortzera utzi, ikhusiko dugun bezala...

Aphur bat ixilik egon eta, gure mandozaina bideari berriz lothu zenean, Piarres oraino gelditua, hasten da oihuka, erhiaz gibe-leko mandoa erakutsiz.

—Behautzu! behautzu! higitzen da! erortzera doa!...

Mandozaina orduan, ustez zaku bat mandotik erortzerá dohakon, badoha tarrapatata gibe-leko mandoaren aldera, erraten duelarik:

—Non? Non?

—Hor! dio Piarresek, hor! Zer! ez duzu bada ikhusten higitzen dela? Eta, denbora berean, erakusten dio mandoaren buztana...

Orduan, utzirik gure mandozaina ez dakit zenbat mila orgaz eta debruz mintzo zela, guan ginen aitzina, segurki Piarresek irri ederrik egiten zuelarik.

Urruntxago, bide zaharraren aldeko ur-erreka batean, hiru emazteki hari ziren bokhata yotzen. Biek altxatuak zituzten zaiak edo soinak belhaunez goraxago, bainan ez modestia sobera kolpatzeko gisan. Hirugarrenak, mehe eta luxe bat baitzen, halako sei-hal beltz batez estaliak eta gordeak zituen aztalak.

Egun on erran eta, Piarresak, oharturik'berehala sei azta-
len ordean lau zirela ageri, bidean trikaturik, eman zioten ber-
tsu bat hamahiru pontuko aire zahar batean hiru emazteki ho-
yeri.

Huna bertsu hura:

—Egun ni naizenean Azkainerat hurbildu,
Hiru Graziak naute bidean gelditu;
Biek erakutsiak batek gorde ditu...
Ez zituen gordeko ederrak balitu?

Piarresak ez zuen oraino errana bertsu horren azken hi-
tza, emazteki mehe eta luxe hori hasi baitzitzaien zer nahiren
erraten eta erraten, erakutsiz behatzak eta ukhabilak, bertze bi
emaztekiak irriz kar-kar zarotzilarik.

(«PIARRES ADAME», 16-17.)

ELIZAMBURU, Michel («Frère Innocentius»)

(Heleta, 1826 - Hazparne, 1895)

Elizamburu olerkariaren lengusua. Lasalletarra, Hazparneko ikastetxean 44 urtez zuzendari.

Liburuak: 1) «Zer izan diren eta zer diren oraino Framazonak munduan» (1890): *Frantziak izandako 3 Errepubliken historia sutua.*

2) «Lehenagoko eskualdunak zer ziren» (*Bayona, 1889*): *berak umetan ezagututako euskal errietako bizimodu beartsu ta garbia.*

3) «Joanes Batista dohatsuaren Bizia» (1891).

58.—LEHENAGOKO ESKUALDUNEN ZUHURTASUNA BEREN JANEAN

Bethi danik Eskualdunak arrunki bizi izan dire.

Jadanik adin bat dutenek, ez ahal dute ahantzi zer orthunzak¹ egiten zituzten beren haur denboran.

Gosalzeko edo haskariteko, komuzki artho eta xingar zuten, sori zenetan.

Balin bazen familian haurride mulxoa, guziak emanen ziren zartain baten inguruan, eta han bustiko zuten artho zerra xiortua², bai eta handik hartuko beren xingar tranxa³ arras ttipia.

Orzirale, larunbatetan, artho eta esne zuten ukhaiten.

Haurrek ez zakiten orduan galdegiten ez xokolatik, ez café-esnerik, ez eta esne sukrestaturik, non ez ziren eri.

Amen mainak erientzat ziren beraz bakharririk. Nor ez da orhoit aditurik erraten, bere adineko zenbait haurreri: «*Nahia-go nukek eri banitz, gauza onetarik jateko?*».

Haurrek haur elhe, bainan hola mintzo ziren, ez baitziren orai bezala gastatuak.

Bazkaria, haskaria bezain arrunta zen.

Haragi salda ez zen ikhusten etxetan bestaburuetan baidzik, eta ez orduan ere bethi.

Kozinattoa⁴, aza, ilhar eta lur sagarrekin egina zen orduko gehienen haragi zopa.

Gero salsa batetarik, edo jaki puska bat, zertarik nahi, arthoarekin, eta azkenean ogi ahamen bat, ahoaren garbitzeko: horra denbora hartako aphairu prinzipala.

Hola egiten zen, Eskualdun gehienen familietan, heyek izanik ere aise suerte batean.

Bai, orduko Amek, zenbait aldiz aberatsek berek, bazakiten arroltze fritu baten bi, lau zatian ezartzen, bi, lau haurrentzat.

Gasna ere hain mehe pikatzen zuten non haurrek erraiten baitzuten irriz amari: «*Ama, gasna hunek argia pasatzerat uzten du, eta zu ikhusten zitut, hau ezarririk ere begien aitzinean*».

Esnea giristinoa zela, erran nahi baita ongi batayatua, zuten oraino irriz haurrek erraiten.

Zenbait aldiz Amak behar ere zuen hau aditu: «*Ama, egun behi beltza (pearra) ongi deitzia izan da*»; edo: «*Ama! ur hunek esne guti du*», eta ez esne hunek ur guti du.

Janaren araberakoa zen edaria, erran nahi dut ithurriko ur garbia eta freskoa zela maizenik orduko jenden arnoa.

Neguan balinbazen mineta⁵, eta udan pitarra⁶, sagar xior-tuz egina, nihork ez zuen amentsik egiten berze edaririk ukhan zezakela, non ez zen Eliza-besta edo bertze zenbait egun handi.

Pobreak egundainotik bizi izan dire, bazter guzietan, ahal duten bezala, eta pobrez behar dire aditu jende nekatzaileak.

Ezagutu dut hetarik bat, egun guziez peonzañ⁷ zabilana.

Diru guti zezaken aldara⁸, aise da asmatzeko, bere jornal mehetarik, eta ez bide zuten harren haurridek ere harrek baino gehiago bazterrerat ematen.

Gure gizonak molsa hutsa bazuen ardura, bederen bethi zuen bere umor ona beirutzen.

Goiz batez, askaldu behar zuela, hartako oreña ethorria baizen, hor abiatzen da, armairuak idekiz, zerbaiten xerkha, bainan ez du deus ere hatzematzen, salbu artho erdi baten heina. Hartarik zerra bat pikatzen du eta gero badoha baratzer, arrosa baten bilha. Uda zen.

Beraz paratzen zauzu bortha aitzinean, bere artho hutsa eta hotza esku batean, eta arrosa berzean.

Handik iragaiten ziren ezagunetarik batek dio erraten: «*Zer ari haiz, Manech?*»

Manekek errapostua: *Haskaiten ari naiz.*

Ezagunak: *Zer duk haskaiteko?*

Manekek: *Huna zer dudan.* Denbora berean du arthoa ausikitzen eta arrosa usaindatzen...

Manecheen herritik bi legua urrun den bertze herritto bate-tako Jaun Erretor ona deithua izan zen gizon adinetako eri ba-ten gana. Jaun Erretorak, bere ministerio saildua bethe eta, erran zion erriari, ikhusiz zoin ahul zen: «Behar zinueke xokolet prisa⁸ bat hartu».

Eriaren arrapostua hau izan zen «Jaun Erretora! ez dut egundaino xokoletik jastatu, ez dakit beraz zer den, eta gure etxean ez dugu xokoletik».

Jaun Erretorak igorri zakon prisa bat, eta hark ez bazuen sendatu gure eria, bederen erran ahal zuen Jaun Erretorari, bi-haramunean, xokoleta gauza ona zakola, eta behin bederen xokoleta harturik, jua zen mundu huntarik bertzera.

(«Lehenagoko Eskualdunak zer ziren», Bayonan, 1889, 10-13).

(1) Othuruntza, jatordu. (2) Prijitua. (3) Tajada. (4) Lapikokoa. (5) Ur-ardao. (6) Sargardo txarra. (7) Pioetzan. (8) Aurreztu. (9) Katilu.

Gratien Adéma «ZALDUBY»

(Senpere, 1828 - 1907)

Guraso erdaldunen seme au abade izan zan (Hazparnen, Bidarrain, Atharratzen...) eta, azkenean, kalonje Baionan. Euskera eta euskal gauza guztiak maite-maite zituan. Neurtitz eta doinu sortzaile, bere olerkiak astiro eta kontuz lantzen eta apaintzen zituan. Gai askotan agertu jakun nausi: erlejino, alegiak, sorterria, euskal oiturak, t. a. Lanik geienak «RIEV»-en argitaratu zituan.

59.—XURIKO

1

Mehetegiko xahurra
Zangoz, errainez makhurra,
Berga bat luze muthurra,
Larrutik hurbil hezurra,
Urthe guzia barura,
Zeren den toki xuhurra.

2

Amak ttikitik utzia,
Esnerik gabe hazia,
Tripa errainer josia,
Uliek jaten hasia;
Xurikok bere bizia
Hola derama guzia.

3

Mahainpetik kokoriko,
·Begira dago Xuriko
Artho axaltto bat noizko
Othe zaion eroriko,
Nausiak ematen daizko...
Doan hortik bi ostiko!

4

Xakhur gaixoa holakoz
 Merke ase zutelakotz,
 Tripa hutsik, ilhun gogoz,
 Pleinuz¹ zagon egun oroz;
 Hatzka zangoz eta besoz
 Nihun ez zauken kukusoz.²

5

Ohoinak ere noiz-nahi
 Horren sainga³ ilhaunari
 Gabaz ziren irriz ari:
 «Xakhur prestua, hi haiz, hi!»
 Gero ixiltzea sari,
 Jo harrika gaixoari.

6

Egun batez baratzera
 Huiatzen⁴ dute lanera,
 Doan oilo haizatzer...
 Xakhur gose-ta-minbera,
 Buztana tripaz behera,
 Ihes doa gordetzera.

7

Martin etxeko muthila,
 Zalu harturik makhila,
 Haren ondotik dabila.
 Xuriko xakhur habila
 Lastoan ixil ixila
 Dago alegia hila.

8

Zenbeit egun gau bakharrez
 Gorde egonik herabez,
 Athera zen jan beharrez,
 Hamikatua, nigarrez,
 Estalia zaragarrez
 Lakhastaz eta zakhharrez.

9

Sukaldean nihor ez da;
 Sartzen da xakhur herresta.
 Errekia zen prest presta,
 Zeren zen herriko besta.
 Usain, milik'eta jasta,
 Dena jaten du has eta.

10

Etxeko andre khexua
 Hor heldu da hats-hantua⁵
 «Zakhur madarikatua,
 Eia, hor usu usua,
 Nik hauts artean burua,
 Egik hire ordenua».

11

Ordenuak hau du beltza,
 Denen uztea bertzentzat;
 Xurikok badaki ontsa
 Nori zer utz, nola phentsa;
 Etxekandreari gantza;
 Nausiari azken putza.

12

Bizian gosez egonik,
 Hiltzean sobera janik,
 Huna Xurikok erranik
 Zer entzun dugun azkenik:
 «Gose dagonaren ganik
 Ez daitekela lan onik».

(«Kantuz», Bayonne, 200-202)

(1) Negarrez. (2) Ardi, arkakuso. (3) Ausi, zaunka. (4) Axaxa-
 tzen. (5) Arnas-oska.

60.—1875 ean, JUBILAU URTHE SAINDUAN, LURDESE-
RAT ETA BETHARRAMERAT EGIN GINUEN PELE-
GRINAIA

Sekulan ezin ahantzizko egunak guretzat 1875eko Bazko biharamun eta hirugarren hek! Lurdesen ginen hamar bat mila pelegrin, Baionako diozesaren bazter guzietarik harat bilduak: denak gizonak; erdiak eta gehiago, Eskualdunak.

Gure Jaun Apezpikuak oihu eginik, hura hara zoala, eta eia bere diosesako gizonetan bazenetz hari jarraiki nahirik, bortz edo sei mila Eskualherri xoiletik bildu ginen haren gana.

Burdin bidez ez da gaitz horrelako bidaia baten egitea. Burdin bideek, ordean, ez dute ukhitzen Eskualherriaren hegalto bat beizik. Baigorrik, Aldudek, Garaziko herriek urrun dituzte burdin bideak. Zuberoko zokhoetarik abiatzea aree gaitzago da. Halere, bazter hoietarik guzietarik, hamarka, hogoi-ka, ehunka athera ziren gizonak... eta zer gizonak!

Ikustekoak ziren bidean zohatzila; beren fededun kopeta hein bat gorarik; beren gurutze gorria papoan; arrosarioak eskuan; gehientsuak oinez, beren hamar, hogoi lekhoen egiteko... Bedere horiek ez zuten eskualdunen odolik ukhatzen.

Baigorriar, Aldudar, Garaztar eta Zuberotar gutiz gehienek, beren oinez egin zituzten beren 60, 70, 80 kilometrak, batzuek Baionako gararaino heltzeko, bertzeek Puyorat eta bertze zenbaitek Paubera eta Lurdesera berera biltzeko.

Oinezko pelegrin horietan baziren zenbeit 70 urthez goitikoak. Adin hortako batto Donapaleotik Lurdeserainoko jua jinean oinez bezik ez zen ibili. Orobat Santangraziatarretarik batek, Bazko igandetik Asteazken arrats artean, 74 urthetan, oinez egin zituen bere 87 kilometrak Lurdesera berera, eta bertze hainbertze etxera...; eta biharamun goizean goiz alhorrean zen iraulden¹ ari.

Adin bertsuko Baigorriar batek, bizkar eta errainak dolo- rez makhurtuak izana gatik, Baionarainoko bere 55 kilome- trak, bai harakoan bai etxerakoan, hark ere oinez egin zituen.

Anhauztarrena da ederra.—Beren Jaun Errotora aintzine- ko, herriko gizon higi ahal guziak pelegrin ziren, eta oro oinez Baionako harat hunateko 120 bat kilometretan.—Bide guzian othoitzean eta kantaz ibilirik, Asteazken arratseko hamar ore- netan, Ama Birjinaren letaniak errepikatuz heltzen ari ziren

Anhauzeko plazara.—Han berean arratseko othoitza elgarrekin egin eta erretiratu ziren beren etxetara.

Bazko biharamun arratsaldean, hiru orenetako, guziak Lurdesen ginen. Gero zen ikustekoa gure proasionea.

Lurdeko garatik harpe saindura baita urrats onez oren erdi baten bidea segurik, halere bide handia eta karrikak ez ziren aski zabal gure aise kokatzeko. Metan eta sorkhan² bezala ginohazin othoitzean eta kanta errepikaz, gure herri nausietako banderekin eta gure hiru ehun aphez xuriz jauntziekin.

Grotara heltzen ari ginelarik, gure Jaun Aphezpikua eta Tarbeskoa, biak bildu ziren gutara. Ordukotz iguzkia sartzera zohan. Harpearen aintzinean bazen aldare bat, eta sahetseko etxe tikiaren kaskoa baliatu zen predika lekhitzat.

* * *

Lehenik entzun ginuen prediku bat frantsesez Aita Dominikano batek eman zuena, zointan eskualdunen Fedeaz eta Fede haren ohoreaz asko erran baitzuen. Prediku hori akhabatzearekin, gure Jaun Aphezpikuak aldarerat iganik, eman zeraukun Sakramendu Sainduaren benedizioena.

Ja ilhuna zen osoki, eta hamar mila pelegrinek, bakhotxak gure argia eskuan ginaroan. Handik harpeko mendiari gora abiatu ginen lerroz lerro eta kanta errepikaz proasionean. Grotaren gaineko elizaren ingurua eginik, hola hola hedatu ginen Lurdeserako bide zabalean, gero bethe ginuen hiriko karrikarik luzeena, eta azkenekotz koka ahal guziak batera bildu ginen plaza-nausiaren barnera. Han akhabatu zen gure gabazko eta argidun proasionea.

Batzu gan ziren beren deskantsuaren hartzeko tokietara; bertzeek lo egin baino nahiago izan zuten gau hura guzia beilatu Basilikan berean. Eta hainbertze jendeen artean ez oihu bat, ez den gutieneko desordre bat!...

Gauerditik goiti, Basilikako hogoi eta bortz aldaretan, gure Jaun aphezak hasi ziren beren Mezen emaiten, eta lehen Mezatik hasirik, mahain sainduetan, komunioneak ez ziren baratu nunbeit han, zazpi orenak artio.

Goiztiri dohatsu hartan, ez zen hango debozionearen parerik. Orduan ez ginuen bertze deusez phentsatzen gure Jainkoaz, gure Jainkoaren Amaz eta gure arimez baizen.

Bihotzeko bakeak, amodio Jainkozkoak, Maria Birjinaren
ager lekhan ginela orhoitzeak, gure Salbatzaileaz gozatzeak,
batzuek bertzeeri han ematen ginuen ikusgarri ukhigarriak...,
horiek guziek ezartzen gintuzten bertze mundu baten erdian
bezala oro loriatuak...

(«Escualdun Pelegrinaren...», 88-94)

(1) Goldaketan. (2) Bultzaka, alkarren gainean.

LAPHITZE, Frantzisko

(Arizkun, 1832 - Buenos Aires, 1875)

Baigorri eta Alzain abade, gero Betharramiten Ordenan sartu eta Ego-Ameriketara misiolari ibili zan...

Liburua: «Bi saindu hescualdunen bizia: San Iñazio Loiolacoarena eta San Franzisko Zabierecoarena» (Bayona, 1867): *euskeraz idatzi izan diran liburuen artean ederrenetarikoa ei da, Villasanteren ustez. Lafittek eredutzat jotzen dau Laphitzeren idazkera indartsu, bizi ta zuzena.*

61.—(IÑAZIO ETA ZABIER PARISEN)

Parisen, eskoletako nauzi guzien artean ethorkizunik ederenekoa, Nafartar bat zen, filosofiaren erakustle Bobeseko eskol-etxean. Haren berri entzunik, ikhusterat jua zitaia Iñazio. Haren mintzaire garbiak, haren itxura begikoak, haren jakitatate hedatuak, ispirituko eta gorphutzeko haren dohain ederrek atxiki zuten, eta behin baino gehiagotan erranarazi zioten: «Zer apostoluaren geia!»

Handik harat, oren on baten beha zagon Nafartarrekin solhasean sartzeko.

Franzisko Zabierakoa aitaren aldetik Garaztarra zen, amaren aldetik Baztandarra. Jatsuko Jauna zuen aita, Azpilkuetako andrea ama. Zabiereco jauregian sorthu zen, Aphirilaren 17an, 1506an. Zabierecoa deitzen dugu, Zabiereco jauregia bere etorkia zuelakotz; Jatsuarra deithuko ginuen bertez naz.

Ttipi ttipitik ikhasteko gutzia handi bat erakutsi zuen Franziskok, eta hemezortzi urthetaratz zenean, aita amek Parisera igorri zuten eskola handien egiterat. Juan Peñaren eskolier sarthu zen Santa Barbarako eskol-etxean, eta etxe berean hatzeman zuen bera iduri lagun bat, adin berekoa, thalendu berekoa, ez hatik sorterro¹ berekoa. Hura zen Piarres Lefebre, Geneba aldekoa, Billareteko laborari pobre baten semea (...).

Iñazio Loiolakoak laster beretu zuen Piarres, bainan Franzisko nihondik ez zezaken bil. Iñazio zonbatenez amultsuago, Franzisko hanbatenez bihurriago; Iñazio bethi Franziskoren ondotik, Franzisko bethi Iñazioren ihes; Iñazio bethi

Jainkoaz Franziskori, Franzisko bethi munduaz Iñaziori; Iñazioren errankizun sainduer Franziskok bethi irri eta trufa. Piarresi anhitz pena zitzaion ikhustea alde batetik hainbertze karitate, bertzetik hainbertze hoztasun; alde batetik hainbertze solhas gozo, bertzetik hainbertze atheraldi idor.

Saindua hurbilagodanik ikhusiz irriak sarthuko direlakoan, Franziskori erraiten dio egun batez:

—Ontsa nahi nuke Iñazio hirugarren hartu gure ganbararat.

—Zuk hala nahi baduzu, ihardesten dio Franziskok, hala nahi dut nik ere. Gauza bat behar diogu hatik hitzemanarazi.

—Zer bada, Franzisko?

—Egunaz ez bada, gauaz bederen ixillik utziko gaituela.

—Ez dut uste, Franzisko, lo egitetik baratu nahiko gaituen.

—Baditeke; bainan on da jakin dezan ez dugula gauaz haren erasiaren beharrik.

Irri bat egin zion Piarresek. Bere adixkide maitearen saindu baten eskuetan ikhustek handizki boztu zion barnea, eta bihotzaren zolan eskerrik handienak eman ziotzan Jainkoari.

Hirurak batetarat zirenean, Iñazioren erranak egundaino baino alferrago; Franzisko bethi bere hartan. Mila aditzailen laudorioz lilluratua, nola entzun zitzazken bertze munduko solhasak?

—Zer ari da gizona, erraiten zion Iñaziok, mundu guzira irabazirik ere, arima galtzen badu?

—Zer ari da gizona, ihardesten zion Franziskok, goiz arrats predikaturik ere, ez badu nihor konbertitzen?

Etsiaraziko zion bertze bati, Iñaziori ez zion etsiarazten. Franziskoren elhe batzuetarik iduritu zitzaion Iñaziori, egun ez bazen bihar, bihar ez bazen etzi, eskuratuko zuela. Hortakotz, eztiki jokhatzen zitzaion, larderia gaxtorik gabe, ile ² alde ahal bezenbat: Franziskoren naturaleza minberak hala behar bide zuen.

Juan de Madebarekin gerthatu zen batez, Franziskok aipatu zion ganbarako hirugarren lagunaz, bertziak ez bezalako zela, bizitze garratz bat zeramala eta ontsa jakin nahia zela nor othe ziteken.

Juan de Mandebak ihardetsi zion:

—Zer? egun oroz ikhusten duzu eta ez dakizu nor den?

—Ez, ez dakit; egundaino ezin erranarazi diot.

—Loiolako seme gaztena da... erregeren gortheko lilia, Naierako hirian lehen sarthu dena, Iruñen hain lorioski erori dena... Bere jendek hainbertze egin diote eta egiten, ez dadin ibiltzen den bezala ibil, eskale baten hatu guzietan, mundu guzietan irrieginarri...

Ganbarako laguna nor zuen entzutean, harritu zen Franzisko. Bere anaietarik jakina zen Iñazio Loiolakoaren berri; Iñaziorekin egonak ziren gorthean, harekilakoa bazagokaten, eta bertzalde Loiolako eta Zabiereko familiak bethidanik elgarrekin bat ziren. Etxean sartzean, Iñaziori galdatu zion Loiolatarra zenez. Iñaziok aithortu zion hala zela. Oi! orduan Franziskokoren urrikia, Iñaziori hala jazarririk! Iñazios jostailu bat eginik! Handik harat ez zuen aski laudorio Iñazientzat; haren eztitasuna, haren umiltasuna, haren karitatea, mihian zituen bethi.

Haren berthuteak goستن zituen arren, ez zuen oraino imitatzeke gogorik. Jainkoaren graziaz higitua zen Franzisko, inharrosia zen, herxatua zen, bainan ez zen garrhaitua. Erroak barna dituen arbola bat ez du edozoin haize-kolpek lurreratzen. Bihotz suhar batean munduko lokharrien hausteko, lan behar da eta denbora. Iñaxiok ez zuen Franzisko bere itzalak baino gehiago uzten. Setiatua zagokan, batean behatze ezti batez, bertzean hitz sarkhor batez, ardura hitz hautaz: «Zer ari da gizona mundu guzia bereturik ere, arima galtzen badu?».

(«Bi Saindu hescualdunen bizia: San Iñazio Loiolacoarena eta San Franzisko Zabierecoarena, Bayonan, 1867, 122-127).»

(1) Jatorri. (2) Ulearen aldera.

JOANNATEGUY, Bazilio

(Isturitz, 1837 - Lazkao, 1921)

Aita beneditarra, Belloc-en eta Lazkaon. Fraide sartu aurretik, abade izan zan Saran eta Altzain. Loari kenduta, ordu asko emon eutson euskal lanari. «Au dut euskal idazleetan maiteena...» (ORIXE).

Liburuak: 1) «Ehun bat Sainduen bicitcea» (Bayona, 1876).

2) «San Benoaten bicitcea» (Bayona, 1887)

3) «Sainduen Bizitzea», 2 lib. (Bayona, 1890; Pau, 1900).

62.—SANTA ESKOLAZTIKAREN AZKEN ALDIKOTZ IKUSTEA...

...Jadanik heldua zelarik, beraz, hil behar zen urthera, otsailaren seian, athera zen (san Benoat) komentutik, fraide lagun batzuekin, eta jautsi zen mendi mazelan zuten etxe ttikira. Hura zelakotz santa Eskolaztikarekin mintzatzeko hitzartua zuten eguna.

Ez dugu zeren erran, santa Eskolaztikak etzuela huts egin harat joaitea eta han izatea Anaia baino lehen.

Bertzalde, hala san Benoatek, nola haren arreba sainduak, biek bazakiten etzutela gehiago elkar ikusiko mundu huntan.

Hala-hala, egun hartan guzian, etzuten bertze solhasik izatu, baizik ere zeruaz, eta sainduak zeruan duketen zorionaz.

Arratsalde aphalean¹, ordukotz egina zutelarik halako orduetan egiten ohi zuten othuruntza ttikia, san Benoat xutitu zen, bazohala komenturat.

Eta nola Eskolaztika eta haren lagunak aintzina ere jarririk baitzauden, gure Aita loriosa hari zen bere gogoarekin, zergaitik etziren hek ere abiatzen, arrebak erran zionean, zerutiar izpiritu baten mintzo ezti eta maitearekin:

—«Beira, nere Anaia ona, etzaitzu, othoi, gaitzitu behar, zuk nahi etzinuken galde bat egiten badautzut. Badakizu ez dautzudala bertzerik eginen. Othoi, beraz, sinhets nazazu: Nahi nuke, baitezpada, gau hau guzia egoten bagine elkharrekin. Behar gare mintzatu, bihar goiz-arteraino, zeruko atsegi-nez eta zorionaz».

Ustegabeko galde horrek harritu zuen Benoat saildua. Ezen ikusten zuen, gabaz komentutik kanpo egotea, eta hori arrebari atsegin egiteagatik, Erregelaren haustea zela; eta, ordu berean, irakaspen txar baten ematea fraide guziei. Ihardetsi zion, beraz, bizi-bizia:

—«Zer tutzu² solhas horiek? Zer iragan zaitzu burutik, holako galde baten niri egiteko? Zergatik galdegin, onhets ez dezakedana?».

Eskolaztikak bazuen aski entzunik. Bazakien arras ongi, haren anaiari gauza baten galdatzea behin edo hamarretan, batera zohala; etzela hura gizona, egiteko bertze baten atseginaren gatik, kontzientziak onhartzen etzion gauza.

Eta bizkitartean, nahi zuen, oraino ere, mintzarazi Jainko Jaunaz, zeruaz eta zeruko gauzez. Zeren eta, ordu arteraino erran ziozkanek ez baitzioten bertzerik egin, baizik ere hazi eta hazkartu Jainkoaren amodioa, eta su handiago batez sutan ezarri bihotz guzia.

Sainduak bere eza erran zioneko, beraz, pausatu bere bigeskuak mahainaren gainean, eta gorde zuen begitartea, hekien barnean, hobeki othoitz egiteko.

Harrek burua aphaltzean, zerua dena izarrez bethea zen, eta etzen nihon edoik xumerena ere ageri. Eta halarik ere, othoitz labur bat egin-eta, burua altxatu zuenean, edo hobeki errateko, harrek burua altxatzearekin batean, jadaneko denbora belztua zen, ximixta ikharagarri batzuk joan nahi zuten begietako argia, ihurtzuriak hari ziren karraskarik handiengan, eta uria ere hari zen jauts ahala-jauts.

San Gregoriok dio, emakume saildu harrek mahainaren gainera zituen nigarrak zirela hedoi eta uri bilhakatu.

Jainkoaren zerbitzari handiak ikusi zuen halako ihurtzuri eta ximixtekin, eta halako uri ikharagarriarekin, etzitekela etxe hartarik athera. Bainan eman zion aditzera arrebari, etziola atseginik egin, hitz hauk erraten ziozkalarik:

—«Jainko Jaunak barkha dezautzula zure lana! Bainan errazu, zer haritu zaizkit?».

Eta santa Eskolaztikak ihardetsi zion, irri ezti bat egiten ziolarik:

—«Ni zer haritu naizen? Huna: othoiztu zaitudanean eman zinezadan gauza bat, atseginik handiena egin behar zaro-

tana, badakizu nola hartu nauzun. Orduan hersatū³ edo adrezatu⁴ naiz Jesus Jaunari, eta horra nola Jesus Jaunak ihardetsi duen nere galdeari. Orai, beraz, athera zaitte, ahal baduzu! Utz nazazu ni hemen, eta zu zohazi zure komenturat».

Nahi-eta-ez, san Benoatek ezagutu zuen Jesus Jaunak maite zuela handizki haren arreba saindua, hain laster onhetsi zuenaz geroz haren othoitza. Eta egin zuen bere baithan, Jainkoaren nahia zela, gau hura han berean iragan zezan...

(«*San Benoaten bicitcea*», Baiona, 1887, 123-126.)

(1) Illunabarrean. (2) Dituzu. (3) Otoitz egin, eskatu. (4) Zuzendu.

LAPEYRE, Estebe

(Askain, 1840-1930)

Kalongea. Izlari sutsua, idazle argi ta bizia.

Liburua: «Credo edo Sinhesten dut Esplikatua...» (*Bayona, 1891*): *liburu onek sekulako astinaldi mesedegarria emon eitsan Villasante gazteari...*

63.—MARTYREN LEKUKOTASUNA

Hauna bertze lekukotasun bat oraino, eta hunen indarra ez du naski nihork ukhatu nahiko. Hura da martyren, edo Jesusen Erlijionearentzat eta Elizarentzat bere odola eman dutenen lekukotasuna.

Gauza osoki ageria da, Apostoluek predikatzen zuten Erlijione garbiak lurrerat nahi zituela eman, denbora hartan segitua ziren erlijione tzar eta faltso guziak.

Erlijione berri horrek asaldatu phiztu behar zuen ordutik, gorphutzen eta arimen nausi bere burua zagokatenen herra.

Hala hala ere gertatu zen.

Haste hastetik, Jesusen Erlijionea Juduez pertsekutatua izan zen. Zer ez zuten egin, Erlijione horren bere sehaskan berean ithotzeko?

Predikatzen hasi zirenean Apostoluak, erran ziotenean Judueri, kurutzean eman zuten Jesus hura Jainkoaren Seme Eternala zela eta bera Jainko, Aita Jainko den bezala, eman zituzten presondegietan. Nahiko zituzten ixil arazi. Bainan huna zer ihardesten zuten: «Hobeago da Jainkoari ezen ez gizoneri obeditzea».

Elizaren lehen mendeko ixtorioak erraiten dauku nola bere bizia eman ez eta bere odola ixuriz, Apostoluek Jesu-Kristori lekukotasun bihurtu zioten. Nork erran dezake, gero ondoan hirur ehun urthez, zer odol ibaiak ixuriak izan ziren eta zenbat mila eta miliun girstinoek heriotzea jasan zuten Jesu-Kristorentzat eta haren Eliza Sainduarentzat!

Aita Saindu, Aphezpiku eta Aphezek; aberatsek eta et-horki handikoek, hala nola jende arruntek eta pobreek, zaharrek eta gaztek, haurrek berek, hala nola Agnes birjinak, gogo

onez, bozkario handirekin bere bizia emaiten zuten Jesu-Kristoren amodioa gatik.

Galdegiten zioten: —Giristino zare?— Bai, giristino naiz.

—Ernega zazu Erlijione berri hori; adora zatzu Erromak adoratzen dituen Jainkoak, eta bizia salbo izanen duzu.

—Giristino naiz, zuten erraiten, eta ez dut ezagutzen ez adoratzen Jainko bakar bat baizen, hirur presunetan; Aita, zeruaren eta lurraren Egilea; Semea, gure erosteko eta salbatzeko Gizon egin ondoan, kurutzearen gainean hil dena; Izpiritu Saindua, bere graziez hazkartzen eta saindutzen gaituena.

Giristino naiz! Hori zen, Erromako Emperadoreek gobernatzen zituzten bazter guzietan entzuten zen hitz ederra.

Hitz hori heriotzea zen, herrak eta errabiak asma zetzazketen tormenta izigarrienen erdian, bainan ere zer lekukotasun ederra eta gloriosa Jesu-Kristori eta Jesus-Kristoren Erligioneari!

Espantituak zagozin paganoak. Giristinoek aldiz bozkariekin bere triunfa kantatzen zuten: «Eman gaitzatzue zathitan, zioen Tertulianok, phorroska eta leher gaitzatzue; zenbatenaz gehiago gutarik hilen baititutzue, hanbatenez gehiago izanen gare; martyren odola, giristinoen hazia da».

Eta hain zen handia, Jesu-Kristorentzat hiltzeko giristinoek zuten kharra, non Dioklezien Enperadoreak erraiten baitzuen: «Zer egin dezakegu gizon hoikien kontra? Gogo onez eta bozik dohazi heriotzerat: *illos libenter mori solere*».

Eta zertako horiek guziak? zertako persekuzioak, juyamenduak, heriotzerat kondenatzeak, tormenta izigarriak? Legeen kontra giristinoek zerbeit egin zutelakotz? Ez; giristino ziren; ez zuten nahi Jesu-Kristo bere Nausia, bere Salbatzailea eta Jainkoa arnegatu. Hori zen hekien krima guzia eta bakarra.

(«Credo edo Sinhesten dut esplikatur», Baiona, 1891, 328-331.)

(Zaro, 1841 - 1905)

Hazparneko misionisten buru izan zan; sermolari ona. Bere idazlanetan erlejino gaiak erabili zituan, baina euskal sutan irakiten beti.

Liburuak: 1) «*Bokazionea edo Jainkoaren Deia*» (Lille, 1887); 2) «*Erlisionea...*» (Lille, 1890); 3) «*Igandea edo Jaunaren Eguna*» (Lille, 1895).

64.—AITZIN SOLASAK

Zertako liburu berri hau? Lehenik eta oroz gainera Igan-deari dohazkon eginbide premiatsuak xehetasunekin aiphatzeko, eta bertzalde gure Eskual-Herri maitearen mintzai eta ohi-tura onak, gure ahal tipiarene araura, hazkartzeko.

Deus ez da lakhetago, jakitate aphur bat eta lan-arte duenarentzat, nola baita ikhustea Eskuara zaharra eta Erdara gaztea elkarri parrean emanik, bat ala bertzea den othe hobeago.

Orduan da ageri gure mintzaya zoin den aberatsa, bai frantsesaren aldean, bai eta bertze edozoin erdaren aldean. Ez dugu zeren ahalge izan gure mintzayaz. Izan dire eta badire gizon jakintsunak, beren bizia holako lanetan higitu ondoan, berrogoita hamar mintzayetaraino ikhasi-ta, goraki erran izan dutenak, asko eskualdez eskuara oroen nausi dela; nausi iraupenez, ba eta erran gogo duenaren arabera hitzen moldatzeko erretasunaz, eta bereziki mintzatzeko eta izkribatzeko moldeaz.

Izkribatzeaz den bezenbatean, Eskuarak ez bezalako trabak ditu Frantsesak jende arrotzarentzat.

Hortakotz behar dugu eskuara atxiki, begiratu galtzerat utzi gabe, eta ahal badugu oraino azkartu eta hedatu.

Dugun orok gure ahala egin gure herritarrerri hemengo mintzaya maitha-arazteko, eta arrotzeri ere ahalik hobekiena ezagut-arazteko (...)

Bai, erdarez noiz-nahi mintzatzeko errebeskeriak errekarat garamatza eta makhur horrek diraueno, gure eskuara egunetik egunera galtzerat dabilke.

Nola daite bertzela? Erdaratar horiek gure bilkhura guzietan dathozi, erdi *frantses* eta erdi *gaskoin*; hastean ez deraue nihork irri beizik egiten, delakotz heyen elhea nahasia bezain bitxi; bainan hek ez dire lotsatzen! Ergelkeriari datxeko thema, eta ihesi joan behar orde, listorburrunba horiek darraizku bethi, erdara dariotela. Nik uste lotarik ere erdaraz amesten diren; eta ahalik balute, gauaz ere lethorzke berdin gure beharrietara.

*Xoriek nahi dute kayolatik ilki,
Lilieek ere noizbait jastatu iguzki!*

Horrelako hainitz dagozi gutartean eta kalte frango egiten herriko mintzayari. Eta ez erran: «Zedohaku hek erdaraz mintzaturik ere?... dathorke ni gana nor-nahi, eta darasala *frantses* ala *gaskoin*, nik bethi atxikiren dut nere eskuara...»

Bai, zuk uste; ez ordean ahantz erran zaharra: *Otsoa lagun dukanean, ai! bahu hora sahetsean!* Eta bertze hau: *Erradak norekin bizi hizan, nik gero hiri nolako hizan.*

Beraz holakorik zu-gana balethor, ez ukho egin ez, bainan ezti-etzia erran: «Ori, adiskidea, ez dakizu nik baino gehiago *frantsesik*, goazin othoi biak eskuaraz».

Ez datza hortan bakharrik gure makhurra; bertze gaitz bat badugu are gehiago hedatzen dena eta eskuarari kalte egiten. Hura da eskuara *bastarta*, oro erdararat itzulia, gure hitzkuntza ederraren iduripen zerbait beizik ez duena. Athor beraz, erakurtzaile maitea, harrait, eta nerekin entzun ezak neurthitzlari zaharra; huna zer derron eskuararen bihurdikatzaile moldegaitzari:

*Munduko bazter orotan ohore dadukate,
Mintzaya bere modutan oso baitadukate.
Hemen aldiz guzieren zizaye desohore,
Xumei nola handiei, garbi mintzo badire.
Frantximanen aiphamenaz osoki hanpatuak,
Eskaldunaren izenaz hurren ahalkatuak,¹
Bere hitzkuntzaz oraino dute arnegatuko,
Zilibokhata² bat gero hainitzez egiteko.
Adi zagun burigies, modara solasean;
Non zine atzo, diotza, non atzo arratsean?...
Ez ninduzun aperzitu pontuaren gainean?
Han nintzen han promenatu, damurik, zereinean!*

*Hain ongi, nola handia, xumea ez dalotsa,
Nahi du haren mihia mintza dadin frantsesa,
Latina ere badaki Eskararekin lotzen;
Izan naiz, dio ederki, kayean ambulatzen.*

Huna zer den ene beldurra: erdarari sobera trebatuz, Eskualdunek premia ttipitan har dezaten herriko mintzaya, eta geroztik ezaxolaki bazterrerat utz dezaten. Ez zayote iduri ez askori holakorik gertha daitekela.

Bainan orhoit zer dioen erran zaharrak:

*Bide makhurrean trebatu,
Onerat ezin gibelatu.*

Horra beraz bi izurrite, gure eskuara galtzen ari dutenak. Hirugarren bat badugu: Eskual-herritik kanpo, hirietarat edo Ameriketarat joaiteko ezin egona. Eta zer gerthatzen da hortik? Bazterrak oro eskualdunehusten eta gaskoinez bethetzen! Etxetiar eta ofiziale gehienak arrotzak ditugu, nonbaitik ethorriak, osoki erdaldunak, eta gure mintzai ederraren orde, ez dakit zer hizkuntza ahalkegarri gutartean hedatzen ari dutenak.

Herritik kanpo dohazin Eskualdunek, huna zer darasaten, berek uste gabeen: «Goazin etxetik urrun, eta gure eskuara daramagun norapait gurekin, eta han erdara zerbaitekin trukatu-ko dugu; eta arte hortan, gure orde, guk herrian hutsik utzi etxeen bethetzerat eta gure lurren lantzerat eta gure ontasunen ibiltzerat, ethorriko dire gaskoin bonet handi batzu, et *diubi-banka* galaraziko dute gure arbasoen mintzaya, Eskuara!...»

Badantzut, adiskidea, eta horrela mintzatzea eder bazauzu, zohazkit hirietarat eta Ameriketarat eta nahi duzun tokirat, ezen zuk ez duzu gaurgeroz eskualdun odolik zainetan. Eta ez erran niri bertze tokietan ere eskuaraz mintzatuko zarela, ez erran bertze Eskual-herri bat nahi duzula itsasoz haindian³ asentatu; hori ez da amets bat beizik.

Zer dezaket bada? herrian egon eta goseak hil?...

Zer dezakezun? Ah! guk guziek egiten duguna: Egon herrian, bainan othoi goserik gabe, ezen nihon ez duzu hemen bezain errexki bilduren ohorezki bizitzekoa. Nere bizian herri eta

eskualde hainitz ikhusi dut, eta bihirik⁴ ez gure Eskual-herria bezain ederrik eta aberatsik.

Zuk eta nik dagigun bertze herritar gehienek egiten dutena, laborantzari jarraik eta izan bethi girixtino on.

(«Igandea...» 7, 17-27)

(1) Ia lotsaz gorrituak. (2) Nahaste-borraste. (3) Bestaldean. (4) Garaunik, alerik, bat ere.

HIRIART - URRUTY, Jean

(Hazparne, 1859 - Baiona, 1915)

Kazetari sutsu eta borrolaria izan zan abade ta kalonje au: «ESKUALDUNA» aldizkariaren zuzendari ta idazle, bere aldiko gorabeeren testigu... Ez euskun berak libururik argitara emon, baina aldizkarian idatzitako artikulua bilduma bi, gixtenez, bete ditue, «JAKIN» sortan: «Mintzaira, aurpegia, gizona» eta «Zezenak Errepublikan». Kazetaritzan maisu dogu, bere prosa zorrotz bizi...

«Historizale eta euskal literaturzaleak ahantz ez genezakeen luma zuen Jean Hiriart-Urrutik... Idazle gutik ekar dezaiguke garaiaren histori testigantza jakingarriagorik...» (Joseba Intxausti).

65.—BOTOILA BAT ARNO

Urteak ditu, bainan atzokoaz bezain orroit, gogoan dakart geroztik beti.

Hantxet, Larresoron, ohoinek oraiño ebastekoa zuten semenario maitearen gain-aldeko bideño bati gora nindoalarik (banakike ere norat), igande iluntze batez, buruz-buru egin nuen emazte langile berrogei bat urte zituzken batekin. Gutti edo aski elaire ginen. Bidean holatxet solas egina behin edo bertze.

—«Agur».

—«Bai zuri ere».

—«Bezperak luze zituen eiki jaun erretorak?»

—«Eztakit egungo berri; ahal dugunean bagabiltza; bainan ez gitazke beti hel. Alferkeria pixka bat ere lotzen zauku batzutan. Udan bero dela, neguan hotz, oro estakuru gira elizako urrats horri buruz. Halere, bakan gaude,¹ nor edo nor etxetik, meza nausi, bezperetarat gabe. Gure gizonaren aldi zen egun; bainan ez da egia bezalakorik: bazkal ondoan etzanaldiaren egitera joan; eta giza-gaizoa, oheak beretu da. Badakizu: harrobi hortan akitzen; lan idorra; igandeak behar jasan astelegunetako itzal-eskasa. Ez da, ez, naski ontsa, bainan Jainkoak ikusten ahal du. Bederen elizari kendu orenak etxean deramatzagu, senar, emazte eta haur, orok elgarrekin».

—«Ez hatik beti orok; oraintxe zu hemen zirenaz geroz», diot erraiten irriz.

Irriz ihardesten daut: «zer da hemendik eta hortxerainoko joan-jin hau? Hau egiten dut hola, tenortsu huntan, bezperetako aldi ez dutan igande arastiri guziez, non ez diotan, ezinbertzez, haur bati egin-arazten. Ahal badut, haurrak aitarekin etxean utzirik, nahiago dut hau nihaurek egin».

Hainbertzenarekin, esku batez gorderik zeramana zaia-pean, iduri nonbeitik zerbeit ebatsia, bet-betan² agertzen daut irri on batekin... botoila bat arno, diolarik: «Orizu,³ gero berdin zaut egia zuri den bezela erranik. Igande arratsetan senar-emaztek, gure bortz haurrekin hau husten dugu. Ez da, ez, nehon ez dena; bainan herriko arno garbi xorta bat hola zortzitik behin gure etxean, bazinaki zer besta den? Hunen alderat egiten dakot gure gizonari aza-kozina bat ahal bezen ona. Hortarik orok jan, huntarik hurrupa bedera nik eta haurrek jasta, gaineratikoa berak edan, ez baitzauku sobera; gopor edo gate-lu, behiak emaiten daukun esnea orok parti; guk solas; haurrek jauzi. Arratseko otoitza elgarrekin egin eta, loale arau⁴ bagoazi oherat. Eta astelehen goizean bat ez da gure etxean burutik minez dagola, errangura denik. Zer zautzu?»

—«Zaut, badela hogoi-ta bortz beren igandea, eta guziz igande arratsaldea, eta gaua, gaizkiago deramatenik. Ez duzu zeren gorde hola botoila hori. Zu horrekin, hori zurekin, agertzeko on zirezte non nahi. Ai, balute bazterretan aste guzia lanarekin borroka bizi diren gizon nekatzale guziek beren etxean zu bezalako emazte bat? Bertzela argi lezakete zenbeitek!»

—«Ba ote?»

—«Dakizula».

—«Nik eztakit bertzen berri; bainan erranen dautzut egia; gure gizona ez da behin ere izan bertze bat baino makurragoa; bainan kalte egiten zion kanpoko edanak; osagarria eta oro galtzen ari zituen. Ostatua utzirik, huni lotuz geroz, gauetik egunera bezalakaturik jarria dut. Agian ez ahal zautala itzuli-ko, nago».

—«Zoazi hortik. Engoitik botoilaño hori harantxet berantetsirik dago norbeit. Jainkoak dizula gau on».

—«Bai zuri ere».

Bagoazi, zoin gure aldera. Hura zalu, goait⁵ zagozkon senar eta haurretarat. Ni ttuku-ttuku nere bideari, hantxe ikusi eta entzunak gogoan; hau irakurtu-ta zenbeit behar bada, ez bakarrik Larresoron, bainan «ESKUALDUNA» heltzen den herri bakoitzean, geldituko diren bezala. Baten etsenpluak bertze bati baizik ez balitzo ere begiak idek, eta hauts bihotza, ez lakiket egungo lana gal.

(*ESKUALDUNA*, 1909-III-12, in «*Zezenak Errepublikan*», JAKIN, Arantzazu, 1972, 183-186).

(1) Oso gitxitan gagoz. (2) Bapatera. (3) Ara! (4) Logurearen legez. (5) Zain.

BARBIER, Jean (BN)

(Donibane Garazi, 1875-1931)

Senpereko erretore au langile aspergabea izan zan euskal arloan: idazle, musikari, olerkari, folklozezale, teatrogile, «Gure Herria» eta «Eskualduna» aldizkarietan laguntzaile zintzo...

Liburuak: 1) «Supazter xokoan» (Bayona, 1924): 25 ipuin, 5 komeria, poema 1.

2) «Piarres» (2 tomatan: Bayona, 1926. 1929): Euskal bizimodua ezagutzeko berebiziko nobela.

3) «Légendes du Pays Basque d'après la tradition» (Paris, 1931): Euskal etnologiarako interesgarriak (euskeraz eta frantsesez).

4) Euskal kanta asko (81 gutxienez, geienak erlijiosoak).

Geiegizko erreztasuna sakontasunaren kaltegarri izan jakon sarritan...

66.—JESUS JAUNA ETA JON DONI PETRI Espainia eta bakea

Aldi hartan, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri bazabiltzan Espainian. Herri batean iragaiten ari zirelarik, herri hartako buruzagiak jin zitzaizkoten, Ebanjelioa entzun beharrez.

Ebanjelioa entzun eta, Jon Doni Petriri hurbildurik, erran zioten ahapetik: «Jauna, xure beharretan ginitazke. Nausiaren ganik ardietsi behar dauzkutzu lau gauza, gure erresumarentzat: *ogi*, *arno*, eta *haragi* nasaiki, eta gero *bakea*, bethi *bakea*».

Bainan, Jesusek, heien galdea entzunik eta heien alderat itzulirik, erran zioten: «Lau gauza horiek ez doazke elgarrekin. Ogi, arno eta haragi, izanen duzue, eta nasaiki; bainan ez *bakerik*».

Horra zertako baden Espainian jateko eta edateko, bainan, geroztik, eskas dute *bakea*.

Jainkoaren begia

Egun batez, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri elgarrekin zoazilarik, Jon Doni Petri, goseak zinez hamikatua, lurrerat erori ogi buruen altxatzen eman zen, erhien artean bihiak porroskatu eta, heien ixilka gero jateko.

Eta horra Jesusek erraiten diola: «Piarres, hean! behazok bada ene buru gibelari».

«Ai, Jauna! Badazu hor begi handi handi bat!»

«Bai, eta begi horrekin ikusia haut doi doia, ogi buru biltzen ari hintzala».

Ihizko hesia

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri bazabiltzan beraz Eskual-Herrian.

Jendeek bazakiten, orduan, noiz behar ziren hil.

Egun batez, landa baten bazterretik zoazilarik, Jesus Jaunak ikusten du gizon bat, ihizko hesi batez landaren hesten ari zela. Berehala, galdatzen dio Jesusek zertarako egiten duen zeradura bat hoin ez-deusa?

«Oh! Jauna, hirur egunen buruko hil beharra naiz. Nere hesiak iraunen ahal du nik bezen bat!»

Eta Jesusek, ordu berean: «Hola denaz geroz, hemendik harat, ez dakikezue gehiago, noiz hil behar zaizten».

(«ICHTORIO-MICHTERIO»)

67.—AMAXO

1

Oilarra kukuruka etxean da ari,
jadanikan Amaxo othoitzez Jaunari,
bi eskuak ikharan, so kurutzeari:
«Jaunak beha diezon¹ egun berriari!»

2

Atso zinez pollita da gure amatto,
xahar izanagatik ez oraino ttonto.
Diruz balinbad'ere poxi bat² pobretto,
omor'onez bederen dago aberastto.

3

Igandetan ederrik, iduri panpina,
zinez erran liteke: «Horra Erregina!»
Begia irriz dago, halaber ezpaina:
oi zer atso pollita, Jainkoak egina!

4

Buru sahetsetikan motho-buztanduna,
lepho-gibel aldean mokanes urdina,
balenarik gabeko soineko fin-fina,
zaiaño bat pollita ber'eskuz egina.

5

Meza-deia burrunban, eliza-dorretik,
eta amatxo johan landa bazterretik;
buruaren zaintzeko iguzki gaiztotik,
kaputxina pleguan eman du burutik.

6

Artho bizardun pherde, sorhopil gizena
sagar hori'ta gorri, mahasti-aihenak,
Amaxo gaixoari irriz daude denak:
ezagun da direla adixkide minak!

7

«Intzaur, piko, gaztenak, zirezte handitu,
zuen landatzailea da, aldiz, xahartu,
ainitz neguetako elhurra gelditu
eta ile urdinak zeraizko³ xuritu».

8

Huna ur-xirripa bat intzirez doana,
gain hartako zerua bezanbat urdina:
lehenago jauzian igaiten⁴ zuena...
orai, doi-doi, emanez harri zabalduna.

9

«Agur, amatto, agur! - Agur, ene haurra!»
Bidean orok hari bihotzez agurra.
Amaxo erreposki ez dadien lerra,⁵
ttapa-ttapa badoa xendrari behera.

10

Herrirat heldu eta, zaia du zafratzen,
zapeteri erhautsa eskuaz xahutzen;
kaputxina burutik laster behehitzen,
eta ixil ixila elizan da sartzen...

11

Zer othoitzak orduan Aita Jainkoari!
Aingeruak barrandan xahar maiteari.
Bertze guziak kantuz errepikan ari...
Atso ona mezuka Ama-Birjinari.

12

Hilen herri xokoan, mezatik lekora,⁶
amatto nigarretan othoitzez hobira;
loretto bat harturik lurretik eskura,
ixil eta trixte da itzultzen herrira.

13

Ilhun zeinuetako⁷ etxerat heltzean,
gozo handi bat zuen Amak bihotzean.
Gaztena⁸ adar beltzek, hura aditzean,
«Gau on!» zioten orok, betan aphaltzean.

14

Oi Amaxo maitea, agian luzaxko,⁹
Jainko Jaun onak zaitu gurekin utziko!
Ainitz urtez, agian, zaitu ahantziko!
Luzaz, agian, luzaz gaituzu zainduko!

(1) Begi(ra)tu deion. (2) Apurtxo bat, pitin bat. (3) Zaizkio, jakoz. (4) Igaroten. (5) Laprast ez egiteko. (6) Kanpora. (7) Kanpaie-tarako. (8) Gaztaina. (9) Ojala luzaroon.

I

Laminak Semperen, Utsaleko zubian

Duela bizpahiru ehun urthe, *Laminek* ba omen zuten egoitza bat, Semperen, *Utsaleko* zubiaren azpian. Bainan, nahi bezenbat behaturikan ere, nihork ez omen zuen deus jakiten ahal barne hartako berririk.

Behin batez, bizkitartean, Lamina hetarik bat hiltzerat omen zoan. Haren lagunek bazakiten arras ongi, orena ethorria zuela eta, futxo ¹, ez ziteken hil, deus gisaz, gutarteko *jende* batek, Lamina ez zen batek, hura ikusi eta, haren aintzinean, den othoizik ttikiena erran gabe.

Laminetarik bat gan zen beraz —Gaazetxean baitzuten ezagun bat eta— haren ganat.

«*Ethorri behar duzu, othoi, gure etxeraino!... Gure lagunetarik bat arras gaizki da, eta ez du bere azken hatsa botako ahal, zuk ikusi eta, othoitz ttiki bat harentzat erran dukezun arte. Sari ederra izanen duzu, berrogoi eta hamar liberako bat, eta gainerat oraino, ikusgarri zerbeit.*»

Berrogoi eta hamar libera ez baitziren orduan nola nahizka irabazten, Gaazetxeko gure emaztekiak deliberatzen du beraz gatea ², zer nahi izanen bazen ere.

Utsaleko zubiari buruz heldu zirelarik Laminak erraiten, dio emaztekiari:

«Gure etxetik sarri atheratzearekin, deus harramantzarik entzuten baduzu, ez othoi gibelera beha! Zoazi bethi aintzina, zure bidean... Bertzenaz, zure ikusgarria galduko duzu, zuhaur batere ohartu ere gabe».

«—Ontsa da; ez dut segurki gibelera behatuko!»

Utsaleko zubiaren ondora heltzen dira beraz, eta, hekien etxean sartzeko, behar baitzen urean iragan, Laminak, makila berezi batekin, *kaxk*, jotzen du ura, eta ura egiten da berehala bi zathi. Biak gero iragan ondoan, Laminak berriz ere *kaxk* emaiten dio makilarekin, eta ura, kuxean jen zen bere lekurat.

Gure emaztekiak sartzan da beraz etxe barnera, eta Lamina hil-urrenaren ³ aintzinean othoitz bat erranik, abiatzen da kanporat.

Bainan Laminek ez zuten hola gan zadien nahi, deusik hartu gabe:

«Pokadu bat bederen jan behar zuela!»

Emaiten diote beraz arras ongi jatera, eta gero, berrogoi eta hamar libera dirurekin, gainerat oraino, urhe *tabakier* bat.

Gure emaztekoa loriatua bazoan beraz etxe alde, noiz eta ere harrabots zerbeit entzunik, burua itzultzen baitu, eta, *adio!*, batere berak sumatu gabe, galtzen du... tabakiera urhezkoa!

Doi doiako⁴ lamina eta biak heltzen dira ur bazterrera. Aintzinean bezala, Laminak hartzen du makila, eta *kaxk* jotzen... Bainan, aldi huntan ura ez da bi zathi egiten.

Berriz ere jotzen du *kaxk*, bainan berriz ere alferretan. Ordutik bazakien Laminak zertako ez zen ura bi alde emaiten. Bainan, ez zitaken oraino mentura emaztekiari erraitera. Bertze behin jotzen du beraz makilarekin... Ura bethi geldi geldia!

Orduan Laminak erraiten dio emaztekiari:

«Uste gabetarik hartua, izan behar duzu zurekin *gure puxka* zerbeit?»

Emaztekiak, nahizik eta gorde, ihardesten dio:

«Ez dut uste; andre Lamina!... non ez dudan ixkilima zenbeit...»

Miatzen da, eta: «Ez, ez, ez dut deusik kausitzen».

«—Bizkitartean, nik ez dezaket ura bi alde egin, eta ez bazu hartu duzuna aithortzen, hemen gare ittant batendako⁵!».

Emaztekiak erraiten dio orduan: «Nik dudan guzia, ogi pitta⁶ bat dut mokesaren punttan hartua, ene etxean erakusteko zuen ogia zein den xuria». (Elhurra baino ere xuriago omen zen).

«—Nor nahiri gerthatzen ahal den gauza da hori. Bainan, gure etxetik ez da deusik erematen ahal. Hortakotz, othoi, behar dautazu ogi hori itzuli, zeren ez duen nihork gure gauzarik ikusi behar sekulan».

Gure emaztekiak itzultzen dio beraz ogia, eta berehala, makilarekin *kaxk* jo orduko, idekitzen da ura eta baztertzen.

Hainbertzenarekin, suntsitu zen Lamina...

Gaazetxeko emazteki gaixoak *harat hunata* irabazi zuen gau hartan; ezen, bidean heldu zelarik, bere berrogoi eta hamar liberak ere suntsitu omen zitzaizkon sakelan!

Horra zertako xuxen ez dakigun, oraiko egunean oraino, Laminak nolakoak diren, zertaz bizi diren eta nolako bizitegie-tan.

Nota Bene.—Cette légende savoureuse, recueillie à Saint-Pée, m'a été contée par M. R.

A. Le pont d'*Utsalea* existe toujours, en aval de l'église.

(«*ICHTORIO - MICHTERIO*»).

ETXEPARE, Jean (BN)

(Argentina, 1877 - Aldude, 1935)

Argentinan jaioa, baina gurasoak euskaldunak. Gazterik etorri zan Euskal Herrira, eta Larresoroko Seminarioan ikasi; gero, Bordeleko Unibertsitatean Sendagintza egin eban... «Eskualtzaleen Biltzarre»-ko Buruzagi, «Eskualduna» eta «Gure Herria» aldizkarietan idazle ugari, ordurarte gutxi erabilitako gaiez.

Liburuak: 1) «Buruxkak» (1910): artikulu bilduma.

2) «Beribilez» (1931): Nafarroan eta Gipuzkoan zear egindako ibilaldia. Euskera dotore, aberats, aristokratiko baten sortzaile.

69.—MEDIKU XAHARRAK GAZTEARI

Mediku xaharra eri gaizki baitzen, ikustera joana zitzaikon auzotik gaztea, azken orena hurrandua ahal zuela, agian, poxelu harek.

Etzen batere sumindu xaharra. Bere lagunari ohartu zitza-koneko, iri hits mehe bainan goxo batek ideki zaizkon ezpainenak:

«—Hor hiza ¹?... Jar hadi hortxe, nitarik ahal bezain hurbil. Atsegin diat jin bai hiz. Ni, banihak. Haldamaldaka ² hasia zautak ja bihotza. To, ez baita orobat gutarik hil ondoan deus gelditzen ohartu gitzaizkioten eta bertzeer erakutsi dioztegun egia bakarrak baizen, dazkitan lehenbizikoak erran gogo daizteat hiri. Barkatuko daitak gure ofizioari eratxikitzen badira denak:

Eriekin, ele guti. Emeetek ² hanitz sendagailu. Ez die sinesterik erremedio ausarkietan baizik. Bitxiago bertzalde, eta hobeago zaizkoie.

Sendatzea hitzemak ³ beti. Ez baduk heltzea uste, eta irortzera ⁴ lerratzen bahiz, nundik nahi duk ukan dezaten sinesterik hi baitan? Ez zaitak halako astorik, nola baita eriazen aitzinean bere jakitateaz odol hotzean durduzaten ⁵ den medikua.

Sendagailuak baino nahiago die oraino esku lana. Ez zatie gaixoek zer derabilkan buru barnean, badakikanez zerbeit ala deus ez, asmatzen dukanez zer duten gaitza edo bat ere ba-

duten. Ikertu ondoan, gogoan dauzkakala batzuetan egun guzia, etzezakeie amets; heien eretzean erabil dezakekan barne kexuari ez die eskerrik. Nahiago hite⁶ ikusi eta haztatu, oina-zerik minenak behar gabetarik jasanikan ere. Erabilzkik beraz aztaparrak! Lot hitzeie nunbaitik, ahalaz tresnekin! Badakika zendako jendeak medikuari baino jauspén gehiago dakarran potikarioari? Hunek, ele ederraz bertzalde, emaiten dakolakotz zerbeit bere begiz ikus eta bere eskuez hunki dezakena.

Jakitatea ez duk deus: jendearekilakoa duk guzia.

—Etzaikala gaitzi hire bihotz guziaz artatu dituzkanek ar-dura uzten bahite, hiriko medikuen ganat joaiteko, eman deza-gun Baionarat. Baionesak berdin bazoazik Bordalerat, Bordalesak Pariserat, Paristarrak Berlinerat, Berlinekoek aldiz Parisen dauzkatelarik beren jainkoak.

«Herri ttipian hagolakotz, etzauk nehor etorriko, zorigaitzez, ihes zoazkikan heien ordian. Bainan ez dik famak egiten, ez diruak ere, gizonaren zoriona.

—Gomak⁸ azantzekin goersten hitener: hek berek baihite, azpiz jorratuz, gehienik apaltzen.

—Aipatzen dituzkalarik hire lagunak, aipazkik izariz: ezartzen balin badituk goregi, ala kitzikatzen, ala azpirat emaitera bermatzen bahitzeie, hire buruari baizik ehiz ariko harrika.

—Jende xehearen alarik laketena: medikuen arteko ahar-rak.

—Aitorrak artetan —bakan haatik— hire hutsetarik bat, ahalaz handienetarik: noizetik noizera zafratuak ez balire, ez-takiat baluketenez sinesterik jendeek medikuntza baitan...

—Ez erran behinere eri bati ez duela deusik: hainbertze baita gutartean eri nahi direnak izan, edo bederen eritzat har-tuak!...

—Halaber, berauk eriarri erraitetik xahu dela⁹, azken ha-tsetan ikusi dukalarik baizen.

—Ohartua nuk: apiriko azprietan ala iturrietan emazteak egun guziek mintzo tuk hitaz. Gomak haatik medikuaren orde ez dutenetz ikusten hitan... gizon gaztea.

Ehakiatala samur horren erraitera ausartatu banitzauk».

Mediku xaharrari hatsa bazoakon ahulduz. Ukan zuen bizkitartean oraino doidoia gemen⁹, hunen igortzeko:

«—Adituko dut edozoini urrerik ez dela aski, gizon baten bizia eros dezakenik. Eta bizia begiratu dakokanean, hogoi libera urre haren ganik ezin bilduz higituko duk hire burua, galduko heure bizia.

Atxizkik halere hire eskuak garbi, laño hire bihotza. Medikuntza duk ofizioetan ederrena.»

Hok izan ziren mediku xaharraren hitzak.

Deusek ez du akitzen gizona nola egiaren erraiteak.

Bizpalau aldiz ideki ahoa xoriño batek bezala; lanbro batek hartu zaizkon begiak; eskuaren emaitera baitzoan bere lagunari, biderdi baratu zitzakon, hotz eta geldi.

Hila zen.

(«BURUXKAK», 121-123.)

(1) Haiz. (2) Bizkor eta ordena barik. (3) Agindu egizu. (4) Autortzera. (5) Dudatzen. (6) Dabe. (7) Menpetasun. (8) Kontuz! (9) Kemen, adore.

SAINT - PIERRE, Jean

(Milafranka, 1884 - 1951)

Abade onek kargu asko izan zituan, baina sekula ez eban galdu bere euskal zaletasun beroa. Kazetolari txalogarria, euskal aldizkaririk geienetan lan egin eban, gorengo mailan sarritan («Eskualduna», «Gure Herria», «Herria», «Euzkadi»...) «Anxuberro» ezizena ere erabili eban. Axularen «Gero» aldean-eta ibili zan Europako Gerran soldadu, eta kronika politak bialtzen zituan. Kartagoko Gotzain Laguntzaile ere izan zan. Saint-Pierre idazlearen euskal lanak aldizkarietan dagoz sakabanatuta, baina ba dogu Antologia bat ere: «Les meilleures pages de Monseigneur Saint-Pierre» (Bayonne, 1952). Beronek biztu ei eban P. Lafitteren biotzean euskal zaletasuna.

70.—MARI-EDERREN EZKONTZA

(...) «Ostalerts¹ gazte bat zen delako Mari-Eder.

Jende biltzalea, zalhu, erne, pampa bezala emana bethi, salda ona, elhea ederrago... Ruen figura! Zer kalaka zerabilaten hartaz Ezpeletako mokodunek! Orogen ondotik zabilala eta holako. Ba eta gizonak ere haren ondotik, teteletuak, zentzuak eta oro errotik eginak. Hasteko, jandarme gaizo bat maizko han zabilan, nafar arnoaren estakuruan...

Irringarrienak Zuraidar bat eta Itsasuiar bat, merkatuaren estakuruan bethi barne hartan sartuak. Beren bihotzaren berrien gordetzeka, kabale bat zeramaten merkatura, alegia salgei; Itsasuiarrak miga, Zuraidarrak xerria.

Egun osoa jaberik gabe zauden miga ala xerria. Egun batez Amaiurreko zikiteroak galdegin zautan: «Norena duk txerri ori?»

«Zuraide-ko xerria».

Pampalo Zubieta harritu zen, aitasok nola zakien xerri horren berri, hain ontsa ezagutzeko bigarren eta hirugarren al-dian ere. Erran zion aitasori: «Nola bada zinuen xerri hori hoin ontsa ezagutzen?»

«Bazian eta gibel aldean hik bezalako plapu beltz handi bat».

Bertzek irri, aitasok drago bat edan, pipa berriz piztu, thu egin. Thu egin zuten harekin Amarru zaharrak, Kadet Bidegainek, Akerrak eta Petan Buztingorrik.

Erbia bethi lo.

*Protestant bat jina zauku Frantziaren barnetik
Gizon galant izaiteko hainitz leku xarretik
Iduritzen zauku bazukeiela hortaz bertzelakorik
Izan ez balitz hunat jina bere lekua galdurik.*

*Mariak uste zuen zela zeruetako lorian
Halako gizon aberats bat noizpeit harrapatzian;
Protestant bat huna jina, zabilana bidian,
Belle Marie hunek sartu laster bere sarian.*

—«Bai, sarian sartu eta zalhu».

Ilhuntez batez jautsi jaunxkila² bat menditik, bizar gorri batekin, harroka gain eta erreketan zenbeit lore bildurik... Afaria galdatu Mari-Ederren ostatuan. Afari ondoan jadanik elhetan biziki barna ziren, gizona burutik joana, burzoratua, su lametan... Jan zuen salda begiduna, handik harat gauza guti... Erradak bada niri Petan, zerk duen gizona holakatzen? Dena den, briu, brau, arrats hartan berean egin zuten elgarrekin ezkondu behar zirela. Gizona joan etxera, Mari-Ederrek nigar erdi bat ixuri, etzuela gehiago ikusiko jaun gazte bizar gorria...

Hilabethe baten buruan berriz han zuen, paperak eskuetan, nor zen eta zer, gizon aberats eta katolikoa. Lehen-bai-lehen hobe zutela, badoazi herriko etxera.

Auzapezak onhartzen ditu, hemendik goiti bat bertzearen espod direla. Handik berehala jaun erretoraren gana.

—«Jauna, hola eta hola dugu gure zera. Jaun merak oraixe bere lana egin baitu, oro batian bururaturik hobe ginuke.

—Bai, bai (hatsa hartuz). Bainan jaun hau... Etzitugu zu Eskualduna?

—Bihotzez bai, sortzez hala ez izanagatik... Huna bertzalde ene paperak.

Jaun erretorak begi batez irakurtzen ditu, bertze begiaz gizonaren sudurra haztatzen duelarik. Hoberenak golkoan dauzkala iduritzen zaio, eta paper gezurrezkoak dituela eskuetan.

—Oui, ça va bien. Ikusiko dugu.

—Zer ikusiko, ez duzu bada ikusten?
—Ikusten, eta ikusiko. Bat baino bia hobe.
«Hoi duk, hoi egia!», egin zuen Pampalok, Amarruk, Ka-
detek, Akerrak eta Petanek. Erbia bethi lo.

* * *

*Ezpeletan ezin eman ez beren aferari finik
Zuarramurdira joan ziren paper tzarrak harturik.
Han ere ezin harrapatu fraide arima galdurik,
Ez dutela protestanten esposatzeko legerik.*

*Espainian sartzian olhan ziren sartu
Haroztegiko andere geia lehenik pisatu:
Frantziako kintala ezin konplitu du,
Pisu baino urgulu gehiago baitu.*

*Zuarramurdin zuten Mari-Luz berekin
Zikiro gizen baten azpi on batekin
Bikarioa nahiz ekarri berekin
Belle haren ezkontzera protestantarekin.*

«Debruak hartu zituen gure espos geiak erretorak planta hartan utzirik».

«Zer nahuzue hortarik atera?», zioten erran Mari-Luza Zihikandok. «Don Manuel Zuarramurdikoak esposatuko zituzte, eta gogotik. Hura da hura apezka. Bego nere gain. Goazen bihar berean. Badut zikiro azpi bat ederra. Ikusiko duzue zer gizon arto puska den». Hala hala erran zuten Haroztegiko andre geiak, atso batek eta bi mutzurdinek.

Biharamunean, Zuarramurdin ziren.

—Agur, don Manuel, zuen erran Mari-Luza Zihikandok.

—Agur.

—Agur.

—Hola eta hola dugu gure zera...

—Bai, bai... Eta Ezpeletako apaizaren baimena?

—Zuk duzu naski, Mari-Eder? Mia³ sakelak...

—Jauna, zikiro azpi hau...

—Bai oso ederra dago.

—Eta paktiza hau, Gaaxanek egina...

—Ederra dago ori ere.

—Ori, har zazu xingar ginharri hau. Hauta⁴ da. Gu bezala bizi izana da.

—?!?!? Bai, bai. Eta baimen ura? Zer lastima...

—Jauna, ez da egia bezalakorik. Zubian urerat utzi du. Ez gitutzu hola utziko gibelera!

—Zer lastima! Ezin etor biyar?

Gibelera jin ziren zikiro azpia, paktiza, xingarra, Mari-Luza Zihikando, espos geiak, Haroztegiko andre geia, atsoa eta bi mutzurdinak.

* * *

Arratsean, Mari-Luzak erran zion Mari-Ederri: «Badakizu zer egin behar duzuen? Baionara jo, apezpikuari buruz.⁵ Hauk deus ez dira. Harrekin, egina duzue ikusi orduko. Zer surra gero gure hunek!»

Baionara jo, apezpikua ikusi, erraztunari pot eman, pape-rak erakutsi, apezpikuak igorri Bikario jeneralari, hunek Ezpeletako erretorari.

Mari-Luza Zihikandok sukarra zuen arrats hartan, eta agertu zitzaizkon zazpi debru.

Biharamunean erran zion Mari-Ederri: «Zoazte Baionako protestanten eliza hartara. Han eginen zituztee; burua gal araziko daukute bertze hoiak».

Hala egin zuten. Egun hartan, bi mutzurdinen ahotik jakin zuen Katalin Kantabrek jaun andere esposak ilhuntean sartu beharrak zirela Ezpeletan.

Katalin Kantabre hura zen emazteki bat, mendia bezen azkarra. Begietan zaukan aspaldian Mari-Eder, eta bereziki jaunxkila bizar gorria. Airean eman zuen karrika guzia: «Bazautzue! Debru neska zirtzila, ez bertzea! Hauxe da mendia! Ez da haatik gozatuko uste duen bezala!»

Lau orenetako gazteria guzia bildua zuen. Ni ere han nintzen etxeko zartaina bizkarrean. Han ziren kokela zahar guziak, pertz, dupin, gerrena, su burdin, behi adar, azkonen harritzeko tuuta guziak.

Larresoro-ko bidea gora joan ginen. Hango oihuak, hango harramantza, esposak agertu zitzaizkunean! Orogen gainetik ageri zen Katalin Kantabrerren oihu samina, Maria-Ederren

beharrietara «Gonberti, Gonberti!» Mari-Eder zurpildua zagon, karrosa zokoan gordea.

Gauaren erdia hala eman ginuen ostatu aintzinean, eta hogoi-ta-hamar egunez, arrats guziez, Katalinekin sekulako musika ginerabilan. Etzen jandarme, ez errege, ez debrurik gure hezteko. Lapurdi guzitik jendea biltzen zen Ezpeletara, debruak eta oro agertzen zirela entzunik. Bizpahiru emazteki burutik joan ziren. Baztango herriak ere airean zauden. Utzi balute, Katalin Kantabre oraino han litake, izigarriko hatsean.

Azkenean, jaun erreterak erran zuen elizan protestanta egin zela katoliko, Montpellier delako hirian, eta hango apezpikuak esposatu zituela.

Hortan utzi ginituen bakean.

Horra zer erran zuen aitasok, Hargindegiko ezteietan. Lekuko dira Amarru zaharra, Kadet, Bidegain, Pampala, Zubieta, Akerra, Petan Buztingorri. Erbia lo zagon.

(«*Les meilleures pages de Mons. Saint-Pierre*», 311-315)

(1) Ostalari (emakumea). (2) Jauntxu (pey.) (3) Miatu, aztertu. (4) Bikaina, berebizikoa. (5) Apezpikuarengana.

ELISSALDE, Jean («ZERBITZARI»)

(Azkaine, 1883 - 1961)

Abade onek asko eta ondo idatzi eban, «GURE HERRIA»-n batez ere, bai neurtitzez eta bai itz lauz; eliz gaiekin batera, beste asko ere erabili zituan: bere sorterria —Azkaine—, landareak eta loreak, zuhur-hitz, atsotitz eta erranzaharrak, pilota eta pilotariak, santuen bizitzak, ipuin eta alegiak, txoriak, antzerkitxuak, egutegiak, t. a.

71.—BIZI DADIN ESKUARA

1

Haurretik ibilirik mundu zabalean,
Itsasoan marinel, tratulant lurrean,
Mintzaira mota asko badut ikasirik...
Eskuarak nihun ere bat ez du parerik!

2

Ardia alhatzen da bazka gizenetan,
Han kausitu ondoan mendi hegaletan.
Eskuarak ere badu eremu zabala.
Han, han berma ditake jakinen ahala!

3

Nun da Eskuara bezen mintzaira berorik?
Munduan batek ez du khar handiagorik!
Maitea maiteari mintzo bada gabaz,
Leihorat itzulia mintzo da... eskuaraz!

4

Haurra bere amari nola mintzo zaio?
«Ama, ama», eskuaraz sehaskatik dio.
Amari lakhet zaio horren entzutea,
Gure Eskuara hain da mintzaira maitea!

5

Mintzaitetan Eskuara omen da lehena:
Dena den Eskuara da segur ederrena.
Othoi atxik dezagun eder bezen garbi,
Eskuaraz mintzatuz noiz bai eta non-nahi!

6

Herritik urruntzean, Eskualdun gaztea,
Ez duzu ahantziko Eskuara maitea.
Ondikotz zenbat ez da ahantzen duenik!
Merezi othe dute Eskualdun izenik?

7

Eskuara hain da eder, hain da maithagarri,
Non behar baitiogu laguntza ekharri.
Bizi dadin maitea orai eta gero,
Berma gaiten hortarat Eskualdunak oro.

(«*Kantu, kanta, khantore*», Baionan, 1967, 14)

Jules Moulier «OXOBI»

(Bidarra, 1888 - 1958)

Guarda-seme au erririk erri ibili zan umetan. Gero, abade eginda, Lapurdin eta Baxenabarran izan zan erretore. Euskaltzale askoren adiskide ta lagun. Kazetaritzan lan asko egin eban («Eskualduna» eta «Gure Herria»-n batez ere).

Liburuak: 1) «Bihotz-oihu, deiadar, nigar» (gaztetako olerki-bilduma); 2) «Alegiak» (Bayonne, 1926): bertsotan; 3) «Heiatik zerura» (Bayonne, 1935); 4) «Haur elhe haurrentzat» (Bayonne, 1944); 5) «Oxalde» (in «Gure Herria», 1950 - 1952). «Gure Herria» aldizkariak antologia eder bat argitaratu dau: «OXOBI-ren lan orhoitgarri zombait» (1966). Beste iru liburu utzi ditu argitara barik.

Olerki bizi-biziak, alegi ederrak. Esaldi laburrak, indar andikoak, kontuz landuak... (Ikusi, Antologia onetan, J. Haritschelhar-en eretxia: 87 or.)

72.—AXULAR IDAZLEARI

Axular, Axular,
Eskualdun idazle
Ausart, zorrotz, hazkar
Suharra...
Geure hots emaile
—dena su, dena khar—
Irakasle bakar,
Bakarra...

Zinuen —Axular—
Ergel, erho, nagı,
Gazte ala zahar,
Alferra
Ernarazi nahi;
Etzadien lokhar
Ez gero'ari jar,
Ez lerra...

Zinion —Axular—
Hertsı, labur, arrotz,
Eskuara bazen txar
Meharra,
Zela, zuelakotz
Eskualdunen indar:
Buru, bihotz, bulhar
Beharra.

Eta gu, nagıak,
Ikasteko lana,
Biltzeko bihiak,
Gathozi zugana...
Xinaurria zare
—Ez nagı, ez bare—
Bihiaren jabe,
Neguak jo gabe.

Eskualdun erlea,
Diozun elhea
Guretzat ez dea,
Garaiko bidea?...

«Eztiz eztitzeko,
Ezkoz argitzeko»
Eskuara gurea,
Eskuara maitea?

Eskerrak, Axular!
Bihi, bazka, indar,
Egun eta bihar,
Badakigu nun har:
 Zu baithan...
Lagunak ez lokhar:
Aditurik elkar,
Dugun Eskuara sar
Eder, jori, hazkar,
Orotan!

(*OXOBI-ren lan orhoitgarri zombait*), in «Gure Herria»,
85-86).

73.—BI ASTOAK

Beraz behin,
Jaun Mattin eta Jaun Pettan:
Ez dakit nungo bi asto,
 Bazoazin
 Biak betan...
Mattinek zama bat lasto
 Bazeraman
 Lorietan:

Traka-traka, traka-traka,
 Nor gira gu'ka:
Handik uzker, hortik orro,
 Odola harro;
Beharri buztanak gora,
 Trufa sobera.

Uliak firrindan,
Bainan urrundikan,
Baitire minbera.
Trikitrikin trikutrikun,
 Petan hor ilhun:

Kakoletan bortz kintal gatz,
 Bizkarrean hatz;
Buztan beharriak apha,
Belhaunez dal dal.

Uliek firrindan,
Sistaka denetan,
Badute nun bazkal.

Trikitrin, trak, trikin,
«Errak, gaixo Mattin?»
Tikutrin truk, trikun,
«Othoi, nezak lagun?»

Mattinek, gaizo Petani
Laguntzarik ez eskaini...
Traka-traka, traka-traka,
Trufa gainerat musika:
«Zertaz duk, to, arrangura?»
Buztana bihurtuz gora,
Turrut eta zart! ahora
Egin dako bertze hura!

Ibarbide'ko errekan,
Zubirik ez.
Handik atheratzekotan,
Joan behar urez:

Pluf, plaf, eta punpalaplan!
Sekulako karmañolan,
Huna gure bi astoak,
Uli, gatz eta lastoak,
Nahas mahas igerikan,
Zoin gehiago musikan...
... ..

Orai behar dautzuet aiphatu
Azkenean zer zen hor gerthatu.
Mattini hoztu zaion odola,
Petani berriz hustu kakola,
Gatza dena urarekin urthu,
Lastoak beregain oro hartu!

Mattinen deiadarrak!
Eta haren nigarrak!
Debaldetan,
Alferretan!

Ordukotz gure Petan,
Biderat iganikan,
Hasia zen kopletan;
Bazoan arin arin,
Triki-traka, kilinklin,
Kakola hustuekin,
Muthurrari milikan,
Buztana firurikan!

(«OXOBI-ren lan orhoitgarri zombait», in «Gure Herria», 97-99)

74.—GIPUZKOAN ETA BIZKAIAN GAINDI

Zazpiak bat! Nun da, Jainko maitea, bi hitz horiek ezagutzen ez dituen paristarra? Donianen, Miarritzen Baionan gaindi, jateko, edari, espartin, makila, lepoko ala gerriko. Eskual Herri'tik zerbeit orhoitzapen daraman arrotzak erakusterat eman behar du bere herritarreri eskuara ere ikasi duela. Beraz, xingola bat, othoi —bertzerik ez bada ere— bi hitz aipatuak darduzkana: zazpiak bat!

Bertzerik ez bada?

Pastiz hoberena: zazpiak bat!

Edarri goxoena: zazpiak bat!

Makila ferratua: zazpiak bat!

Ahotik ezin utzizko xokoleta... zazpiak bat, eta zazpiak bat: *marque de fabrique*.

Nunbeit eskualdunik balin bada, Ezterentzubin baita, galda zakozu Ezterentzubi'ko neskatzarik ikasienari, argituenari: «Errazu, maitea, zer erran nahi dute, zure ustez, bi hitz hauek: zazpiak bat?» Geldituko zautzu apoharmatua bezain airos, aho begiak zabalik. Zazpi Sakramendu badirela badaki, zazpi bekatu ere bertze guzien ithurburu direnak; ez baduzu soberarik ahalgearazten, kantatuko dautzu behar bada:

Zazpi urthez bethi jarraiki zaut ondotik...

«Zazpiak bat» hori mixteriorik handiena zako.

Eta zuk, adiskidea, *Gure Herria* irakurtzearekin, zer duzu irri maltzur hori? Uste duzu naski bertzeak baino gehiago bazi-rela?

Erradazu beraz Loyola'ko berri?

Tente potente...

Eskual Herrian da gero Loyola!

Itzuli bat egin duzu Arantzazun?

—Merkaturik ez bide dute Arantzazun.

—Baditake. Eta Gernika?

—Bai, bai.

Gernikako arbola da bendikatua, a, a!

—Hori nun nahiko *zimena* batean entzuna dukezu. Bertzerik ez?

—Ez.

Zeruan baitugu eskualdun asko, dohatsu direnak, Jainkoaren aldean, eta guri, Eskual-Herriko anaieri, begira dagozinak nundik eta nola bilduko gaituzten beren ganat, hetarik bat Aita Valentin Berrio Ochoa dela badakikezu eta Elorrio'ko seme zela?

Ixo?... (Gizon ixila zuhurra dela).

—Zer da gero, hoinbertze bazterren berri ez jakinik ere. Gauden hurbiltxago. Orizu, joka niro zerbeit zuk baino hobeki ezagutzen dutala Donostia!

Damurik... Bainan, adiskidea, Donosti'ko hiriaz bertzerik aditzen ahal duzu, «zazpiak bat» erraitearekin, eta garbiki aithortzen badautzut hiria —izan dadin Donosti ala Miarritze— etzautala hain laket nola bi mendisken artean kokatzuko basherri bat, eskualdun baizik ez den herritto bat, ezagutuko duzu enekin ez dela ttipia gure kopeta, zazpiak bat hemendik, zazpiak bat handik, bazter guziak bi hitz horiekin emokatzen ditugularik, Eskual-Herri'ko bazter bakar bat ongi, behar litakeen bezala, ezagutu gabe.

Ibiltzeko astia duten Lapurtarretan zenbatek dakite Gipuzkoako berri? Parisen gaindi joan jin bat egina dute bizkitartean.

Bere ustez hanitz ikasia den etxeke jaun bati, mintza zaite Oñati'ko herriaz. Alemanian den galdatuko dautzu herri hori. Aipha zakozu Bórdale, Akize, behar bada... Carpentras.

—Ezagutzen dutanez?... eta hasiko zautzu sekulako ixto-riotan.

—Ala erdaldun zoro horiek behar daukute irakatsi zer den Euskual-Herria?

—Ez balinba!

—Adiskidea, nahi duzu, hasteko, itzuli bat egin dezagun Gipuzkoan eta Bizkaian gaindi?

—Zertako ez? Bainan...

Ez beldurrik har, ez duzu zeren espainola ikas, ez baikira Eskual-Herri'tik baztertuko eta jautsi beharko dugun ostatuetan, aurkituko baitugu bethi norekin eskuaraz mintza.

Egun hoitarik arte beraz.

(«GURE HERRIA», 1923, III, 543-545)

75.—AMA!

Maitatua sobera nintzelarik haurra,
ez nakien nik zer zen amaren beharra;
bortu batean orai naiz bakar bakarra,
hartaz orhoit'orduko heldu zaut nigarra.

Hegalñoak azkartzen sendituz geroztik,
baitoazi xoriak ohantze gozotik,
halaber joan ninduzun amaren altzotik...
ahantzia bainute herrian engoitik!

Bainan ama gaixoak ez nu ez ahantzi:
maiz daut Eskual Herririk igortzen goraintzi:
hautsi nion bihotza, nuenean utzi;
neretzat baizik ez da halere han bizi.

Bero daukat nik ere bihotzean garra,
Jinkoak piztu zauntan eskualdun pindarra!!
ama baitut oraino minetan indarra,
ama, gau ilhunean, argidun izarra!!!

Nere bortu gainetan baniz enoatzen,
gaizkirat balinbazaut bihotza lerratzen,
zure begi garbiez, ama, naiz orhoitzen,
eta lanari gero kuraiekin lotzen!

Oi maiz ametsetarik izan dut gogoan
goxoki nindagola lehen ohakoan,
aingeruer begira, ganbera xokoan,
eta, zu, hantxet irriz, ama, ner'ondoan!

Frangotan huts ohiez orhoitzen ere niz...
ama, gazte denbora berriz haste balitz!!
nigar egin-arazi dautzut anhitz aldiz,
nigarrak niri zauzkit jauzten orai borthitz!

Aspaldi du naizela sor-etxetik joana,
hamargarren urthea hurbil iragana:
noiz othe naiz hemendik jinen zure gana,
ama, saristatzerat zor dautzutan lana?

Untziak noiz nu berriz horrat eremanen?
etxerako bidexka noiz dut nik iganen?
eta zutarik, ama, musu bat ukanen?
oi! ba laster dautazu agian emanen!

Aho batek eztiki diolarik: Ama!
hitz goxo bakar horrek mundu bat derama...,
ama baiño hoberik zer ditake asma?
haren maithatzen beraz gaiten oro thema.

(*Eskualduna*, 1911, 4.7)

(«*OXOBI-ren lan orhoitgarri zonbait*», in «*Gure Herria*»,
144-145)

LEON, Léon

(Hazparne, 1896- ?)

Idazlan asko argitaratu ditu, «Gure Herria»-n batez ere. Abade onek eliz gaiak ere erabili ditu, bere baxenafarroako euskera bizian: Ebanjelioa, Kristoren Imitazioa eta Meza Saindua...

76.—URSUAN GAINDI MAKEARAT

(azken zatia)

Hor oraino Hazparne: erdi erdian belauniko, xilo batean bezala, Eliza dorrea zorrotz; etxe mulzo bat elizaren itzalean. Hazparnek bere gorputza erreka batean balin badu, hegalk gora daduzka: Peñako, Elizaberriko, Labiriko etxeak herriari buruz aldaperi behera doazi lasterka, zoin lehenka, beren pentze eta alhor goriekin.

Beha orai urrunago, itzulian: hanxet xoko xokoan, Baigurako izkinak alde bat itzaltzen daukula, Hondarrabia; ondoan Hendaya, gero Donibane Lohitzune, Bidarte, Miarritze bere ur-hegi distirantarekin, Baiona bere ibaiak marra zilhar batez pi pusketan zatikatzen duela, Bokale khea dariola. Bezkoitze, Bardotze, Bastida. Hemen hurbilago Cambo bere erreztun zilarrarekin, Espeletako etxeak metan, Jatsu eta Halsu biak berdintsu, Uztaritze elizaren hegalpean bildua.

Eta bertze zonbat! Enezake burura denak aipatuz. Eta horiek guziak hola, eguerdi aspaldi hartan joa. Begiak Eskual-Herriaz unsa gozaturik, Makeako alderat jautsi ginen nahi al'ez lasterka. Buruxkin eta itzuli-ipurdi zonbeit ere bidean erein. Gaztain zahar baten itzalean jarri ginen.

Ikusteko guziak ikusiak, jatekoak janak eta oraino lau orenak baizik ez. Goizegi etxeratzeko. Zer egin? Ene lau lagunak musari lotu ziren. Bakarrik nindagon, heieri so, xoratua nola gezurra egia bezain aise zabilaten: alabainan egia haizu eta gezurra sori.

To, Makeako itzuli bat egiten banu anartean. Ttipi ttipitik entzuna nintzen herriño horrek gizon bat bazuela bainan bixia! Harrek erranak eta eginak beharrietan barna sartuak nin-

tuen eta gogoz ikasiak. Ene ametsetan zonbat aldiz enuen jadanik ikusia bere xamarrarekin, makila eskuan, zinta gorri bat gerrian, espartin xuriak oinetan!

Zoin irri egingarri, zoin dostakina bide zen delako gizona, bazter guziak hartaz hola mintzateko! Ganixek hau erran, Ganixek hura egin eta oro bitxiak, oro urragarriak. Hea ba! non dagon! Segur zonbait bitxikeria berri ateratuko daizkit eta orduan zer irriak!

Oren laurden bat bide eta Makean nintzen. Karriketan arimarik: oilo parrasta bat, ahate zonbait, bizpahiru antzara. Non othe jendeak? Lehen etxerat jo nuen: «Hela!». Nehor! Goraxago: «Hela!». Alimaleko zakur bat jin zautan ihausika. Jadanik gibelerat so nindagon nondik eta nola ihes egingen nion. Huna beharrik norbait:

—Jinkoak dautzuela egun on, etxekandrea!

—Bai, zuri ere: Ixilik, Tamela, hea! usuxko hortik!

—Nontsu da Ganixen etxea, plazer baduzu?

Emazteak hobeki behatu zautan eta hedatzen hasia zuen irri goxoa bet-betan bildu. Zer othe zuen? Galdetzerat enindazkon menturatu. Kanporat jinik, eskuaz erakutsi zautan, aldapa bizkar bati josia etxe ttipi bat: «Hantxet dago; orentto baten bide dea dukezu hemendik, ez adiorik».

Hauxe dira elhe motzak! Emaztea itzalia eta han nindagon oraino, paxeta bat bezain tente, gogoetaka. Tamelaren ihausi latzgarriek nere baitaraturik, abiatu nintzen. Bide nabar burua alha: «Zer zuen bada Ganixek, haren izenaren aipaitzeak berak gisa hortan emaztearen arpegiaren zimurtzeko? Eri? Ala samur bi etxeak?».

Ganixen etxea hurbiltzen ari: muga batek itzalia zadukan oraino. Bihotza zalapartaka ari zautan. Akidura? Ez, bertze zerbait; zer enakien. Muga apaltzearekin agertu zautan etxea: etxe ttipitto aintzin xuri bat; neurtitzlariaren lau haitz ondoak lau sagar ondo; iturriñoa debaldetan ikertu nuen; xakur xuria duda mudarik gabe bere etxolan lo, holako bero saparekin; ba-kea nasaiki: uste nuen bazter hauk irriek inharrosirik zaudela alderat.

Etxe aintzineko gela ideki nuen: egoitza, leihoak ondortuak, bere hegaztegi zabalak leherturik bezala zadukan. Gatubeltz tarro bat, buluntrina bat iduri biribilkatua; harrasi izkina

batean lo. Eta hanxe harrasi zokoan, jarririk gizon bat, baka-
rrik, lurrerat so: atorra has, unthusik, pipa xuri xango motz bat
ahoaan, dena ere hila naski.

Nor othe nuen hor? Ez othe nintuen entzuna? Eztul batez
zintzurra lagundu nuen. Emekiño emekiño burua altxatu. Zer
adin zuken begitarteak etzaukan garbiki salatzen: poxi bat zi-
maildua, baina ez oraino xahar xaharra: matel hezurak idor;
begiek, zorrotz izanak gatik, zerbait laño eta ezti zadukaten.

Noren aintzinean othe nintzen? Ganixen? Oh! ba etzita-
ken; ene ametsetan enuen hortan ikusia. Eta Ganich etzena bi-
txia? Etzena irri-egingarria? Hunek etzuen deus bitxirik, fritsik
irri egingarririk. Nigar egingarria zen eta kasik!

—Zer zira zu ere Ganixen ikusterat jina? Etzira ez lehena.
Irri egiterat jina bazira, etorri bidetik itzultzen ahal zira. Zer
uste duzu? Irri eta trufa gose nizela. Ene burlariak eztakite
nondik aski zer asma nitaz jostatzeke. Nik hau gaizki erran,
hura makur egin. Eniz ez bertzeak baino zozoago. Erdaraz
gaizki mintzarazten nute bazterretan. Nor da hobendun? Ikas-
tegieta galtza guti higatu dut gero. Eskuara ez othe nuen aski
ene xokoan goxoki bizitzeko? Zuen trufen eta burlen ondorio-
ak? Ene laguna bihotzminak gazterik ereman; ene haurrek,
bortz seme eta bi alaba, ahalgeak lilluraturik, bakarrik utzi nu-
te; hirirat ihes egin dute aitaz ahalge, eskuaraz ahalge, Eskual-
Herriaz ahalge...

Horra zer zautan erran Ganixek ahapetik, boz ezti eta
laño batekin. Eta ni han mindagon xutik, belauniko beharra.
Etzautan ez Ganix mintzo; Eskualdun zaharra nuen, Eskual
Herria nuen ene aintzinean. Eta orduan ezagutu nuen Ganixez
trufatzea Eskual Herriaz trufatzea zela.

Ganixen gisa, Eskual Herriak zonbat haur Eskual-He-
rriaz, Eskualdun izaitez, ahalge direnak, beren sorleku ederra-
ri ihes egiten dutenak, beren arbasoen ohidura eta aztura
arruntak uzten dituztenak, eztakit nongo eta nolako molde bi-
txiangoak baino bitxiangoen hartzeko!

Eta anartean Eskual-Herria husturik dago, nigarrez: az-
karreki oraino eta erroak barnegi hiltzeko eta erortzeko, odola
hotzegi eta xuhurregi unsa bizitzeko eta luzaz irauteko. Zer
egin? Bihotzez eskualdun giren guziak egon Eskual-Herrian
ahal bezenbatean, herritik kanpo alde edo molde gure sor-le-

kua gorets trufatzeko orde, mintza eskuaraz ahalgerik gabe (eskuarak nehoi, hitzkuntza bihi bati, ez du zorrik!), gure aztura ederreri jarraik eta horrela gure ondokoeri utziko dogu gure Eskual Herria gure arbasoek utzi zaukuten heinean, edo azkarrago! Agian ba!

(«GURE HERRIA», 1923, III, 528-532)

LAFITTE, Pierre

(Luhosoa, 1901 - ...)

Euskaltzain «Euskaldun berri» au (ogei urte zituala asi ei zan euskera ikasten) euskal gaietan patriarka andi dogu. Zer ez dau Lafittek ikertu, landu, argitaratu? Itzez eta lumaz, etenbageko lanari ekinez, Ustaritzeko «Semenario Ttipian» sartuta, naiz batzarrrik batzar, euskeraz eta frantsesez, emen aiatatu ezin beste idazlan eskeini deusku: aldizkarietan emondako lanen gainera, A. Onaindiak euskerazko 14 aiatatzen deuskuz, izen eta guzti, eta erderazko 10... Euskal literatura eta euskerea bera sakon-sakonetik ezagutzen ditu. «HERRIA»-ren zuzendari izan da urte askotan.

Liburu batzuk: 1) «Eskualdunen Loretegia» (*Lehen Zathia: 1645-1800. Baiona, 1931*); 2) «Kantuz» (*Baiona, 1939*): kantategia. 3) «Grammaire Basque» (*Baiona, 1944*); 4) «Lexique Français-Basque» (*Baiona, 1954*).

77.—LIBURU BERRI: «ARGIZ ARGİ»

Iratzeder-ek berriz ere liburu eder bat ateratzen dausku eskuaraz: *Argiz argi*.

Hortan bilduak ditu hamar bat urtez ontu dituen bertsu eta oharpen andana bat (1947-1957). Lehenago agertarazi zituen *Pindar eta lano* (1920-1941) eta *Zeru-menditik* (1941-1946). Segur eta fida gira bertzerik ere emanen daukula iturri beretik, ezen 1946-etik hunat ez dugu aditu agortu dela.

Argiz-argi liburuak hiru zati ditu: lehenean irakur ditazke «bihots-barnekoak»; bigarrean «bidez bidekoak»; hirugarrenean «zeru-xortak».

Nahiz hirugarren zatia ez den dena bertsu bertze biak diren bezala, erran behar dugu olerkia edo poesia ez duela nehun ere eskas.

Iratzeder-en olerki-bildumak ez du eiki bere izena gaizki hautatua: *argiz-argi!*

Egungo egunean, Eskual-herrian berean ere gisa hortako liburu gutik hartze lukete titulu bera.

Maizegi mintzaira trakes ezin adituzko batean izkiriatuak, beharriaren hatzemaiteko deus soinurik gabe, ez dira mamiz hobeak.

Koblari hainitzek ez dute mundua argi kausitzen, bainan ilun. Ez dute ere adimenduaren argian sinisterik, eta ez heieri aipa Jainkoarenik. Ezinbertzez ikusten duten argidoiak berak min egiten diote: beren begi erre nigartiek ez diote deusen edertasunik salatzen: denak itsusi, makur, deitoragarri eta jasan gaitz zaizkote; denak nahi lituzkete bixtatik suntsitu: iduriz ez dute nehoren ganik hoberik igurikatzen, nun ez den bazterrak indarka xeha lezazketenen ganik. Uko bezala egin diote lagun-nen maitatzeari, uko lan ixil baliosari, uko otoitzari. Heien atsegin bakarra, zaurien zirikatzea eta gaizkontzea.

Iratzeder ez da segur minduri herratsu goibel 'hoietarik.

Nehork bezain barna senditzen ditu pena, dolu, doloreak. Badaki lur huntako bizia nigarrezko haran batean deramagula. Bainan infrentzuak ez dio aldea gordetzen. Gauzen eta jenden ederrari ez da gibelaz itzultzen: heraberik gabe kantatzen ditu zeru-lurrak, mendizelaiak, ibai-itsasoak, haurren behako garbiak, amen bihotz eztiak, egiaren pindar xoragarriak. Orotan kausitzen du Egilearen zerbait leinuru orhoitgarri.

Zaurieri ez diote ez ikusiarena egiten, bainan nahi ditu ez samindu, bai ordean goxatu eta ahalaz sendatu.

Fede azkar argi batek altxatzen diozka gogo-bihotzak, eta egungo hits-keriez haratago, biharko zorionak ez zaizko ahan-tzen.

Bertzek jo dezatela hil-zeinua goizetik arrats, on bazaiote.

Iratzeder-ek Bazko-ekzila joiten dauku, mundu huntako argietarik bertzeko argietarat geramatzala, argiz-argi.

Eskerrak eta goresmenak diozkagu bihotzaren erditik.

(«HERRIA»-n argitaratua)

78.—MAKHILA

1

Begizatua nuen aspaldi mendian
mizpirondo xuxen bat sasien erdian;
handitzerat utzi dut, eta harrekila¹
aurten egin dut nere eskualdun makila.

2

Bi erroden gainean joaiten ez ikasi,
burdin bidetan, aldiz, sabela nahasi.
Bainan nun dut karrosa? nun dut beribila?
Oinez beti banoa... eskuan makila.

3

Kana² delako batzu hirian baituzte;
hoitarik gehienak deus guti, nik uste.
Eztut hoik bezain herbail³ nik nere kabila,⁴
eskuan dudalarik... eskualdun makila.

4

Askotan ikusi tut ibilki herrian
aitzindari erneak ezpata gerrian.
Bekaiztia⁵ ni ganik urrun joan dadila,
zeren eta baitut nik... eskualdun makila.

5

Igandetan goiz-goiza, xamarra emanik,
etxeko andreari agur bat erranik,
entzun eta oihuka dorreko ezquila,
ni banoa harturik... eskualdun makila.

6

Nere sakelak nahiz ontsaño miatu,⁶
jin zait behin gizon bat... Bainan zer gertatu?
Segurki eztu erran bater'ez nakila
ibiltzen eskuetan... eskualdun makila.

7

Jaunak atxik nezala luzezki munduan
bai eta ezar gero betikotz zeruan.
Orduan, haur maiteak, otoi! nerequila
emazue hobian... eskualdun makila.

8

Gero zeruetako mendi ederretan
eta hedoietako izar xurietan,
Jainkoaren alkitik han urbil-urbila,
ibiliko naiz lerdan... eskuan makila.

Begiztatua nuen aspaldi mendian
mizpirondo xuxen bat sasien erdian.
Handitzerat utzi dut, eta harrekila
hemen egin dut nere... zeruko makila.

(«ITHURRALDE») («*Kantuz*», Donostia, 1980, 22-23)

(1) Harekin, agaz. (2) Canne, bastón. (3) Makal. (4) Clavi-
ja. (5) Enbidia izatea. (6) Ondo-ondo aztertu.

ETCHEBERRY, Jean Baptiste

(Donestihiri, 1903 - ...)

Erri-izkera bizi aberatsez idazten dau. Bere lanik geienak historia antzekoak dira, baina beste bere eretxi asko sartuz. Iparraldeko aldizkarietan idazten dau.

Liburuak: 1) «Zeruari buruz» (*Baiona*); 2) «Michel Gariçoits Sainduaren bizia eta bertuteak» (*Baiona, 1962*); 3) «Franziako Erregina» (*Baiona, 1966*); 4) «Obrak mintzo» (*Bayonne, 1970*).

L. Mitxelenak autortu eban idazle onen euskereak «arriturik eta izaturik» utzi ebala, «ezpaita iztegietatik artua, baikik eta berezkoa, ao-mintzaeraren iturri garbitik dariona... bere liburua irakurri ondoren, asia nazu pentsatzen ez ote nukean euskeraz ikasten abiatu bear, eta asi-asieratik abiatu, gaiñera» («EGAN», 1963, 1-3, 151).

79.—(URGULUA)

Egundainoko legea baita: sathorrak bezainitsuak garela gure huts larrienen ikusteko eta aldiz arranoaren so zorrotza dugula bertzen faltaño tikieneri ohartzeko.

Adinetako aphez batek kondatzen zautan Chilhar Ezpeletar pilotari famatuak aiphatzen ziozkala maiz eta ahoa bethez irabaziak zituen partidak.

Noizbeit bada aphez hura menturatu zen erraiterat: «Ederki horiek oro... bainan eztuzu hitzik erraiten galdu partida heietaz!»

Eta orduan izen goitia«azeri zaharra» emana zioten plaza gizonak ihardetsi zion, boza aphalduz, aithormenak ustegabetarik, klixk, ilhuntsen zaizkola begi-niniak:

«Ez izan beldurrik! nik galdu partidak... bertzek aiphatuko dituzte!»

Hoberena liteke ahal bezain guti gure buruen aiphatzea, gogoan hartuz San Frantsesek egin atheraldia:

«Gure buruaren aiphatzea! joko lanjerosa... nunbait han korda legun, lerrakor baten gainean ibiltzea!»

Nork ez daki ere urgulutik heldu direla nihonereko¹ minberatasun, bekaizkeria, thema, ohore gose, aiherkunde, lotseria eta gaineratiko hisdura guziak.

Den mendreneko laudorio, goresmenak, esponja bezala hazirik ezartzen gaitu; bai eta ere laido, ikustate eskas ttikienaren gatik osoki muskerturik plantatzen.

Indietako erran zaharra badagoke bertze eskualde guzientzat: «Urgulutsua zinhairri gorria bezain jeloskorra da, elefant oiestua² bezein aiherkorra».³

Zonbat ezta oraino bere bizi guzia jelosian⁴ eta ohore gosean herratua higatzen duenik!

Renan deithu idazle frikunak (hortan ixildu izan balitz bederen!) erraiten zuen: «Azken judizioan ere izanen dire herriko kontseiluan sarthu nahiko dutenak!»

Bizkitartean, daukat eskualdun gogolariek ere aski garbiki erakutsi dutela zer diren urgulua eta haren ondorioak.

Huna zer dioten:

*Urgulua ezpada Galtxagorri
Da hura iduri.*

Alainian bada⁵ zer tzarkeria izigarriak ez ditu egin arazten urguluak!

Bertzalde kargu gotenatarat heldua den espantox,⁶ handikaria ez da ohartzen askotan denen irri-egingarri dela.

*Ziminoak gora iganago
Eta... iguzkia ageriago.*

Gauden beraz zoin gure xokoan, gure heinaz orhoituz, egiteko xumeeneri uko egin gabe.

Bertzenaz,⁷ *Hi handi, ni handi, nork erranen dik astoari:
Arri!*

Nork ez ditu ikusi ere handi-nahiak egin-arazten dituen arrunkeria, lelokeriak jenden aho-mihitan ohorezki aiphatuak izaiteko.

Molde guziak on zaskote sail hortan:

Aitzinetik thorra⁸ eta gibeletik jorra.

Egarri denarentzat pegarra ezta sekulan zikinal

Eta dakizula ustegabeko laido, afruntuak ez dituela lotsatuko lehen ezbaian:

*Goregi igan dena ahalgegabeki
Behera jauts daite ahalgekizuneki.*

Ophila hozterat utzi gabe dezagun erran ez direla bethi gai direnak bermatzen kargu handieri buruz.

Gisa hortako burujope,⁹ handi uste guzieri tokatzen dire eskualdun zuhur-hitz hauk:

Oin orori

Ez da eman oski gorri...

Untzia zombatez hutsago

Hanbatez ozenago...

Bederen igurikimen bat izan dezakegu aphaletik atheratu direnak berteak baino goxoago eta jendekinago agertuko direla kasko horietan?

Ez, eiki!

Jaunetan zoin da latzena?

Ezdeusetik jauntzerat heldu dena.

Horra beraz gure arbasoek hain gordinki deitzen zituzten «zorri hil piztuen» ixtorioa!

Bertzalde gauza ttikiagoetan ere, zombat aldiz ez gare zeiharretik jalgitzen, gibel-asmu, hautsi-mautsi edo gezurño bat goiti-beheiti gure buruen edertzeko.

Ikazketako mandoak ere malezia bertsua erakutsi zuen, erran zaharraren arabera...

Mandoa, nor duk aita?

Borthuko behorrik ederrena ama!

Azkenean, hobeki erakusteko urguluak fruitu on salbagarririk ez daukula sekulan ekartzen, huna aspaldiko zuhur hitza:

Handikeria noiz edo noiz lilitzen

Bainan sekulan ez bihitzen.

(ETCHEBERRY, Jean-Baptiste, «*Michel Garicoïts...*», Baiona, 1962, 205-207).

(1) Inun diran. (2) Basati biurtua. (3) Bengantzazale. (4) Bekaizkerian. (5) Ain zuzen ere. (6) Arroputz. (7) Bestela. (8) Igurtzi. (9) Andikerizale.

SALLABERRY, Etienne

(Heleta, 1903 - ...)

*Abade eta Filosofia Irakasle, artikulu asko idatzi dau, as-
tero, «HERRIA»-n, frantsesez eta euskeraz, «So Egilea» ezize-
naz. Europa batu zale. Azken gerrateko goraberak sarritan ai-
tatu ditu bere idazlanetan.*

Liburua: «Ene Sinestea» («Iragan biziari gibeletik beha»),
Zarautz, 1978.

80.—GERLA

Gizonak ez du akerrik, haren bizkarrean emaiteko, lehen-
go juduek bezala, bere hutsak. Gizonari bakearen artatzea. Gi-
zonari gerlaren baztertzea. Hala beharra, gizonak hautatu aba-
rra.

Atlas ziganteak egun guziz, lehenko erranaren arabera, bi
eskuz dauka goiti mundua. Bakea berdín atxiki behar, egun gu-
ziz, gerlaren leizetik gorago gizonak. Orai gerla lotua Polonian.
Orai amor emaiten hasiak Atlas baketiar zigantearen besoak.
Orai, odol kolore jartzen ari zerua.

Justin, Behauze-Garaiko ene arreba gehienaren¹ senarrak,
erraiten daut, begiak eskuz gorderik, 14-eko gerla egina baitu:
«Gerla! Gaixoak, bazinakite zertarat zabilzaten!»

Eta nik ene baitan, gizonari hastiel² baitzaio bertzeen ha-
ren alderako urrikia:

«Ez gaituk ez zuek baino gutiago. Zuek egin duzuen, egi-
nen diuk, guk ere. Ez zirezte bakar, azkar».

Mañex Iturburuko kusia gazteak jalgitzen daut:

«Beraz hemendik goiti Daladier nagusiaren mutil zirezte».

Eta nik baietz. Lepo gibelean banuela gobernamentuaren
uztarria jakinki, nindagon tenore berean den gutieneko zorio-
nik eta zorigaitzik gabe. Hamalauko gerlariak bazoatzin ger-
larat kantuz, loreak treinetako leihoxketan. Gu lore eta nigarrik
gabe, ixil-ixila, begitartea murriz, eginbidea eginbide.

* * *

1939-ko buruilaren edo irailaren 3-a. Uzten dut lili xuriz
eta lili gorritz Uztaritzeko mendixka-erditan kokatu San Fran-

tses Xabierrekoaren lili floka.³ Sartzen naiz Tarbes hiriko or-dokian, Soult kazernako etxe beltz multzoan. Etxe gora luzeak. Dena zoko-moko zikin. Soldadoen kantuan, mahiak erhi tre-bes bat lohi gainean. Aintzindari pekoen etxexkan jartegiak zi-lo, argien inguruan oihal bat, gu sortu gabe uliek bere ttort egi-teko hautatua. Harriturik nago. Euskal-Herriak, Euskal elizak, bere gazterientzat, sos pilik gobernamentuak eman gabe, Uztaritzeko lili floka altxatu, eta Frantziako gobernamentuak, Frantziako armadak bere gazterientzat gaztelu ustel horiek hola-hola utzi, dirua trumilka⁴ zutelarik eskuetan! Frantziak ez du, Euskal-Herriak bezala, bere gazteria goresten.

Herrixka bat. Harat beha, dena gizon. Hunat itzul, dena gizon. Nor norat zabilan, nehork ez jakin. Ene eta ene lerro-koen lana, «apela» edo gizonen deitatzearen egitea. Lan ezin bururatua. Landestarrak jiten zaizkitan ebiakoitz⁵ aratsalde-tan:

«Egin nahi ginikek itzuli bat etxeraino. Ez haizala ohart gure hutsari».

Aise zaitan. Ohartzea zitaken neke. Igande aratsean han nintuen tanko⁶ ene gizonak. Batek edo bertzeak ekartzen zau-taten zerri poxi edo ahate azpi:

«To, emazteak eman zautak hau, hiretzat».

Besta ginuen aintzindari pekoek, horiekin, biharamunean. Gure igandea, astelehena. Zertarik hasten den gizonen arteko elgertasuna? Landesak deituak dira Alpes mendietarat, mario-den ibiltzean trebe izaitea gatik. Etorri zaizkitan:

«Nahi duka jin gurekin? Zorion ginikek hirekin ibiltzea».

Onartuko nuen gogotik. Bainan aintzindari pekorik ez be-har. Alpes-etan ba soberakina.⁷

Onartuko nuen. Bizkitartean, zin eginik nagon: lehenik Frantziak baitio behexiak⁸ behar dutela egon Elizak eta He-rriak, ongi hori. Onartzen dut osoki. Mintzatuko naiz beti apez gisa Jaungoikoaz, behin-ere ez Frantses gisa herriaz. Bigarre-nik, apezak omen baigira jeus⁹ ez, apezan kontrakoak aldiz zer-nahi, ongi hori. Onartzen dut errotik. Egonen naiz ene lerro apalean. Ene eginbidea beteko orratzetik hari. Izanen punttala-kurlo.¹⁰ Bainan behin-ere ez ene burua eskainiko nahizkari gi-sa... Kant-ek zion: «Behar da izan eginbidearen soldado, ez na-

hizkari». Ni eginen soldado. Ni ez izanen behin-ere nahizkari.¹¹
Ni Kanten bidetik ibiliko.

Zin lehenari jarraiki nitzaio, gerlaren galtzeak Frantzia
dohakabe ezarri arte. Zin bigarrenak ez daut ongirik ekarri.

(«*Ene Sinestea*», 127-129)

(1) Zaharrenaren. (2) Iguingarri. (3) Sorta, txorta. (4) Botaka,
ugari. (5) Zapatu, larunbat. (6) Ordu-ordurako. (7) Geiegi, so-
bra. (8) Bereziak, aparte jarriak. (9) Deus, ezer. (10) «Punta-ala-kulo»
(ume-joko bat). (11) Voluntario.

NARBAITZ, Pierre

(Azkarate-Baigorri, 1910 - ...)

Baionako Bikario Nausi izana, eta kalonje. Euskal historiaren ikertzaile. «P. Arradoy» ezizena erabilten dau.

Liburuak: 1) «Elizako liburua» (Baiona, 1948); 2) «Kattalinen gogoetak» (Baiona, 1955): A. Villasantek gipuzkeraz itzuli eta argitaratua; 3) «San Frantses Jatsukoa» (Donostia, 1966): euskaraz eta frantsesez.

81.—ENE OILOAK

Noiz artio erranen dut «ene oiloak»?

Gure Maider hori aspaldian hasia nuen erraiten: «Utz eni, ama, eneak dira!»

—Hireak? Ago emeki, ez hiz oraino etxekandere!

Aithortuko duta? Gehienik etxekandere nizala, badakizea nun zautan iduri? Ene oiloen erdian.

* * *

Goizean bereziki, athea idokitzen diotetalarik, eta burrustan¹ ene zangopetarat heldu zauzkitalarik, iduri zaut zinez norbait nizala... Huni beha, hari oihuka, pikokarier erasia bat, orori artho pikor zombait eman behar, badut zer egin.

* * *

Eta ene gogoetak! Gure oilaskoak frango pollitak heldu... Zonbat oilanda izanen othe oilo beltzaren xitoetan?... To, bertze hori ere koroka. Alta baginuke oraino errulen² beharra!... Egia erran, kukuruxta³ gorri dira gehientsuak oraino, hobe! Eta holako...

* * *

Horiek oro irringarri?⁴ Baditake. Dena den, ez nuen ene lana salgai, eta frango borthizki haizatu dut Maider: «apo txarra... ago...»

* * *

Bainan ohartu bainiz haatik, emeki emeki, ene laguntzeko ari zela... Bertzalde, Seroretan ikasiak, nahi lituzkela etxean frogatu... Zertako ez? Jakitateak baliatu behar du... Ba omen dira oilo motak biziki erruleak, eta denbora berean haragi one-

koak: hots, guk behar bezalakoak... Baina ez omen dira bertzeekin nahasi behar, bixtan da... Eta gure horiek, zer buhameak! Batzu beltz, bertzeak xuri, bertzeak horail...⁵

* * *

Arrazoin du Maiderek. Joanesek ere hala dio. Egia erran, konprenitzen hasia niz ez dutala bethi manatzen arizan behar, baina behar dutala emeki emeki ene haurer esku-gain gehixago eman... Hori da, menturaz, gazten altxatzea... Eta nork daki ez dutenez hola etxea maiteago izanen?

(«Kattalinen gogoetak», 21-22)

(1) Zaparradan. (2) Arrautza-egile. (3) Gangar. (4) Barragarri. (5) Ori.

LARZABAL, Pierre

(Azkaine, 1915 -)

Amabi urtetan Hazparnen abade, gero Alemanian preso, arrezkero Zokoan erretore. Gure aldizkarietan sarritan idatzi dau, folklore-gaiak ere maite dituala. Baina bere osperik andiena antzerkiak emon deutsoe: idazle ugaria (100 antzerki lanetik gora!), askotariko teatro-lan erraz atseginak eskeini deuskuz, erriak aintzat artuak... Batzuk aitatzekotan, «AUSPOA»-n argitaratuak egingo doguz: «Bordaxuri» (1962), «Senperen gertatua» (1964), «Hiru ziren» (1962); «Herriko bozak edo nor alkate» (1962), «Hila esposatu» (1965)... Euskal gizon andien bizitzea ere erabili izan dau bere teatroan: Etxahun, Matalaz, Berterretxe, Bordaxuri...

82.—BORDAXURI

(Seigarren gertaldia)

Joka-Lekua.—Hil-erriak. Erditik, hil herrietarat jausteko eskalerak. Eskaleren pean, bizpahiru eskualdun tonba.

Jokolariak.—Paxkal, Bordaxuri, Hil-botza, Erretora.

Paxkal (Tonba baten gainean jarria, pinta bat arno aintzinean, ber bera elheketa ari).—*Hauxe da gau ederra... Bordaxuri, kasu hiri... Musikariak engoitik aphailatzen ari dituk... Oren baten buruko, oi zer tutak...¹ Gizagaizoa Bordaxuri... Erhotzen hasia omen da. Hilak eta ezkeletak eta ikusten omen ditu... Eta heiekin mintzatzen ere omen da... Ori aski du hunat jitea elhestatzerat... Izanen du konpainia ederra elhestatzeko, hemengo egoiliar guziekin... Debru zoroa...*

Ez niz ez ni oraino hortaratua... Nun othe da hil-herri zaina? Hitzartuak gire elgarretaratzeko, pinta arno hunen husteko... Arno buxundatua da gero...

Zer gau ederra... Gu hemen elgarretaratzen girela nork salhatu othe dio jaun-erretorari? Debru mutzurdin tzar horiek seguraz ere...

Ies, zoin berant heldu zautan hura berriz... Botoila hunen hasteko ere tire-boxoinik² ez diat... (Entseetzen da idekitzerat bizpahiru moldez: azpitik joz, gain behera inharrosiz, hortzez)

Brien-ariña nola idek ordian?... (Xutiturik berriz ere entseazten da idekitzerat, besoazpian, zangoen artean, tonba bati joz eta hola... Kexu gorrian jartzen da). Ha, idek hadi ba... Egarria niok, idek-hadi, zozoa... (Botoila pausatzen du tonba baten gainean, eta haren aintzinean belhauniko, othoitzean lotzen zaio). Alo, idek-hadi, idek, gaizoa... (Koleran eskuetan hartzen du, bota nahi balu bezala, debruetan harat). Idek-hadi... Ez nezakala koleraz... Idek-hadi edo hausten hut... (Potaka eta milikaz lotzen zaio). Ho, kanpotik bederen edaten ahal banu... Hum, ez baitu haatik, berinak arnoa pasatzerat uzten...

To, ago hor... (Tonba baten gainean pausatzen du eta ix-tant bat ixilik dago). Ha, ez du Jainkoak ideki nahi... Ontsa da... Beraz debrurik balinbada, botoila hau idek dezatela... Ha, ez da ez Jainkorik ez debrurik gehiago. (Ikaratua) Ya, ya, ya... Nor da hor heldu? Jaun erretora othe da hori?... Gorde gaiten... (Gordetzen da).

Bordaxuri (Kapa beltz batez beiti, emeki emeki jausten da eskalerer beheiti, penaz herbaildua mintzo da). Hilak, heldu niz zuen egoitzetarat, bizek ez bainute gehiago bakean utzi nahi... Ene izena bethi enekin dut... Bainan izenaren ahalak urrundu dire ene ganik... Ez naute gehiago norbaitzat hartzen ez kanpokoek ez eta ere etxekoek, ez eta Jainkoaren gizonen... Hola ez nitake gehiago bizi... Axal mamiz hustua bezala niz, ihizi basa azken zalapartetan zakurrak segitzen duten bezala, etsai multzo batek inguraturik naukate... Hilan tonbat, idek zitezte enetzat... Suntsi nadila... ez deus bilaka nadila... Ez deus bilaka nadila...

Hil-boltza (Apal, latzgarri, emeki mintzo tonba petik bezala).—Sortuz geroz betikotz sortua haiz.

Bordaxuri (Ikaretan).—Nor da hola mintzo?

Hil-botza.—Bertze munduko botza mintzo zauk.

Bordaxuri.—Ha, ez bainintz bederen sortu...

Hil-botza.—Sortzea Jainkoak, zortea hihaurek...³

Bordaxuri.—Hi, hilak, zuen bethiereko ixiltasunak ingura nezala...

Hil-botza.—Hobendunentzat ez da ixiltasunik...

Bordaxuri.—Bakea, bakearen eske nabil...

Hil-botza.—Hobendunentzat ez duk bakerik...

Bordaxuri.—Ho, adixkideak, nun zarezte ene adixkideak?

Hil-botza.—*Gaizkiliarentzat ez da adixkiderik, bekatuzko lagunik baizik...*

Bordaxuri.—*Zer? biziak ez aski... hilak ere etsai...*

Hil-botza.—*Hire etsairik handiena, hire baithan.*

Bordaxuri.—*Ene baithan?*

Hil-botza.—*Ba, hire baithan den hobena...*

Bordaxuri.—*Urrun dadiela ene hobena ene ganik.*

Hil-botza.—*Urrun igorrak.*

Bordaxuri.—*Nola igor dezaket?*

Hil-botza.—*Sar-hadi urrikitan...*

Bordaxuri.—*Urrikitua ahal niz?*

Hil-botza.—*Dolutua hiz, ez urrikitua...*

Bordaxuri.—*Ez urrikitua?...*

Hil-botza.—*Urrikiak galdatzen du aithormena.*

Bordaxuri.—*Aithortzen dut.*

Hil-botza.—*Hihauri, ez duk aski, deneri behar duk aitortu.*

Bordaxuri.—*Ha, malurusa ni, ene bizia ez dezaket uka... ez, ez... Bordaxuri ez daiteke umilia... Umiliatzea, itxurarik gabeko gizon bilakatzea litake... Nahiago dut hil, bizien artean hil bat bezala bizi baino... Eta zer? Ni hobendun... Badituk nik ere ene arrazoinak... Hilak, hil tonbak idek zitezte... Hilak, mintza zitezte... (Erho begi batzu ikaratuak egiten ditu). Bannan zer ikusten dut? Ala burua galtzen ari dut? Ha ene burua... Zer da eni luzatua dagon ezkeleta hori?... Hortik, hortik, tonbatik... Ha!... (Oihu izigarri batean, eskaleretan, sahets baten gainerat erortzen da).*

Hil-botza (Emeki boza dardarikatuz).⁴—*Malu-ru-sa... malu-ru-sa, be-thi-kotz, be-thi-kotz.*

(«Galerianoa»ren kantu hauk entzuten dire oihal gibelatik... erdi amets batean bezala, Bordaxurik entzuten ditu).

*Kantatzerat nihauzu alegera gabe,
ez baitut probetxurik trixtaturik ere,
nehun deusik ebatsi, gizonik hil gabe,
sekulakotz galerak neuretako dire.*

Paxkal (Agertzen da... Harritua behatzen dio Bordaxuri-ri... Publikoari mintzo).—*Zer gertatu zaio huni? (Ikaratua) Hila da naski. Apezketarat⁵ juan behar dut... (Jalitzen da).*

(«Galerianoa»-ren kantuak).

*Ene aita da gizon kontsideratua,
semia galeretan du segurtatua,
nun nahi othoitzean belhanikatua,
saindu iduri debru madarikatua.*

*Elizan sartzen dire debozionaekin,
iduriz dohazila saindu guziekin,
beren liburu eta arrosarioekin,
debruak pesta onik einen du hoiekin.*

*Hok eman izan ditut ez xangrinatzeko,
ahide adixkidek kuraia hartzeko,
eta partikulazki, aita, zuretako,
kantu hauk aditzean semiaz orhoitzeko.*

Bordaxuri (Begiak idekitzen ditu zerbait ikusten balu bezala... Burua pixka bat altxatzen du... Botz apal hil batez mintzo da).—*Barka zedatak,*⁶ *Piarres... barka...* (Burua pausatu eta azken hatsa botatzen du).

Paxkal (Agertzen da eskalera buruan).—*Huna nun den, jaun erreтора.*

Erretora (Agertuz).—*Ha, arrazoina du, ba... Ies, Ies..., Zer gertatu zaiohuni?* (Hurbiltzen zaio Bordaxuriri... Foltua hartzen dio... Grimasa⁷ bat egiten du... Absoluzione bat emaiten... Xutitzen da eta jenderi mintzo). *Hunek aldia egina du... Bordaxuri, etxalde gidari zuhur eta fermua, zuzenaren zerbitzari leiala, baina gizon osoa... Adimendu zorrotza, baina bortitza... Bihotza berdura⁸ beldurrez, bihotz idorra... Beretzat norbait eta bertzentzat norbeit nahia... Bordaxuri, guk ez dakigunez, Jainkoak onhart dezala zutaz egin dugun jujamendua...*

OIHALA

(«Bordaxuri», Auspoa, 11, Tolosa, 1962, 116-126)

(1) Orubete barru, oi zelako turut-otsak. (2) Sacacorchos. (3) Euk. (4) Dar-dar emon. (5) Abadetan, abade bila. (6) Eidak. (7) Ziñu. (8) Bigundu.

IRATZEDER, Xabier

(Donibane Lohitzune, 1920-)

Jean Diharce goiko ezizen orregaz da ezagunago gure artean. Bellokeko monastegian abade. Idazle ugaria, bai prosaz, eta bai, batez ere, neurtitez. Kantu ta goratzarre barriz, eta Salmoen itzulpenaz (bertsoetan), sekulako mesedea egin deuto gure liturgiari. Poeta mistiku bikaina. «Otoizlari» aldizkariaren zuzendari. Teatru-lan batzuk ere ba ditu...

Liburuak: 1) «Pindar eta Lanho», *Ed. Ezkila (Urt): 1920-1941 arterananoiko olerkiak.*

2) «Zeru menditik», *Ed. Ezkila (Urt, 1959): 1945-1946.*

3) «Argiz Argi», *Ed. Ezkila (Urt, 1969), 1947-1957.*

4) «Fededunen arbasoa», *Irrisko sorta, L. Zugaza Argit. (Durango, 1977).*

5) «Salmoak» (1963): *Lerchundi-ren musikarekin.*

83.—MENDIZ BERTZALDEKO... (*Aita Donostia zenari*)

Mendiz bertzaldeko Eskual-Herria

Ezin geiago zait zoragarria.

Badu bihotzeko Su pizgarria

Zainetan indarra, soan irria.

Alde huntako Eskual-Herria

Etzait gutiago maitagarria.

Eztu bertzean den suzko-jauzia

Bainan bai: Goxoa eta Neurria.

Indarra eta sua ez othe dire

Denen pizgarriko iduzki-lore?

Goxoa, neurria ez othe dire

Zeru urdinaren soaren pare?

Bai, han bada neurri, bainan ez aski:

Ai, hotzik argitzen suak balaki!

Bai, hement bada su, bainan ez aski:

Ai, zeruan bethi balitz iduzki!

Su neurri-gabeak zoin maiz dituen
Goxoa, neurria itho-arazten!
Neurri su-gabeak zoin maiz dituen
Indarrak titiltzen, gogoia histen!

Hangoek balute suan neurria,
Guk aldiz baginu su pizgarria,
Mendiz bi aldetan zer Goiz-argia,
Salbu bailitake Eskual-Herria!

* * *

Eup! Eskualtzaleak, altxa burua
Erdal-espantuka utziz mundua.
Gainez gain elgarri eman eskua:
Pitz dakigun berritz elgarren sua.

Ez dadila izan, gure galgarri,
Lokarri gabeko bi Eskual-Herri,
Har elgarren ganik bai su, bai neurri;
Jos, eskual-indarka, denek elgarri!

(«EUZKO-GOGOIA», Orrila-Garagarrila, 10.)

84.—BESOAK ZABAL

(Frantses Zabierekoa mintzo...)

*«Gauaz besoak zabal
ikusten zuten
izarrerri so, nigarrez...»*

Zabal gauez gau besoak, zabal eta luza:
Izar dirdirez goitiko Jaunarekin mintza.

Zabal nasaiki besoak, zabal eta luza
Zabal dakizun zabalki eihartu bihotza.
Nitan zabiltzan indarrak eta Amets gaitza
Zergatik zutan jauzteka ez ote dabilta?

Ez atxik hola besoak sakelan sartuak
Ez atxik, bertzez ezaxol, deplauki bilduak.

Ez atxik bihotz-erroak lurrari lotuak,
Utz, bertzen trufen lotsekin, irri eihartuak.

Entzun gauez gau, minez min, munduko oihuak:
Zure bihotza zabalik behar du munduak.

Zabal besoak zabalik, zabal eta luza:
Izar dirdirez goitiko Jaunak zabal beza,
Zabal, hedaraz, kraskaraz¹ zu baitan bihotza.

Besoak zabal emazu daukazun guzia
Zure bizian sar dadin Jaunaren bizia,
Zure itzalez bertzetan zeruko Argia.

Besoak zabal egizu Jaunaren nahia:
Zorion erein-beharrez guziak balia,
Gau-intziretan jauz-araz zeruko irria.

Besoak zabal joan beti, ez bizi «erdizka».
Muga, neurriak ken-zkitzu eta trufak oinka.
Besoak zabal zabalik Mundua besarka.

Zabal besoak gauez-gau, zabal eta luza:
Izar dirdirez goitiko Jaunarekin mintza.

Jaunaren lagun har zazu bere Amets gaitza,
Bertzen bihotz barnea argiz argi dadin:

Zabal besoak zabalki, zabal eta luza
Egizu beso zabalena betiko agintza.

(«ARGIZ ARGIZ», 48-49.)

(28/1/53)

(1) Zabaldu, autsi erazo.

85.—NUN HABIL ORAI?

Etxahun:
Izen bero, izen ilun...
Etxahun!

Nun habil orai, Etxahun, zoin bidetan kantuz?
Hire pertsuno minkorrek jender karkailatuz?

Hire bihotz kartsu eta zabalegi hori
Bidetan ote deramak zarrapo eta zauri?
Herrestan ote haiz beti beilaz-beila joaki,
Ezpain zimurrak irri, barnea urriki?
Ez ote ditek geihago, ontsa bazkaldurik,
Kikera zolan kautsitzen hire trufa txarrik?

Etxahun:
Izen bero, izen ilun...
Etxahun!

Ziberotarrak hastean jauzi errabian
Ez ote haiz hor kantari dantzaren erdian?
Elizen hiru dorreak ari direnetan,
Eskualdun zintzurren bortxaz, kantu daldaretan,
Ez ote haiz hor, Etxahun, bozek airatua,
Zerurat eskaintzen ari eskualdun kantua?
Hor haiz ote haize luzek, gau-intzirak lagun,
Gauetz-gau diotelarik: «Etxahun, Etxahun...»?
Hor ere Etxahun baten deiyadar beroa
Guziak pizten aitzean¹: «Agur, Ziberoa...»?

Etxahun!
Izen bero, izen ilun...
Etxahun!

Hi bezein pertsularirik ez duk orai nihun...
Begia ortzi ta ximixt, jeiki ba, Etxahun.
Badituk bai noiz edo noiz xutitzen direnak
Eta arno-sukarrea pertsutan dauzinak²,
Bainan hik bertze sukarrik, bertze surik huen:
Minez, maitez, errabiaz hintzen hi pertsutzen.
Ai, iragan inharrosiz eskual-lur hoztua;
Haugu³ nola gau-itzala, nola hil-zeinua...

Etxahun!
Izen bero, izen ilun...
Etxahun!

Entzun beza nork edo nork, hire deia, entzun:
Eta gora egin beza pertsuka oiharzun.

Eskual-minak eta suak hezurretan jana,
Jalgi bedi oihutzeko bihotzen auhena.

Hezur ta larru dohala kantuz eta eske,
Munduko bidetan bilduz jenden trufa merke.

Bai, dohala bidez-bide eta beilaz-beila,
Eskual-anaien amorez Jainkoaren bila... (1/9/46)

(«ZERU MENDITIK», 90-91.)

(1) Aritzean, diarduenean. (2) Saltoka ari direnak. (3) Ator.

86.—JAUNA DUT ARTZAIN (22. salmoa)

1. Jauna dut Artzain: / ez naiz egonen / beharrean.
Zer gainetarat / nerabilan!
2. Ur bazterreko / pausa¹ lekurat / banerama,
Pitz dakitan² hor, / pitz arima.
3. Haren ondotik / bide zuzenez / ni banoa:
Haren izena / zoin gozoa!
4. Ilhunbez ala / gaitz-erreketa / joanik ere,
Nik ez beldurrik, / hor baitzare.
5. Zure begia, / zure makila / hor direno,
Badut nik bake, / badut gozo.
6. Zuhauk³ dautazu / ezartzen neri / mahain xuri,
Etsai guzien / harrigarri.
7. Ixurtzen duzu / nere bururat / usain ezti,
Basoan badut / gaindiz-gaindi.
8. Nik zoriona/ eta grazia / ditut lagun,
Nere bizian / gaut et'egun.
9. Banago-eta / Jaun Zerukoa / den etxean,
Ephe luzerik / luzenean.

10. Ospe Aitari, / gizon egin den / Semeari,
 Bai Izpiritu / Sainduari.
11. Lehen bezala / Heieri ospe / orai ere,
 Hala dadila / bethiere!

(*Iratzeder-Lerchundi, SALMOAK, Ed. Ezkila (Urt, 1963.)*)

(1) Atsedn. (2) Bizkortu dakidan. (3) Zeuk.

HARITSCHELHAR, Jean

(Baigorri, 1923 - ...)

Bordeleko Unibertsitatean Irakasle, Euskaltzaindiaren Buru-ordeko, Baionako «Musée Basque»-ren zuzendari. Izleri bikaina. Ainbat azterlan sakon egin dau euskal literaturan: Larralde, Bordaxuri, Etxahun eta Otxalde, eta, batez ere, Barkozeko Etxahun aztertuz.

87.—OXOBI

(...) Diela zazpi urthe orai, hil zitzaukun, Jules Moulié Arrangoitzeko Jaun erretor ohia, bizi eder eta saindu bat eremanik, bere egin ahalak eginik bai elizaren, bai eskuararen alde. Uste dut zela gain gainetik: Baxe Nabarreko seme, Elizako artzain, Eskual Herriko olerkari.

Bidarrain sortu zen, mila zortzi ehun eta laueta hogoi ta zortzigarren urthian. Berak aitortzen dauku J.-B. Oxalde Bidarraitar pertsulariaren kantien bilduma agertarazi zielarik: «Sortzez bidarraitarra nihaur, eta bertze aphez eskualtzale zombait bezala, guarda semea, adixkide batzuer iduritu zitzaiole Oxalde zenaren bizimoldeaz eta kantuez orhoitgarrienak bil nitzazkeela». Bizikitartian, etzen egon anhitz denbora Bidarrain eta gazetetasuna pasatu zien, herriz herri, guarda-semek ardura pasatzen duten bezala. Herri horietarik bat Baigorri. Bastida deitzen den kartierreko etxalde batian, Oxobian, iragan ditu zombait urthe. Dударик gabe, bere izen ordea, Oxobi, hartu duke etxe horren izenari pentsatuz, Baigorri pasatu dien denboraz orhoituz. Urthe guziz bazoan, Itsasun bizi zen amatxiren etxerat, bakantzetako denboren pasatzeko. Ez du sekulan ahantzi Itsasu eta nahi ukan du han ehorts zezaten. Halere, Larresoron egin zitielarik bigarren maileko estudioak, erdara zerabilan ardura, eta, bere lagun eta adixkidek diotenaz, ez zen eskuaran hain trebe. Gero joan zen Naieko seminario haundirat, Baionakoa hetsi zutelakotz mila bederatzi ehun eta bortzeko legek. Nork erranen dauku zer zitzakon ordian gertatu? Behar bada, Eskual Herriatik kanpo bizitziak du sortarazi Oxobiren bihoztian eskuararen amodioa, Biarnoko herri hortan du aditu, barne barnetik heldu zitzakon eskual olerkari eta idazlari izaiteko

deia? Etziren guti harritu eskolako lagunak, jakin zutelarik agertarazten zitiela pertsu andana bat «Eskualduna» deitzen zen astekarian. Gero, mila bederatzi ehun eta hamabian, apez-tu ondoan, izendatu zielarik Baionako aphezpikiak Hiriburuko bikario, laguntza eder eta balios bat eman zakon Oxobik, Hiriart-Urruty «Eskualduna»-ren buruzagiari (...)

Mila bederatzi ehun eta hogoita zortzian izendatzen du Baionako aphezpikiak, Dohoztiriko erretor. Herri ttipi hortan pasatuko ditu hamahiru urthe. Lehen hauzoetarik bat, Gerezie-tako erretora, Zerbitzari. Holako bi erretorik ez ditaik eise atxeman Eskual Herri guzian. Bat, Zerbitzari, pilotari eta pilo-tazale, eskualdun eta eskualzale suhar, aphez ere osoki. Bertzia, eskualdun eta eskualzale kartsu, elizako artzain, fededu-nen artaldiaren begiratzale, Dohoztiriarek deitzen zutena: gure erretor ona, edo hitz batez, Oxobi.

Eta frantses erranak dion bezala: «Jamais deux sans trois», bi erretor berezi horien ondoan, ezarriko dugu Donetx, Arnegiko erretor zena.

Alabainan, ez zen bertze eskualdun aphezak bezalakoa Oxobi. Gorphutz lodi, bisai gorri eta zabal, arduenian zimur, heldu zitzakolarik adixkide bat zerbaiten galdegiterat: «Ez niz nehoren zerbitzari» ihardesten zakon berehala. Bazakiten de-nek, gazte ala zaharrek, zer ziren haren kolerak. Zonbait eta zonbait inharrosaldi ukan dituzte katiximan Hiriburu, Dohozti-ri eta Arrangoitzeko haurrek. Gorritia, oiuhu huni, oiuhu hari, iduri zien leoin ikaragarri bat. Jaun erretoraren erasiak etziren bethi denak intzutekoak. «Un curé folklorique», hala deitzen zien Eskual-Herriko jaun mera batek. Egia erraiteko, maitiagio dut J.-P. Iratxetek erraiten ziena: kolera, bekain ilhun, ateraldi izigarri horiek zirela: Oxobikeriak.

Bainan, bertze kararik badu Oxobik. Arrangoitzen zelarik erretor, mila bederatzi ehun eta berrogoita batetik eta mila be-deratzi ehun eta berrogoita hamabortza artio, nor nahik ikus zezaken platana ondo azpjetan jarria, nehoi kasu egin gabe, ezin akabatuzko pentsaketetan sartia, iduri bertze mundu bate-tarat joana. Eta, egia erran, bere alegien mundian zagon, mar-marika bat afoan, pertsu moldatzen ari. Maite balinbazien ba-kartasuna, halere elgartasunaren amodio haundia bazien. Pie-re Lafitte jaun kalonjeak kondatzen dauzku zer ziren Dohozti-

rin edo Arrangoitzen egiten ziren Eskualtzaleen Biltzarreko buruzagien biltzar ttipiak. Erran dut deitzen zutela jendek: gure jaun erretor ona. Ez dezagun sekulan ahantz, aphez zela gain gainetik. Prediku alkitik bere bizi guzian, hedatu du, eta zoin ederki, girixtinoek deitzen duten «berri ona». Behar zen intzun, bereziki Ama Birjinaren zazpi doloretaz mintzo zelarik. Eskuara garbi eta tinki batian, boz indartsu eta eder baten medioz, ixurtzen zien fededunen arimetan, girixtino legiaren errespetia, Jaun Goikoaren amodioa. Apheztegitrat joan zitaiken nor nahi, eskale ala adixkide. Bereala, lehenbiziko memento gaxtoa pasatu-ta, bortak zabaltzen ziren, eta galdez jiten zirenak, bere-na, nasaiki, ukaiten zuten. Gorphutzeko janarien jabe zen Nartar gelaria, arimako hazkurrien emaille, Oxobi, bihotz neurri gabekoa. Lehenbizian, borthitz, bainan gero gizon alegera, bihotzduna, egiazko karitatez bethia (...)

Dezagun erran lehenik, idazlari hoberenatarik bat daukagula Oxobi. «Gure Herrian» edo «Eskualdunian» izkiriatu ditien artikuliak, lan mamitsuak dira, gorphutz haundikoak. Erraiten dutenek Eskuarak ez dezakela gauza gorarik eta barnarik ederki aipa, irakur ditzatela Oxobiren idatziak eta ikusiko dute nola eskuaraz jabetia zen. Hala nola, bere lanari lotzen delarik, ofizialiak, abilezia haundienarekin, tresna mota guziak ibiltzen baititu, hala Oxobi, eskuararen ofizialia, eskuara den tresnaz baliatzen da, erran behar ditien gauzak aphaintzen ditiela behar diren bezalako edergailiekin.

Oxobiren erakaslia: gure literaturan den gizonik haundiena, Axular, Sarako erretor izana hamazazpi garren mendean, «Gero» edo «Geroko gero»-aren idazlari famatia. Berak gores-ten du ezin hobekiago:

*Eskerrak Axular!
Bihi, bazka, indar,
Egun eta bihar
Badakigu nun har;
Zu baithan...
Lagunak ez lokhar:
Aditurik elkar,
Dugun eskuara sar
Eder, jori, hazkar,
Orotan.*

Idazlari eder eta indartsu izan dela Oxobi, nehork ez dezake ukha. Olerkari bikaina ere bai. Bainan bere olerkietan, alegiak, bereziki zauzkit gustatzen. Erran dut jadanik Hiriburu, Dohoztiri eta Arrangoitzeko haurrek jakin zutela zer zen Oxobiren larderia. Eta bizkitartian, bihotzeko segetian, maitatu ditu zoin nahi eskualdun aphezak baino gehiago. Hendako eta Eskual Herriko haur guziendako ditu asmatu eta idatzi pertsurik goxoenak. «Alegiak» deitzen den liburu ttipiaren aintzin solasian dauku aitortzen bere nahikundia: «Eskuaraz jauntzi ditut bertzek ametsturikako alegia batzu... Den bezala, liburutto hau onhartuko daute, agian, eskualdun haurrek. Eskualdun haurrentzat egin da».

Hor dugu, hor, egiazko Oxobi. Bere olerkien mundian, haurren mundia bezalakoa, badabilta Astoko, eta Otsoko, axeri faltsu, bele zozo, ttiritta ergel, erbi izikor, uli xinaurri eta leoina, aberen errege. Kondaira eder horietan, La Fontaine frantses alegia egilearen gisan kondatu ditu, abereak ararteko harturik, mundu huntako gizonen eztabadak, urguliak sortzen ditien gudukak, gure arteko faltsukeriak, hemengo miseriak.

Badea gauza ederragorik! Erbia, erbi xoroa presentatzen daukularik, hitzak heldu zauzkigu, hura bezala erne, bizi, jauzikor, iduri bat bertziari pusaka, beren harat hunatian:

*Erbitto bat: beharri xut, buztan labur,
Ausik, itzul, beha, jauzi, bethi beldur (...)*

Hein hortarat heltzeko, behar da zinez olerkaria izan. Behar dira neurthitzak moldatu, ez pertsulariak bezala besta edo zoingehiagoko batian, bainan pausuki, etxeko ixiltasunian. Jitez olerkaria izanikan ere, lanari lotuz da, Oxobi, olerkari haundia bilakatu. Bere bizi guzian onhartu du, Boileau-k, idazlari guzier eman dien kontseilia:

«Cent fois sur le métier, remettez votre ouvrage».

Bai, ehun aldiz, hartu ditu bere neurthitzak, gogoan erabili, jo harat, jo hunat, hitz bat kanbiatuz hemen, bertze zerbait aphaindu han. Lan hori eginez, bazoan bethi, onetik hobere nerat. Gero, untsa lantu, legundu, orraztatu ondoan, kantatzen dute neurthitzek, olerkiaren kantu ederra, bihotza dute bethezen, gogoia lilluratzen.

Zendako othe, La Fontainen alegiak ikasten dituztelarik gure hurrek eskoletan, ez ditzazkete ikas Oxobiren alegiak? Horiek dira gure Eskual kulturaren ontasunak. Behar dituguia debaldetan utzi? Eskualdun laborariak, larre uzten ditia bere lurrak? Nahi balinbadugu gure eskualdun eginbidia osoki beha, aintzinekoek utzi daukuten ontasun ederrez behar gira baliatu, behar ditugu erabili. Hori ez eginez, bigarren aldikotz hilen da Oxobi, eta izanen gira, gu, haren hiltzaliak.

(«OXOBI-ren LAN ORHOITGARRI ZONBAIT», Bayona, 1966, 7-13)

MIRANDE, Jean

(Paris, 1925-1972)

Parisen jaioa, baina gurasoak zuberotarrak. Euskaldun barria: 20 urteaz asi zan euskera ikasten. Izkuntza-zale eta idazle ugari. Bai politikan eta bai erlejino arazoetan, gizon bakartia. Aize barriak sartu zituan euskal literaturan. Idazle landu ta dotorea, «batu» antzeko euskerea erabilten dau. Olerkari fina, nobelista, baina, batez ere, ipuin-egile nabarmena...

Liburuak: 1) «Orhoituz», Kriselu (Donostia, 1976): olerkiak.

2) «Idazlan hautatuak», Gero 45-46 (Bilbo, 1976).

3) «Haur besoetakoa», Lur-Kriselu 14 (Donostia, 1970.)

88.—GAUAZ PARKE BATEAN

Andere zaharra jarri zen parkeko alkhi bazter batean, eskuko zaku moda zaharrekoa amultsuki gerriari kontra herstuz. Gautzen ari zen jadaneko, bainan astia zuen etxera itzultzekotz; hurran bizi zen, eta udaberriko airea goxo eta ephela zenuten... Haren aldamenean, ordea, paseiantak beren egoitzetara lehiatzen ziran: langileak, parkeko bidea labur-kausaz hartzen zutenak; eskolier eta istudiantak, eskola-liburu eta -tresnak besapean; amorosen bikoak, emeki eta besotik heldurik zebiltzanak, andere zaharrak ametsetan bezala so egiten ziotelarik. Bakharra othe zegoen orai parkean? Eta zenbat denborarentzat? Bainan ez: gizon gazte bat aitzina zethorren, zalhoen. Haren aurretik iragaiten emetu zuen urhatsa eta begiratu zion, zalantzan iduri; gero jin zen haren ondoan jartzera.

Andereari ez zitzaion atsegin izan haren ondoan jarri baitzen, bainan alkhia ororena zen, ezta? Muthilak zigarreta bat phiztu nahi izan zuen, eta anderea ohartu zen eskuak ikharatzen zitzaizkiola; bi mitxa erabili behar izan zituen heltzekotz. Zainbera zelako pentsamenduak irriño bat athera zion emaztekiari, eta muthilak aitzakitatz hartu zuen irri ixil harekin elhekan hastekotz:

—Gaualdi ederra, ezta?

—Bai, gaualdi ederra, bainan bertze gaualdi batzu ezagutu izan ditut, oraino ederragoak —ihardetsi zuen, gogoetaturikan.

Gizon gazteak bitxiki so egin zion, eta andereak ba zekien bere baithan zerabilela: «Atso ergel hiztun bat, dudarik gabe...» Eta andere xaharrak emaiten zion khexaduraren mendekioz edo, hobeki, gaiztakeria hutsez, galdegin zion aphur baten buruan:

—Ez zare beldur, Anderea, zuhaur thenore huntan, eta lekhu huntan?

—Zergaitik beldur izan behar nintzate?

—Zergaitik? Bainan hemen gerthatu diren gizerhaitekak gatik, nàski.

Ene! Zertarako muthilak orhoit erazi nahi ziozkan, gaue-tarik gau huntan hain zuzen, aitzineko urthetan parkean gertatua: eskoliersa bat, gero berrogoi bat urthetako ama familia-ko bat, eta azken aldian neskatila bat, hirurak hilik hatzema-nik, zintzurra tinkaturik, eta erhailea oraino ihes? «Ez, ez naiz beldur», erran zuen deplauki. Gizon gazte hori gero eta despla-zentago zitzaion. Eta bet-betan gogoak eman zion deliberatuki ethorri zela haren ondoan jartzera, haren diruaren ebastekotz. Herstu zuen eskuko zakua bere gerriari kontrago. Bainan gi-zon gazteak, haren mogimendua ez ikhusirik —edo ez-ikusia eginik—, aitzina erran zuen: «Gauza lazgarria: hirur emazte he-mentxe ithoak izan, bakhoitza udaberri batean, eta aldi bakhoi-tzean poliziak huts egin! Nork daki gizerhailea ¹ ez dagonetz parkeko itzalean gorderik, gau huntan bertan?»

Andereak ba zekien orai muthilak izi nahi zuela, haren za-kuaz jabetzekotz... Hâtik ez zuen utziko hartzera... Ozenki ihardetsi zion:

—«Ba dute aspaldi erhaiteka ² horiek. Egilea hurrun date engoiti. Ez naiz ez beldur.»

—Ez dute hain aspaldi, azkena —gogoratzen zare? neska-tilla gazte harena...— joan den udaberrian izan zen eta.»

Orhoit zen anderea, bainan ez zuen beldur izan beharrik, ez muthil horren, ez bertze nehoren. Eta, jakin-gose ergel batek bultzaturik, galdegin zion:

—Zure ustez, nor zen egilea?

—Oh! dudarik gabe sadiko bat —erantzun zuen, ez-axol.

—Bai, arrazoin duzu, hirur emazte gazte ithorik, dudari-kan gabe agure sadiko batek hilak.

—Eh! ez hain zalhoin ibil zure arrazoinamendukan... —egin zuen muthilak, irriz. «Nik dakidanez, erhailea gazte izan zitekean, ez bortxaz agure bat.»

—Ez, ez —ihardetsi zion, emeki bainan sarkorki, hartaz se-gurtatu nahi izan balu bezala, zeren gaua baitzen orai eta biok bakharrik zeuden parkean—, agure batek baizik ez zitzakean hirur emazte gazte eta eder horiek hil!

—Bai'ta gizon gazte batek ere. Gogoan atxik ezazu ez dio-la, idurien arabera, hilen adinari hainbat axolik, emazteki diren ber: hirurotarik bat haur bat baizik ez zen, bertze bat bi adinen arteko andre bat... Uste izateko da emazte-kente³ guztia duela higuin... Zergatik? Heien amodioa ezin irabaz dezakelakotz othe? Beharbada eder ez delakotz, edo alde baterik bertze gizonak ez-bezalako delakotz, Edo'ta enbalditua. Gerthatzen ohi dena da, ba dakizu. Ene kasua har ezazu: maingua naiz (anderea ez zen ohartu maingua zenik, parkean gaindi zethorrelarik!), gauza guti da nâski, halaz ere behaztopo bat emazteki bati korte egin nahi banio» —erran zuen irri idor batekin, eta gero: «Hots, gizerhaile sadiko bihurtzekotz zio bat aski indartsua, gogoa edo zainak eriak lituzken batendako!»

«Egia da», pentsatzen zuen andereak, «gutariko bakhoi-tzak mila eta milazka ba dauzka gaiztagin bihurtzeko zio nahi-koak...» eta amets egin zuen luzaz lekhu-komun hortan gainen. Osoki ahantzirik zituen muthil gazteak oixtion sor erazi zioz-kan duda-mudak oro... eta hunek, bet-betan hari hurbildu eta eskuko zakua indarka khendu nahi izan zionean, izialdurak baino areago ustegaberik izateak athera erazi zion orroa bat. Ez zuen ez beldurrik, bainan ez zion zakua hartzera utzi behar, eta tink-tinka atxikitzen zuen.

«Alo, eman zaidan berehala!» manhatu zion borthitz mut-hil gazteak, eta zintzurra bihurtu nahi izan zion. Moldegarzik, ordea, gerthuzko⁴ gaiztagin batek bezala..., pentsatu zuen, er-deinuz, andereak. Nork zekien hargatik etsipenez zeren egitera prest zatekean? Nigarroiki othoiztu zuen beraz:

—Utz nazazu, ärren, ene dirua emanen dautzut bai!

—Berehala bainan, atsoa, bertzela... —ihardetsi zuen gizo-nak, bainan lephoa laxatu zion. Andere xaharrak zakua ideki

zuen, eta muthilak engoiti eskua hedatzen zuen moltsaren hartzekotz. Bainan haren begiak borobildu ziran harridura gatik eta ahoa zabaldu zuen oihu baten egoztekotz, bertan ithoa izan zena, ezen andereak moltsaren ordeztu billhur bat jalgi zuen zakutik eta aski trebeki gizon gaztearen lephoaren ingurura aur-diki... bai eta halako emazteki adintsu baten ganik nehork igurik⁵ ez zezakean indarrarekin tinkatu zuen berehala, ziotsalarik: «Ez hintzan hi gaur bilhatzen nuen ihizia, bainan hihaur jin haiz ene sareetara, ez dea⁶ hala?»

Ezin jakin zuen, ordea, bertzeak aizina⁷ ukhan zuenetz hitz horien entzutekotz, bere luzean eroria baitzetzan alkhiaren oinetan, begithartea jadaneko urdindurik eta mihia ahotikan erdi atherarik. Andereak arthoski deslothu zuen bilhurra eta eskuko zakuan harzara goititu. Gero segurtatu zen gizon gaztea hil zela, beharria haren bulharrari kontra emanaz. Hila zen, bai, eta harekin batean itzaliak ziran bethikotz haren osasuna eta haren gaztetasun ederra. Ez zen gero egia maingua zenik, eta ahorpegia eder zeukan, bizi zelarik! Alo, berriz ere itho ahal izan zuen andereak haren bizitze bakhar, hilduratuaren-tzat irain bat ezin jasanezkoa zen «bertze»-en atsegin eta bizi-nahia... Berriz ere, dathorren primaderarainoko, bederen. Bere etxera itzuli zen, eta nehork ez zuen bidean hauteman.

Parisen, 1960-6-26.

(1) Asesino. (2) Asesinato. (3) Especie. (4) Egiazko. (5) Itxa-ron. (6) Ez ete da. (7) Astia, beta.

LARRE, Emile

(Baigorri, 1926-...)

Euskaltzaina. Lafitte-ren ondoren, «HERRIA»-ren zuzendari. Bertsolari ta kantari fina ere ba dogu Aiherra-ko erretore jauna...

89.—XALBADOR-EN «ODOLAREN MINTZOARI»
AITZIN SOLASA

Etxea eta familia

Etxea du bihotzak bere lehen jo lekua, etxean du maitasuna ezagutu, hazi, segidatu. Hori lehen lehen agertzen zaio liburu hau jastatzen duenari. Bego berak erran noren seme dugun Xalbador:

*«Aita nuen gizon bat tatxarik gabea,
haren seme hau baino ainitzez hobea.»*

«Kantua ta fedea ditut aitarenak» erran ondoan goretsi bezala ere bere ama, huni buruz diolarik:

«Amodioz nahi zinuela nitarik gizon bat egin.»

Eta huna, lehengoan alderat dituen zorrak eta ezagutza erran ondoan, nola mintzo den oraingo etxeaz eta bere familiaz, bere maitasuna hain baitu gogotik kantatzen. Bere lagun maitea «hogoï urtetan bezala» maite duela badakigu berak erranik, zeren:

«Amodioa zintzoa bada, ez dira konda urteak.»

Hala ere, diren bezain bihotz hunkigarri izana gatik aita, ama edo emaztearen alderako hitzak, aita bati bere ume ta haurretan zaio bihotza osoki guritzen, arrailtzen edo eritzen. Alabaren ezkontza, semearen edo etxearen geroa, bai Xalbador, zuk holako gaietan Mattini berari begietan nigarra begiztatu zenionak, ez ahal zenuen zuk ere begia bustia hitz hauk zure semeari Ameriketarat idaztean?

*«Laster ezkontzeko zaik haurride gaztena,
bertze bien ondotik deramagitena;
amari errex jauzten zaiok hasperena,
gure etxean sendi duk uda azkena,
hi haiz uda berria ekar hezokena.»*

Baina badaki gure gogoetariak, ez dutela gauzek eta jendek balio bera, izana gatik ere gauza batzuek, hala nola etxeak, arima bat. Azkenaren beltzean, utz lezake aita bihozduen horrek semea libro, bereaz egin dezala:

*«Bainan ez nitek nahi, o seme maitea,
desafia dezakan kontrako haizea:
sort-etxearen karga bortxaka hartzea;
hobe baituk hi baino etxea galtzea,
nahiz trixtea izan gure zahartzea.»*

Artzaintzak denak badauzka: zorionak, bakea —kanta-tzen ditu ederki hauk ere—, baina lehenik bizi nekea, negu latz eta urte gogorrekin; horiek denek, eta beste pairamen¹ askok diote Xalbadorri erakutsi, ez dela beti loretsu bizia.

Dorpea dela bizia, zaila gauza bakoitzaren ongi bururaztea, hori da Xalbadorrek ekartzen digun erakaspén haundia: bertsoetan eta denetan. Huna beraz gizon bat, asko jasana, beti, bere egun guzietan, ari zaikuna hobeki egin beharrez, eta beti, egin guzietan, gose batekin bezala gelditzen dena: «Ez! Lan hori, bertso hau, ez nian hola hasi edo hola bururatu behar-ko!»... Berak bertsoetako dohainaz dion bezala:

*«Miatu behar laike ahal bezain barna,
lur hoberenak ere baitu bere lana.»*

Eta beti urrats edo biharamun hobe baten peskizan lan eta bere bertso lanetan ari zaikun gizon hori, huna, denen zorionerako, beti hobetuz doala, ardo xaharra bezala. Hortakotz daukagu goresteko eta eskertzeko Xalbadorren begi ta bihotz kez-katsua. (...)

Euskara eta herria

Euskaraz abestu nahi duen batek, nahi ta nahi-ez kanta-tzen du bere herria. Erran genezake Xalbador hemen ere nigarra begian ari zaikula, bere etxeko gora behera batzuetan bezala. Errealismo latz batek ekartzen dion nigar mina.

Nigarra begian bertsoak ez ziran behin batean denen gostukoak izan. Zerua dena izar ikusten zuten gazte batzuek zeukaten badaukala argi pindar ederrik egungo Euskal Herriak eta gauzak beltzen dituela Xalbadorrek. Gure eritziz ikusle bat da poeta eta bakoitzak bere begiz ikusten ditu gauzak. Eta gauzek badauzkate bi alderdi behintzat: Euakal-Herriak ere halaxe.

Hemen hauxe erran nahi du bakarrik Urepele-ko ikusleak: argi bezainbat ilun ikusi duela berak bere inguruan, euskara galtzen, ukatzen eta leizeratzen dutenetan, eta horrek nolakatzten dion bihotza. Zafalako bat bezala hartzekoak dira hunelako lerroak, loak hartzen ari dituen euskaldunetan:

*«Ama Euskal-herriaz naiz naigabetua,
uztera doalakotz betikotz mundua...»*

Herritarrak herrian berezi direla eta hortakotz, lehen ere, atzerritarrak hemen nagusi tokian exeri. Baina kontuz dagotzila² hauk ere holako semeekin. Ama Euskal-Herriari zaio oraino mintzo:

*«Zure lekua hartu duen andereak
gurekin behar ditu piratu bereak;
amaizunarendako³ ez daizke hobeak
ama ukatu duten haur dohakabeak.»*

Egun hortan zerua ilun ikusten zuen ikusleak. Bakar bakarrik garbi hegal bat azaldu zaio lanoen artetik:

*«Baditaike seme hok noizbait orroitzea,
Ama, zu ganik ukan dugula sortzea...»*

Baina ez zaio beste argirik azaldu egun hortan. Nork daki beste aldi batez!... Edo beste norbaitek!... Dena den, bereziki Gipuzko alderat begiraturaz, zerbait ikusten du noski. Herri anaiari erraten dio:

*«Gure herriaz trixte nagon bakoitzean,
zertxo bat alaitzen naiz zutaz orroitzean.»*

Bestalde badaki Xalbadorreak, hala nola Zarautz-en botatu bertsoan, Euskal-Herriarentzat uda berri bat bere bihotz guziaz deitzen. Maiz azaltzen ditu amets eder eta beroak herriaren geroaz. Irakur hortako zer duen kantatzen Baigorri, Al-dude, Urepele, Hazparne herriari, bai-eta Nafarroa eta Gipuzkoari. Baina ezkila bakoitzak bere danga mota izaki, eta Xalbadorrena, egia errateko, berezia da, berak dion bezala:

*«Gogo iluntasuna dut nik nerezkoa,
Jaungoikoak egina nau horrelakoa.»*

Gisa guziz, horra hor bihotz maitekor bat, barren barre-netik oihuz ari.

(XALBADOR, «Odolaren mintzoa», Auspoa, Tolosa, 1976, 12-16.)

(1) Sufrimentu. (2) Egon daitezala. (3) Amabitxi.

HIRIART - URRUTY, Jean

(Hazparne, 1927 - ...)

Hazparneko misionistetan eta gero Afrikan misiolari ibilia. Euskaltzain. «HERRIA»-n argitaraturiko artikulu ederrekin iru liburu atera ditu, eliz gaiak gaurko pentsakeraz eta izkera bizi batez aztertzen dituela. Baionako Bikario Nausi dogu.

Liburuak: 1) «Jauna dut argi: Mundu berri, Eliza berri» (2 tomotan, *Zarautz*, 1977); 2) «Fedea gidari» (*Zarautz*, 1981).

90.—BERTSULARIA ARTZAIN

(9-XI-1978)

Iragan igandean, bertsularien eguna zen Urepelen. Goizetik hasia, meza eder batekin. Mezarat zernahi jende bazuen bildurik Urepeldar bi artzainen orroitzapenak: bat, Xalbador, duela bi urte denek gogoan dugun moldean hil zena; bestea, Aita Pierre Etcheverry misionesta, urriaren 22-an Ugandan 96-garren urtean itzalia.

Xalbadorrek bere bertsuetan hoin amultsuki aipatzen ditu mendi gainean zaintzen zituen ardiak. Bainan bazuen beste ardirik ere: erran ditake Euskal-Herri guzia zuela bere artaldea.

Edozoin bertsulari zinez artzain bat da: herriaren artzaina. Artzainak bere ardiak bezala, bertsulariak bere herritarrak bide xuxenatarik gidatzen ditu, bazka onetarat eremaiten. Bihotz ilundu eta lotsatuetan pizten du esperantza eta alegantzia. Gogoeta arin edo arruntetan dabiltzanak altxatzen ditu goragoko eremuetarat. Behin Hazparnen Xalbadorrek kexu batean bezala hasi zuen bere bertsu-aldia:

*Zendako debru ari zerate
pundu berekilan teman?*

*Gaurko egunak behar gintuzke
askoz gorago ereman.*

Artzainak ardiak biltzen dituen bezala, bertsulariak ere herritarrak ohart-arazten ditu, herri beraren amodioak behar dituela batetataratu.

Herri-artzain da bertsularia. Eta gainera bertsulari hori gixtinoa balinbada, izanen da ere Jesus Jaunaren Berri Onaren hedatzaile.

Xalbadorrek ez zuen gordetzen bere sinestea. Ez da harritzeko galdea ukan baitu, eta beste bertsulari zonbaitek ere ba, elizetan bertsu emaiterat. Bertsulariak ez du apezan moldean prediku egiterik: badu bere molde berezia, bere fedearen agertzeko eta bere haurrideen sustatzeko. Ezin ukatua, Xalbadorren kantu zonbaitek ez dutela predikari hoberenen mintzaldierri batere zorrik.

Ez dadila gero nehor has bazterretik jorran, bertsulari bat elizan entzutearekin: badakigula nor eta nolakoa den, hobe lukela ixilik egonik. Elizan mintzutzerat menturatzen denak, izan dadin apez ala bertsulari, badaki bere itzalen eta hutsen berri. Barnean min bat badauka, ohartzen baita elgarretarik zoin urrun dituen erranak eta eginak, hitzak eta obrak. Eta min hori, nehork baino barnago senditu izan du Xalbadorrek. Jesus kurutzefikatuari otoitz hau egiten zion:

*Zure Aitaren eskuetarik
badut kargu bat ukana:
Bertutearen predikatzea
gizonen artean barna.
Alegiazko kartsutasunez
egiten dut ene lana.
Bainan zu eta ene burua
ezin dezazket engana.*

Zen baino apalago emaiten zuen bere burua, alegiaz ari izan balitz bezala. Ez zen alegiaz mintzo, bainan bihozminekin ikusten zuen Jainkoak zer gizon ahulen ezpainetan ezarria zuen bere hitza.

Xalbador, Urepeldar bertsularia, herri-artzain. Heldu den astean beste Urepeldar artzaina aipatuko dugu, Eliza-artzaina: Pierre Etcheverry misionesta.

(«Fedea gidari», 141-143)

ERDOZAINCY - ETCHART, Manex

(Ibarla, 1934 - ...)

Frantziskotarra. Ainbat aldizkaritan argitara emon ditu bere lanak, olerkiak batez ere.

91.—HOGOITABORTZGARREN ORENEKO
MEDITAZIONE!

Zoin diren ederrak
Jaunaren obrak!

Izadi guziak xoratzen nau!
Begi beharrietarik sartzan zauzkitala:
Izarren iñharrak eta iruzkiaren pindarrak
Mendien gainen-gainak eta itsasoaren zabala
Materiaren ixiltasuna eta bizidunen mintzoa!

Izadi guziak xoratzen nau!
Eta hobeki gizadiak emaiten diolarik bizia:
Bortuan nezka baten begietan sortu argia
Eta haren bihotzak ideki barne beroa
Eta haren ezpainek murmurikatzen dautaten elhea!

Zoin diren ederrak
Jaunaren obrak
Izadian eta Gizadian
Ixiltasunean bezala elhean
Bihotzek elharri
AMODIOA
Mintzaten
Dutelarik!

92.—HAN NUNBAIT BIDEAN

Goiz eder batez bidean nindoakan
—Ardurenik bideetan iragaiten diat
Ene biziko memento edérrena!—
Nindoakan, beti bezala: begia zorrotx, beharria erne,
Gogoa aldiz han nunbait gáldua ene ametsetan!
Bidea zukan garbi, hunkigarri, haritzen itzalpean
Eta errekan behera, haize hegoa trostan¹, ene lagun.

Beharri ziloetan barna sartu zitziakan
Urrunetikako ttaka-ttaka baten harrabotsa:
Zalu, ixiltasuna nahiz zilatu!
Urratsa luzatu nikan haize hegoak bultaturik
Soa hedatuz, ohartu nindukan
Bidean behera
Emazteki bat

Zoala:

Zurkaitz bat bezain mehe, zuzen!

«Jes!, Hauxe da Anderea!

Gure harizpe-tartean: zer lorea!»

So kolpean bildu nikan haren traka²:

Oski takoinak, klaxkan, zalu zerabil-zkikan,

Anka biribilek eman moimendu negurtuan,

Sorbaldek ritmoa osotzen ziotela!

Zer grazia oihaneko berdura aldean.

Burua plomuan (haize hegoak etziokan inarros!)

Emaztekia bazoakan, arin, bidean,

Handikarien artean noizbait agertzeko

Bete ibil moduaren ixtudiatzen: negurtuz, ritmatuz...

(Hola pentsatzerat itxurak hertsatzen nindikan)

Arizan balitz bezala.

Traka ederra zuela, bere gorputz gordinean,

Behar deat baitezpada salatu!

...Bainan abantxu parreratua nintzaiola

Bihurgune batean gorde zukan

Lanjer handi bat senditu balu bezala

Eta ene begien bixtatik betikotz itzali

Jatzartzean³ amets ederrenak giten diren bezala!

(«DOLOREZKO IZARRAK».—Colección OLERTI.—1966,
16-17).

(1) Atrote. (2) Itxura. (3) Esnatzean.

DAVANT, Jean Louis

(Urrustoi-Larrabile, 1935-...)

Xiberotar au Hazparden bizi da, Agronomiako irakasle. Gure Erriaren arazoez kezkatu-rik, gazterik asi zan aldizka-rietan idazten: «Herria», «Gazte», «Enbata»... Gaur Euskal-tzain dogu.

93.—ABADIA ETA XAHO: BI ABERTZALE

Hots, oso desbardinak dira Xaho eta Abadia: bai sortzez, bai jitez, bai bizipidez, bai sinestez, bai ideiaz. Arren, algarre-kin zerbaiten egitera, zerk lehiatu zütian?

Alde baterik, gazte ziren, biak adinak. Besterik, biak xibe-rotar hüme ziren, eta eüskaldüngo-oroz gaiñetik maite zein. Hots, eüskalzaleak ziren errotik eta, egia osoa aitor dezagün, abertzaleak ziren, herrizaleak, hots «Zazpiak-Bat» horren alde-koak.

«Voyage en Navarre» libriaz Abadia-k egin zian aipamena ikusi dügü. Ondoko urtean, hogeita-hamaseian, «Etudes Grammaticales sur la langue basque» libria algarrekin agertü zien biek. «Zazpi Uskal Herrietako Uskaldüñer» eskentürik da. Sartzeko hitza, Abadiak sinatzen du, A. Th. D'Abbadie de Na-varre izenpetürik. Ezi, Nafarroako erresuman da Eüskal-He-rria-aren büria, han gure bihotza, aspaldiko mentetan ¹.

Bai, Eüskal-Herriaren amorioan bildü dira Xaho eta Aba-dia. Areta², ber amorioa balin badie, eüskaldüngo-oro ez die ber-din ikusten batak eta besteak.

Jauna zen Abadia, nahiz xehea, eta ber denboran kanpa-ñakoa. Kristia³ zen, apeztiarra zen, xuria zen: eüskararen sal-batzeko, apezzen gain kuntatzen zian. Bestalde galanta zen, aharren etsai. Azkenekotz, politikan ez zen hanbat agertzen.

Zerbaitetako zian «Eüskaldüngoaren Aita» deitü. Eta ge-roztik ere, ontsa merexitu dü. Ezi orai artinoko eüskaldüngo-aren Aita izan da, ipar alde hontan phürü⁴: «Eüskaldün fededü-nen» Aita, kultürzale hütsen Aita, Koblakari zoinhaboroken⁵ Aita. Hots, hego-aldean «apolitica de derecha» deit liroien eüskaldüngo-oro baten Aita. Baina hori gabe, non zatekian orai ipar aldeko eüskaldüngo-oro?

Aldiz oraiko euskaldüngoaren profeta dügü Xaho: Enbata-ren eta Ehas-en aitzinekoa, beste zonbait alderdi aipatu gabe. Hiritarra zen, gorria zen, politikazalea zen, borrokaria zen: Abertzale politika sozialistaren piper gorria euskaldun-goan sartu daikü. Eta piper gorriz azkar agertzen zaikü oraiko euskaldün gazteria, ipar alde hontan ere.

Bai, gatzza bezain fi⁶ eta sükrea bezain gozo bazen Abadia, piper gorria dügü Xaho. Baina saldak, hon izateko, ez dü behar ez gatzotx⁷, ez hil. Gatzza eta piperra biak behar dütü aski azkar...

Ez ote dü Abadia eta Xaho-ren beharra, bi-bien beharra, Eüskal-Herriak?

Nahiz nihau, politikan Xaho-tiarra nizan, eta piperrada hain bat mingar⁸ maite düdan, Xiberotar hanitxek bezala, uste düt, bai, zerbait ekarri eta ekarten daiküla Abadiak ere: nik ja ez düt ükatüko. Haren errelijjonea phürü, Xaho-rena baino nahiago düt...

Biak ez balira izan, ni beldür heben, egü, gure aitetamen eüskara plaiñian⁹ gozatzeko partez (edo orde), frantses gaixto batetan tarrapatatz ari behar günükiala, txipi eta handi hanitx, üsü ari diren bezala.

Arren, Abadiak oihüstatzen zian bezala: «Zazpiak bat!» Xaho-k kantatzen zian bezala: «Jeiki, jeiki etxenkoak!» Eta Santa Grazin dioien bezala: büria altxaten badügü, bizirenko da Eüskal-Herria, Allah Goihena!!!

(«Euskerá», XXII, 1977, 22-23.)

(1) Mendetan, gizalditan. (2) Gehiago dana. (3) Girstino, kristau. (4) Bederen, gitxienez ere. (5) Zein-gehiagokoen. (6) Fin. (7) Gatz gitxiko, gaza. (8) Garratz. (9) Lauan.

LANDART, Daniel

(Donoztiri, 1946-...)

Gazterik asi zan euskera lantzen, ainbat aldizkaritan («GAZTE», «HERRIA», «ETXEA»...). Prosaz eta neurtitzez idatzi dau, «...Hogoi urte» liburuan ikusi geinkenez; baina teatroa lantzeak emon deutso izenik ederrena. Geienetan, gure gaurko euskal arazoak aztertzen eta astintzen ditu: «Herro eta nigar» (1964), «Mendiko bakea» (1962), «Hilak hil» (1963), «Gure haurra» (1966), «Bai ala ez» (1970), «Noiz» (1971), «Hil biziak» (1972), «Xuri, gorriak eta...» (1973).

94.—NOIZ

- ROXALI— Ohean sartu bezein laster lokartu zaitan. Zurrungan utzia dinat...
- MAIALEN— Hobe! Bake poxi bat ukan dezagun, oihu horien ondotik...
- ROXALI— Egia dion... Emazte hori debruz egina dun...
- MAIALEN— Hik bederen ez dun deus erraitekorik... Ni nun beti hobedun! (*Geldi*); Eta gero, badirela uste dutenak, gu, erregina batzu bezala bizi girela, bakean eta diru askorekin... Funtsean gure hutsa dun... Bakantzetan bagoatzilarik, andere haundi egiten diagan, eta hango jende sekulan ez-jaliek¹ uste diton Rotschild-en alabak girela... Gaixoak... eta gaixo gu... Balakite...
- ROXALI— Bai, arrazoin dun... Balekite... Baina ez diton jakitearen beharrik...
- MAIALEN— Nolaz ez? Hortan nun bada hirekin ez ados! Hunara heldu diren nexkatoek jakin behar diton zerk idurikatzen dituen... Etxekoetarik hoin urrun, herri arrotz batean, jende zikoitz batzuen mutil, sos gutirekin... dantza eta josta tokiak nun nahi...
- ROXALI— Eta gero zer? Uste dun zoriontsuago litazkeela, iguzkiak errerik, egun guzia abereen ondotik, behia-bee-ka?
- MAIALEN— Uste dinat baietz...

- ROXALI— Ago ixilik hortik... Nik segurik ez dinat berriz hara itzuli nahi... Sobera narda nintaken, jende zozo heien artean. Hik nahi badun...
- MAIALEN— Ahal banu... Ez dun berdin...
- ROXALI— Nahia, ahala dun...
- MAIALEN— Ez beti, Roxali... Ni laborari etxe batera ez-konduko nindunan, ez banintz huna etorri. Orain bertzerik dun...
- ROXALI— Horra! Ez haizela hirian gustatzen..., hala ere nahiago dun hemen egon ezinez baserrira itzuli...
- MAIALEN— Huna etorri berrian, uste ninan berriz laster itzultzea. Orain ez dakinat. Beldur nun! Errana dinat biziaren beldur naizela...
- ROXALI— Baditun, itzultzen direnak...
- MAIALEN— Bai... baditun... Baina zonbat? Hori dun Euskal Herriko zorigaitza! Bere alabez husten ari dun... lanik ez delakotz... Husten! eta mutikoak bakarrik ditun ezkongai... Hola segituz gure sor-herria hilen dun...
- ROXALI— Bazakinat hori, hik bezein ongi. Nik hautua egina dinat. Hemen egonen nun. Hi itzul hadi... eta ez eni buruko minik eman!
- MAIALEN— Itzuli-eta zeri lotuko naiz?
- ROXALI— Ezkonduko haiz...
- MAIALEN— *(oihuz)* Hola, tipust-tapastian², nor nahirekin... bizi guziaren pasatzeko...
- ROXALI— Ez asarra, Maialen! Nere gatik ez din balio... Eta azkenean, egizan nahi dunena gero!
(eta Roxali badoa)
- MAIALEN— Bai, edo ahal dutana...
(Ateko xilintxa³ norbeitek joiten du. Maialen badoa idekitzera!)
- MAIALEN— Milesker. Milesker, Anderea. *(entzuten da)*
(Berriz sartzen da, irri ezpainetan)
- MAIALEN— Amaren berriak! Amaren berriak!...
(letra idekitzen du eta gora irakurtzen, bera jartzen dela)
«Maialen maitea,

Badin orai bi aste ukan nuela hire letra⁴. Beti atsegin haundia egiten daitane hire berriek. Ikusi ere dinat leku berrian laketzen haitzela. Hobe! Egizkin nausi-etxekandreek erran guziak, eta ahalaz ez arraposturik eman. Umil izan behar din bizian...

Aita, beti here ezularekin dun. Gilbert aldiz ongi. Ni ere bai, Jainkoari eskerrak. Hemen ez dun berri haundirik. «Uhaldeberriko» Katixa hil izan dun: 87 urte zitinan. 308 meza bildu ditin. Dies Ordreko buruzagia zunan... «Iturburuko» Justin, orga belar gainetik erori dun eta zangoa hautsi. Ez zitenan beste beharragorik Iturburian... laneko ez ainitz izanki eta... «Urrixeko» Irma eta Clotilde Lurdes-ra doatzin, uda guziko lanera... Jendeke dione gazteko direla oraino, alabaina 16-17 urte ditine... Jaun erretora ez diagun hain bizkor. Xahartzen ari, gaixoa... Herrian biziki maitetua dun. Apez saildu bat. Joanden igandean, Hazparneko misionest bat gininan predikari. Ifernuaz mintzatu zaukun...

Denak harrituak gintunan... Ez zela ezteulik galerietan... Segur nun hik ere aditzen ditunala prediku ederrak! Pentsa, Parisen...

Zorigaitz ttipi bat ukan diagun. Badakin, «Palet», aitak Iholdin erosi behi gorri hura, zikin atera zaukun eta saldu behar diagun... Zerrittipiak ere baditiagun, sei... eta beste zerrama bat laster erdiko...

Uste dinat erran beharrenak ezarriak ditudala. Gauaz ez hadila sobera jalgi. Eta pentsatzen dinat, artetan⁵ bederen zonbeit otoitz egiten dunala...

Mila pott...!

AMA»

MAIALEN— (zutik) Gaixo ama! Gaixo ama! Balaki zoin bakar sentitzen dutan nere burua! Balaki zoin dohakabe naizen. Balaki zer bizia deramatan...

Baina zendako amari pena egin araz? Hobe da uste izan dezan zoriontsu naizela. Zoriontsu... baina hitz hori ez da nere ahotik jaigitzen ahal... zintzurra erretzen da! (*geldi*). Eta Hazparneko misionestak, ezagutzen balu Pariseko bizia, ez litake biziki ifernuaz mintza! Gure bizi hau ifernua baita! (*berriz irakurtuz*). «Segur nun hik ere aditzen ditunala prediku ederrak! Pentsa, Parisen!» Gaixo ama! Balaki Parisera jinez geroz ez dutala zangorik elizan sartu... (*geldi*) «Eta otoitz zonbeit egiten duna-la»... Bai, lehenago latinez ikasi heitarik: «De profundis clamavi ad te, Domine: Domine, exaudi vocem meam»... Atzoko ixtorioak horiek ere...

(*Atean xilintxa joiten dute. Maialen badoa atearen idekitzera. Aditzen da Maialenen boza kanpoan:*)

MAIALEN— Jesus! Hi hemen? Sar hadi. Bakarrik nauk... Roxali ganbera horietan duk... Sar hadi...

(*Antton eta Maialen sartzan dira, elgar besarkatuz*)

ANTTON— Aspaldikoa, zer dion? Ongi?

MAIALEN— Holaxet... Eta hi?

ANTTON— Ni ere... baina arrunt⁵ nahasia heldu nun...

MAIALEN— Zer duk?

ANTTON— Huna heldu nintzalarik, badakin nor ikusi dutan?

MAIALEN— Ez...

ANTTON— Maité, «Eiherakoa»...


MAIALEN— Maité? Zer ari da?

ANTTON— Zer ari den? Bahaki!... Huna eldu nintunan urratsa luzatuz, eta karrika mutur batean, nexka gazte eder bat hurbildu zaitan erranez: «Tu montés, chéri?» So egin dionat gainetik beheiti, behetik goiti⁶, bizpahirur aldiz, eta ohartu nun Maité zela! (*geldi*) Arropak hementxetaraino

zitanan, doi-doia... Begitarte guzia tinduz⁷ be-
tea.

(«Noiz», Antzerkia Hiru zatitan, polikopiaz,
1970)

(1) Urtenbakoak. (2) Bapatean. (3) Txilintxu. (4) Eskutitza. (5)
Guztiz, erabat. (6) Goitik behera, behetik gora. (7) Pintura, tinte.



BESTE AURKIDE BATZUK



I. IDAZLEEN AURKIBIDEA

(Idazlanen zenbakiak)

- Adéma, Gratien: ik. «ZALDUBY».
Arbelbide, Jean Pierre: 64.
Axular, Pedro: 29-35. (43). (54). (72).
Barbier, Jean: 66. 67. 68.
Borddel (bertsolaria): 13.
Davant, Jean Louis: 93.
Dechepare, Bernard: 21. 22. 23.
Duvoisin, Jean Pierre: 30. 51. 52.
Elissalde, Jean: ik. «ZERBITZARI».
Elizamburu, Jean-Baptiste: 55. 56. 57
Elizamburu, Michel («Fr. Innocentius»): 58.
Erdozaincy-Etchart, Manex: 91. 92.
Etcheberry, Jean-Baptiste: 79.
Etxahun, Pierre Topet de: (9). 48. 49. (85).
Etxahun-Iruri: 9. 20.
Etxeberri, Joanes (Ziburu): 27. 28.
Etxeberri, Joanes (Sara): 43. 44. 45.
Etxepare, Jean: 69.
Gazteluzar, Bernard: 41. 42.
Haritschelhar, Jean: 87.
Hiriart-Urruty, Jean (Zaharra): 65.
Hiriart-Urruty, Jean (Gaztea): 90.
Hiribarren, Jean Martin: 50.
Ibarrart, Piarres d': 11.
Inchauspe, Emmanuel: 53. 54.
«IRATZEDER», Xabier: 83-86.
Itzaina, Mixel: 19.
Joannateguy, Bazilio: 62.
Lafitte, Pierre: (19). 77. 78.
Landart, Daniel: 94.
Lapeyre, Estebe: 63.
Laphitze, Frantzisko: 61.
Larre, Emile: 89.
Larreguy, Bernard; 46.
Larzabal, Pierre: 82.
Leizarraga, Ionnes: 24. 25. 26.


León, León: 76.
 Ligueix (bertsolaria): 14.
 López (Aphesa): 47.
 Mattin (bertsolaria): 15.
 Mendiague (bertsolaria): 10.
 Mirande, Jean: 88.
 Moulier, Jules: ik. «OXOBI».
 Narbaitz, Pierre: 81.
 Oihenart, Arnault: 36. 37. 38.
 Otxalde (bertsolaria): (9). 12. (87).
 «OXOBI» (Moulier, Jules): 72-75. '87).
 Saint-Pierre, Jean: 70.
 Sallaberry, Etienne: 80.
 Tartas, Iván de: 39. 40.
 «XALBADOR» (Aire, Fernando): 15-18. (89). (90).
 «ZALDUBY» (Adéma, Gratien): 59. 60.
 «ZERBITZARI» (Elissalde, Jean): 71.

II. GAI BATZUEN AURKIBIDEA


(Idazlanen zenbakiak)

Abereak (eta piztiak): 39.51.59. 73. 81.
Aberria: 10. 17. 20. 24. 24. 64. 80.
Alegiak: 59. 73. (87).
Alkarrizketa: 1. 2. 4. 5. 7. 14. 15. 51. 55. 61. 62. 69. 82. 88. 94.
Atsekabe (eta pozak): 1. 2. 16. 21. 48. 56. 75. 82.
Atsotitzak: 38. 79.
Atzerria: 10. 14. 20. 64. 94.
Baserria: 15. 17. 51. 58. 81.
Bertsoak: 9-19. (82). (89). (90).
Bizitz-aroak: 10. 32. 44. 56.
Deskrizinoak: 12. 28. 36. 50. 55. 67. 73. 88.
Emakumea: 2. 3. 6. 21. 24. 36. 37. 49. 52. 55. 67. 70. 75. 81. 91. 94.
Eriotzea: 1. 3. 7. 28. 82. 88.

Erlejinoa: 6. 9. 18. 21. 25. 27. 41. 42. 46. 51. 53. 60-63. 66. 70. 84. 86. 91. 94.
Eresiak (eta erromantzeak): 1-4. 7. 8. 20.
Etnografia (etnologia): 6. 9. 10-12. 14. 15. 17. 33. 50. 51. 55. 58. 60. 64-68. 70. 76. 78. 85. 89. 90. 94.
Euskal Herria: 1. 6. 83. 89.
Euskaltzetasuna: 45. 64. 72. 74. 76. 83. 85. 93.
Euskera: 22. 24. 43. 45. 47. 54. 64. 71. 72. 89.
Familia: 1. 2. 4. 9. 15. 49. 58. 62. 65. 75. 81. 89. 94.
Gizartea: 1. 6. 28. 40. 42. 69. 70. 76. 80.
Gizonezkoa: 19. 78. 80. 85. 87. 89. 90. 93.
Itzulpenak: 25. (46). (47). 52. 86.
Jaiak: 6. 50. 55. 67.
Kazetaritza: 65. 66. 68. 69. 70. 74. 76. 77. 80. 90.
Kondaira (Historia): 1. 2. 6. 31. 40. 46. 56. 58. 60. 61. 64. 70. 74. 80. 93.
Kritika (liter.): (54). (72). 77. (85). 87.
Maitasuna: 2-5. 7. 8. 13. 16. 21. 23. 36. 37. 48. 61. 62. 67. 75. 94.
Narrazioak: 46. 57. 60-62. 65. 68. 70. 74. 76. 88.
Olerkiak: 21-23. 27. 28. 36. 37. 41. 42. 48-50. 55. 56. 67. 71. 72. 75. 78. 83-86. 91. 92.
Teatroa: 9. 82. 94.
Txoriak: 8. 31. 48.
Umorea: 12. 14. 15. 49. 55. 57. 59. 70. 73. 82.



«HIZTEGI TIPIA»



abantail = ventaja
abantzu = ia ia.
ABORO = areago, gehiago
abre = abere
adimendu = adimen
adin = edade / aldi bereko
ADOS = «bat» (confome)
adrezatu = zuzendu
afera = affaire, negozio
AFRUNTU = irain, afrenta
AGIAN = oxala / behar
 bada
agitu = jazo / aurkitu
AHALGE 'ahalke) = lotsa
ahamen = bocado
AHANTZI = ahaztu
aharra = aserre, liskar
ahatara = ahokada
ahate = paita
aholku = kontseilu, kontseju
ahulezia = makaltasun
AIHER (-kunde) = grina bizi
 (gorroto)
AI(N)TZINA = aurre(ra)
ai(n)tzindari = aurrelari,
 buruzagi
aintzira = laku
aire = soinu, melodía
AISE (aisi) = erraz (tasun)
aitaso = aitaita, aitona
AITZITIK = ostera, ordea
aixtiko = oraintsuko
akitu = nekatu / ahitu, agortu
akomeatu = atondu, acomedar
ala = ala / ai!
alargüntsa = emakume alarguna

alarik ere = halan eta guzti
 ere
aldaratu = aldendu, alboratu
ALDIZ = ostera, ordea
alegera = pozik
alegiaz(ko) = guzurrez(ko)
alfer(retan) = alper(rik)
ALHA(tu) = bazka(tu)
alhor = solo/ arlo
alimale = itzel, neurribako
 handi
ALTA = hala ere / bada...
altxatu = azi, ezi/ jagi / jaso
alla = ai! (int.)
amatxi = amama, amona
amaxo = amama, amona
aments = amets / ...orixe! /
 au moins
amoina = limosna
amoros = maitemindu
amultsu = maitasunez bete
ANARTEAN = bien bitartean,
 artean
ANDANA = aldra, talde
 handi
AN(H)ITZ = asko
antsikabe = arduragabe, axo-
 lakabe
antze = trebetasun / talento /
 antz
antzatsu = trebetasun han-
 diko
aphailatu = aparejar
aphairu = afari
aphal(du) = behe(ratu)
aphez = apaiz, abade
apho = sapo
aphoharmatu = tortuga

apiriko = atari, atarte
 ARA = era, modu / neurri
 araitziña = antzina
 ARARTEKO = bitarteko
 arastiri = arrastiri, illunabar
 arauz = segun / sin duda /
 aparentemente
 ARBUIATU = despreciar /
 rechazar
 ARDIETSI = jaritxi, iritxi,
 lortu
 ardit = ardite (balio gitxiko
 dirua)
 ARDURA = sarri, maiz
 areago = gehiago
 argizagi = zeruko astroak
 ariaz = ... gaitik /... bidez
 ARRANGURA = ardura,
 kezka / kexa / bildur
 arrapostu = erantzun
 arrasta = arresto / decreto
 arrats-aphal = illunabar
 arrazadura = estigma
 arroltze = arrau(l)tza
 ARRUNT = común / guztiz,
 erabat
 ARTHA(tu) = ardura (tu) /
 zaindu
 arthoski = ardura handiz,
 kontuz
 arthiki = ik. aurthiki
 asaldu = eraso / larrigura
 askietsi = nahikotzat hartu
 atzeman = ik. atzeman
 ATXIKI = itsatsi, eutsi, euki
 atxikimendu = apego, simpá-
 tia
 atzarri = esna(tu), iratzarri(k)

AUHEN = aiene, kexa, ziz-
 puru
 auher = alper
 aumens = au moins, bederen
 aunhitz = anhitz
 AURRIDE = senide, familia
 bereko umeak
 AURTHIKI = jaurtigi
 ausarki = ausardiaz / ugari
 au(t)siki = aginka egin
 auzaphez = alkate, mera
 azantz = zarata, zalaparta

 BAITHA(n) = etxe / -gan
 balakatu = palagatu
 balaku = palagu
 balin(etan) = baldin
 bana (bena) = baina(n)
 baratu = gelditu / galerazo
 barda = bart
 barranda(ri) = zelata(ri)
 barrandatu = zelatan egon
 bastiza = edificio
 BAT BEDERA = bakotxa
 bedats = udabarri
 bedera = bakotxa
 bederazka = banaan
 BEDEREN (bereren) = gi-
 txienez ere
 begiratu = gorde / begitu
 BEHA(tu) = begira(tu)
 behako = begirada
 behaztopo = oztopo, eragoz-
 pen
 beharri = belarri
 behatze = begirada
 BEHEITI(tu) = behera(tu)
 beila(ri) = erromeria (erro-
 mes)

beiratu = ik. begiratu
bekatoros = pekatari
bena = baina(n)
ber ... = bera / bardina
... BER = con tal de que
berant = berandu
berantetsi = berandu dalako
artega jarri
berdura = estambre de lana
bereren = ik. bederen
berexi = banandu / aukeratu
berex = berezi, aparte
bermatu = ahalegindu, saiatu
berme = fiador, garante /
caución
bero sapa = ito beharreko be-
roa
berriki(tan) = oraintsu
berset = bertso
bertarik = bertatik, berealaxe
bertsua = bardintsua
bertze(naz) = beste(la)
besta = jai, festa
BETAN = batera
bezenbat = baizen, ainbat
bezi = baizik, baino
beztu(tu) = jantzi
bidaia = ibilaldi
BIDE... = behar bada / aren
baten
biga = bi
BIHI = ale, garau(n)
BILAKHATU = biurtu, ez
zana izaten asi
bilho = ule, ille
billhur = lokarri, soka. / vara
birunda = ronda, corro, vuel-
ta
BISAIA = arpegi, mosu

bitxiki = arrigarriri
BIZKITARTEAN = artean,
bien bitartean
bizpairu = bi edo hiru
bokhantza = erretorika, «eto-
rri»
BORTHITZ = errime, irmo
bortu = (basa)mortu / mendi
bortz = bost
bortzetan = amaika bidar, sa-
rritan
bozkario = poz bizi
buhame = bohemio, ijito
buket = (t)xorta
bulkhatu = bultzatu
buluzi = biloistik
burfundia = tema, seta / arro-
puzkeria
burjes = herritar
burraso = guraso
BURRUNBA = zarata, zala-
parta
bururatu = amaitu
buruxkin = buruz behera
jaustea //
BURUZ(ki) = ... ra(ntz)
burzoratu = zorabiatu
damurik = zoritxarrez
DEBALDE(tan) = alperrik
debru = deabru
deihadar = deadar
deplauki = zearo, guztiz
desein = asmo, plan, designio
DESIRA = gurari, desio
dilindan = dingiliz(ka)
dohain = doa, dohai
dohakabe = zoritxarreko
dohatsu = zorieko

dolamen = pena, tristura
 dolutu = penatu, atsekabetu /
 damutu
 dono = doa, grazia / bokazi-
 no
 dorphe = astun
 dostakin = jolas-zale
 dostatu = jostatu, jolastu
 dosteta = jolasketa
 drezatu = zuzendu / jaso
 duda muda = ezbai
 dupin = tupin, marmita
 edeki = edegi, ireki / kendu
 EDIREN = idoro, aurkitu
 egartsu = egarri (adj.)
 egoiliar = biztanle
 egüzaita = aitabitxi / aitorde
 eho = eio
 EHORTZI = obiratu, lurpe-
 ratu
 eihera = errota
 eijer = eder
 eihartu = igartu
 eiki = duda barik / (bai, ez)
 orixe!
 elaire = hizkera / ezagun
 elas! = ay!
 ELHE = hitz / solas / ipuin
 elheketa = hizketa(n)
 elkhi = ik. ilkhi
 elkor = gogor, legor
 ematu = sortu, moteldu
 EMAZTE = emakume
 emazte-kente = emakumetza
 EME (ki) = astiro, kontuz
 emendatu = gehitu
 emokatu = revocar
 engenamendu = asper, gogait

ENGOITIK(k) = aurreran-
 tzean / oraingoz
 enoatu = aspertu, gogait egin
 entseatu = ahalegindu, saiatu
 erakaspén = irakatsi (sust.)
 erakatsi = irakatsi (verb.)
 erantzuki = reprochar
 erasi = kexu izan / aserre /
 hizketan
 eratxiki = erantsi / erantzun
 erdeinu = mezprezio
 eretzean = zerbaiti buruz /
 ondoan
 erhauts = hauts
 ERHI = atzamar, behatz
 eriden = ik. ediren
 ernaldtu = ernaritu, umedun
 biurtu / berotu
 ernarazi = iratzarri
 ERRAN = esan
 errangura = ik. arrangura
 erran-merran = esames
 errapostu = ik. arrapostu
 errebes = aldrebes
 errepika(tu) = lelo / kanpaiak
 jo / berresan//
 erreposki = astiro, patxadaz
 ERRESUMA = erreinu
 ERRI = irri, barre
 erro = sustrai / erho, zoro
 erromes = pelegrino / eskale,
 txiro
 espantu = arropuzkeria /
 mirari
 ESTAKURU = atxakia /
 kexa
 ethorki = jatorri, leinu
 ETXEKI = itsatsi, oratu / eu-
 tsi

etzauntza = abereen ohea
ezein (ere) = edozein
EZI(k) = zeren, ezen, ze...
ez-theus = ezerez
ezti = ezti / gozo / astiro.

farranda = arropuzkeria
ferekatu = igurtzi, laztandu
fermu(ki) = errime, irmo(ki)
ferratu = perratu
fidantzia = uste oso, konfian-
tza
FINKATU = gogor ezarri
edo oinarritu
firurukan = bueltaka
FITE = arin, azkar
fitsik = ezertxo ere ez
fitsatü = aztertu / erabagi / fi-
xer
foltsu = poltsu
fornitu = suministrar
frango(tan) = asko(tan)
frikun = bribón
fritsik = ik. fitsik
frixtan = arin, azkar
froga(tu) = proba(tu)
gabetu = hain barik gelditu /
ezeuki, txiro
GAINDI = ... zear
gaitzitu = iraindu, aserrerazo
gaiza = gauza
GALDATU = eskatu
galde = eskari / itaun, galdera
galera = gartzela, espetxe
galthoz = eskabidez, galdez
GAN = joan
GANBERA = gela
gaphelu = kapela
gara = geltoki (gare)
garaiti = garaipen, victoria

gasna = gazta(e)
GATHAZKA = gudu, borro-
ka
gemen = hemen
geriza(tu) = babes(tu) / osten-
du
gerla = gerra
gerren = burduntzi
GIBEL(eratu) = atze(ratu)
girixtino = kristau
GOITI = gorantz, gora
goiztiri = egunsenti
gomendio = recomendación
gopor = ontzi
grimasa = zinu
GUTIZIA(tu) = codiciar
gutizios = codicioso
HAATIK = hala ere,
habaila = honda
HABARROTS = zarata han-
di
haboro = ik. aboro
habuin = adur, lerde
haiduru = zain
HAIZU = zilegi
HALABER = baita (ere)
halabiz = amen, hala izan da-
dila
halakotz = horrexegaitik
hamikatu = gose handi izan
hanpatu = puztu, handitu
harrabots = ik. habarrots
harramantza = zarata handi
harrasi = harresi, murru
hartzidura = uleak tente jar-
tea
... has = (buru) burutsik
HASPEREN = intziri, zizpu-
ru

- hastan = aldendu, urrundu
 haste = asiera
 hastio = gorroto
 HATS = arnasa
 hatsapen = asiera, asikin
 hatz = hatzamar, behatz
 haurride = ik. aurride
 hauta(tu) = aukera(tu) / bi-
 kain, berebiziko
 hauteman = antzeman / az-
 tertu / autatu
 hautetsi = autatu, aukeratu
 hazkurri = janari
 haztatu = palpar
 hean = ea, eia
 heben = hemen
 HEDA(tu) = zabal(du)
 hedoi = ik. edoi
 hegal(pe) = ego (egape)
 hegaldaka = egaz, egan
 hegi = ladera
 hegigo = gorroto
 heiahora = deadar, garrasi
 hein(ean) = une, era / neurri /
 maila
 heltü = eldu
 HERABE = lotsa
 herbal(du) = makal(du)
 HEREN = hirugarren
 herexa = oinatz, lorratz
 herra(tu) = gorroto(izan)
 herrestan = tarras
 hertar = herritar
 HERTSATU = behartu, bor-
 txatu
 HERTSI = itxi
 herxatu = ik. hertsatu
 hezueri = artritis
 higatu = maiztu, gastatu
 HIGITU = ikara egin
 hilhotz = gorpu
 hirriskatu = arriskuan jarri
 hirritu = excitar / excitación
 hirur = hiru
 hisdura = tristura, zurbildura
 HISTU = tristetu
 hits = triste / motel
 hitzeman = agindu
 hoben(duri) = erru(dun)
 hoberen = onen
 hogoi = hoge
 holli = hori
 honetsi = ik. onetsi
 hora = mastin
 hordi = mozkor
 HORMA = izotz, lei
 hortzadar = arco iris
 hots = ospe / hau da
 hudigoa = gorroto bizi, etsai-
 go
 hüllan(t) = urrean, hurbil
 huntü = ondu, eldu / egin
 (bertsoak)
 hunkitu = ukitu, ikutu
 hunkigarri = zirarragarri
 hurran(du) = ur(reratu) / hil-
 zorian egon
 hurrats = pausu
 hurrupa = zurrut, trago
 Ibeni = imini, ipini
 idoi = irain
 idoki = zabal(du) / atera, ken-
 du
 idurikortu = konfiantza bako
 biurtu
 iduzki = eguzki
 IGAN = igo(n) igaro, iragan

IGURIKATU = itxaron
iguriki(men) = itxaron (itxa-
ropen)
ihar = igar, zimel
IHARDETSI = erantzun
ihizi = eiza / piztia
ihiztari = eiztari
ihizko = eizako
ihurtzuri = trumoi
ikhartu = ikertu
ILKHI = urten
ingoiti = ik. engoiti
inharrosi = astindu
irakurtu = irakurri
iratzarri = iratzartu, esnarazi
IRAUNGI = itzali, atzamau,
amatau
iretsi = iruntzi, irentsi
ixkilima = buruko orratza
ixterbegi = arerio, etsai
izari = neurri / zuhurtasun
izi(aldura) = izu, bildur-ikara
izipera = bildurpera
Jadaneko = ordurako
JADANIK = ia
jagoitiko = beti(ra)ko
jakitate = jakituria
JALI = urten
jarraiki = jarraitu / etenbako
jasta(tu) = dasta(tu)
jauntsi = jantzi
jauspen = menpetasun
JAUTSI = jatsi, jetxi / jausi,
erori
jauzkor = aserrekor / saltala-
ri
JELKI = jagi, jeiki
jeloskor = bekaizkor, celoso /
aserre

Jenko = Jainko
jendaki = arraza / senitarte
JIN = etorri
jite = gaitasun / itxura
josta(tu) = jolas(tu)
jujamendu = epai
juje = epaile

Kabale = kabala, zama-abere
kakolak = kartolak, otzarak
kalaka = «berbalapiko», «hi-
tzontzi»
KALAPITA = eztabaida
kalda = galda, bero erre
kaloia = kaiola
kanthore = kanta
kaperera = ermita, capilla
kaputxin = mantu baltz
kara = itxura
karantzatu = koloretu
karsoildu = burusoil biurtu
kartier = auzo
kasko = buru, adimen / ton-
tor
kasu = kontu!
KAUSITU = aurkitu
khar = gar / gurari bizi
KHEXU = aserre / artega,
urduri
KITATU = utzi
kitzikatu = sua biztu / provo-
car
kizkola = barre-santso
kobla(kari) = bertso(lari)
kokoriko = en cuclillas
KOLPATU = zauritu
korpitz = gorputz
korromio = remordimiento
kozka = maila

kraskatu = autsi
kuiatto = ardao-ontzi
KURAI = adore, indar
kuraio = adoretu
kurka = trago
kusi = legunsa
kuxean = bertatik, berealaxe

LABORARI = nekazari
LAKHET = atsegin
lanbo = lanbro
lanjer = arrisku (danger)
laño = tolesgabe
laur = lau
lazgarri = ikaragarri
LAZTU = ikaratu, izutu
leinu = linaje
LEHIA(tu) = dendatu, gurari
biziz ahalegindu
lerrakor = labankor, irrista-
kor
LERRATU = laprast egin
libera = libra, franco
libro = libre
loria = gloria, aintza
lorios = aintzatsu

Maingu = erren / mantxu
maipolis = (jantzi txiki bat)
MAKHUR = gaizto / txar /
makur
malerus = zoritxarreko
maluros = zoritxarreko
MANHATU = agindu
manex = (xiberotar ez dan
euskalduna)
manu = agindu
mardalla = guzur baltz, ca-
lumnia

Mazela = matraila / egal
MEHAR = medar, estu
mehatxatu = amenazua egin
mements = une, momentu
mendekos = vengativo
mendekio = venganza
mendre = makal, balio gitxi-
ko

menta = venta
mentura(tu) = aventura(rse)
mera = alkate
mespretxatu = despreciar
MIATU = ikertu, ondo azter-
tu
miga = bihantxa, biga
milikatu = miazkatu
miliun = milloi
mintzai(ra) = hizkera
mintzo = hitz
mirail = ispilu
mirakuilu = mirari
miretsi = mira egin
mitxa = poxpolu, misto
moien = medio (moyen)
mokanes = zapi
mortu = mendi-portu, basa-
mortu
motho = moño
musker(tu) = berde(tu)
muthiri = gogor
mutxurdin = neskazahar
mutxutu = zimeldu

Nahas-mahas = nahaste-bo-
rraste
nahikeria = gurari
narrio = tacha, defecto
NASAIKI = ugari
naski = noski

naskiko = subertezko
 nehoiz = inoiz
 nehola = inola
 nehon = inon
 nehor = inor
 nihaur = neu

 Odre = ordena, agindu
 ohako = seaska
 OHANTZE = habia, kabia
 ohia = ex-
 OHOIN = lapur
 ohore = honor
 oixtion = berealaxe, oraintsu
 okoztagarri = iguingarri
 oküpü = umedun, seindun
 olha = txabola
 omore = umore
 ONDIKOZ(ko) = ay! (zori-
 txarreko)
 ONHETSI = ontzat emon/
 maite izan
 ONTSA = ondo, ongi
 ordoki = lau, zelai
 OREN = ordu
 ordian = oster, ordea
 orga = burdi, gurdí
 ori(zu) = ara! / tori, artu!
 OROBAT = bardin
 ortzi = trumoi / zeru
 OSAGARRI = osasun
 OSTE = jendetza
 OTHOI! = arren!
 othuruntza = banquete
 ozenki = hots handiz
 ozte = ik. oste

 Pagu(tu) = poz(tu)
 PAIRATU = padezidu

panpa (panpin) = muñeca
 papo = sama, lepo / bular
 parada = egokiera, era
 pariatu = apostua egin
 partida = partida / arerio
 partzuer = lagun, socio
 pastiz = pastel
 PAUSATU = gelditu / utzi,
 ezarri
 pegarra = (p)edarra, cántaro
 peitu = faltatu
 pendura(tu) = inclinación
 pentze = larra
 PERIL = arrisku
 perpaus = solas, berbaldi
 peti = behetik
 pherekatu = ik. ferekatu
 pherde = berde
 phorogatu = probatu
 pindar = txinparta
 pinta = (edari-neurri zahar
 bat)
 pirpira = taupada, pilpira
 plaundu = lautu, zelaitu
 plegu = toles
 porroskatu = maiztu
 portale = atari
 POT(a) = mosu, laztan
 poxelu = eragozpen, oztopo
 POXI = apur, puska
 pozoatu = envenenar
 premu = lehenseme, oinorde-
 ko
 PRESUNA = persona
 preza(tu) = aprecio (apreciar)
 purruzkeria = ondakin
 puxant = ahaltu
 puxka = puska, apur

Saindu = santu
sahets = saiets / alde(rdi), al-
 damen
sala = etxe / sarrera
salbu = ... izan ezik
saldo = artalde / jendetza /
 talde
SAMUR(tu) = aserre(tu)
SARRI = laster
segur = seguru
sekeriatu = egarritu
SEKULAKO(tz) = betiko
sendagailu = osaki, botica
SERORA = monja
setiatu = inguratu
sinhetsi = sinestu
sistada = picadura
SO(egin) = begira(tu)
sobera = sobra, gehiegi
SOLAS = jardun / jolas
sorhopil = bedartza, belardi
sori = zilegi
SORTU = jaio
sos = txanpon, diru
suhar = sutsu
sukhar = sugar, beroen
SUJET = gai
SUMIN(du) = aserre(tu) bizi-
 ro
SUNTSITU = desegin, eze-
 reztu
supher(tasun) = arro(keria)
sustatu = sutu, sutan jarri


Tanpez = bapatean
tarro = handi, lodi
TENORE = une, ordu, garai
tetele(tu) = berbartun(du)
tirri = tontor, gailur, erpin

tinkatu = finkatu, estutu
tinki = estu
thornuya = aldia, garaia
thu = txu, txistu
tornian = orduan, bere aldian
trabu = traba, eragozpen
tragaza = dardo / jabalina
transimendu = ebagitze (?)
trebes = apostu (traviesa)
trenkatu = ebagi, eten
TRONPATU = engainatu
 (tromper)
trufa(tu) = burla(tu)
trunpatu = uk. tronpatu
truk = (karta-joko bat)
tutak = turutak
ttirritta = txirrita, txirritxirri
txerkatu = billatu (chercher)
txingar = urdaiazpiko
TZAR = gaizto

Uhin = olatu
ukhaldi = golpe
UKHAN = eukin, izan / har-
 tu
üküzi = ikuzi, garbitu
uli = euli
ullant = urrean, hurbil
unsa = ontsa, ondo
unthusik = ortotsik
ur-hegi = ur-ertz
uri = euri
URRIKAL(du) = erruki(tu)
urrikari = erruki
urriki = erruki / damu
urririk = dohan, debalde
urmariatu = ezereztu
URUS = zorioneko (heureux)
urx'aphal = tórtola

usantza = usadio, ohitura
ustei = aro
USU = sarri, maiz / arin, azkar
XAHU(tu) = garbi(tu)
xango = ik. zango
xangri(n) = pena, chagrin
XARMAGARRI = liluragarri, charmant
XEDE = muga / helburu / asmo
xedera = sare, lakio
xendra = bidezidor
xilho = zulo
ximiko = atzimur, imurtxi
xinaurri = (tx)iñurri
xingar = ik. txingar
xingar giharri = urdaiazpikoaren giharra //
xingola = cinta
xirripa = errekatxo
xuhur = zuhur / zeken, zikoitz
xume = txiki / apal, umil

xurgatu = edoski, bularra hartu
Zafratu = astindu
zaia = gona
zainbera = urduri
zalhoin = ágil
ZAMARI = zaldi
zehiarretik = zeharretik
zeinu = kanpai / seinale
zelatu = zelatan egon / ensillar
zendako = zergaitik
zertako = zergaitik
zikitero = capador
zilatu = zulatu
zilar = zidar / garbi
ZIN(ez) = juramento (bentetan)
zitroin = limón (citron)
zitru = limón (citron)
zoin = zein
zola = ondo, fondo
Xahako = zahato, bota



AURKIBIDE NAUSIA

	Orria
SARRERA	7
I. ZATIA: ERRI-LITERATURA	Zenbakia
Bereterretxen kanthoria	(1) 13
Atharratzeko Ezkongaia	(2) 15
Egun bereko alagüntsa	(3) 16
Maitia, nun zira?	(4) 17
Agota	(5) 18
Nazioneko Besta	(6) 20
Brodutzen ari nintzen	(7) 22
Erresiñula	(8) 24
ERRI-TEATROA: Etxahun (<i>Etxahun-Iruri</i>)	(9) 25
 BERTSOLARIAK:	
Nere herritik (<i>Mendiague</i>)	(10) 32
Mixelengo zubia (<i>D'Ibarrari</i>)	(11) 34
Ezpeletako herrian (<i>Otxalde</i>)	(12) 35
Kantore berri (<i>Borddel</i>)	(13) 36
Buneta eta txapela (<i>Ligueix</i>)	(14) 38
Aita-semeak (<i>Xalbador-Mattin</i>)	(15) 39
Alargunak bere emaztearen soinekoari (<i>Xalbador</i>)	(16) 43
Sortetxeari (<i>Xalbador</i>)	(17) 43
Jainkoa eta ni (<i>Xalbador</i>)	(18) 44
Lafitte jaun kalonjeari (<i>Mixel Itzaina</i>)	(19) 45
Agur, Xiberua (<i>Etxahun-Iruri</i>)	(20) 47
 II. ZATIA: IDAZLEAK:	
Dechepare, Bernard: Amorosen gaztiguya	(21) 51
Contrapás	(22) 53
Amoros sekretuki dena	(23) 53
Leizarraga, Ioannes: Nafarroako Erreginari eskeintza	(24) 55
Testamentu berritik zatia	(25) 58
A B C-ren Hitzaurrea	(26) 60

Etxeberry, Joanes (Ziburukoa): Nola Salbatzaillea sortu zen	(27)	61
Herioaz, ea zer den?	(28)	62
Axular, Pedro: Jainkoak ez du gizona alferrik egoteko egin	(29)	65
Luzamentutan ibiltzea	(30)	66
Haragiaren amore desordenatuak	(31)	67
Ezta zahartzeko begira egon behar	(32)	68
Nola bizi, hala hil	(33)	69
Haserretasunaren gaitz eta kalteak	(34)	70
Koleraren iraungitzeko bigarren erremedioa	(35)	71
Oihenart, Arnault: Graziañari	(36)	73
Ederragoari	(37)	74
Atsotitzak edo Refraua	(38)	76
Tartas, Ivan de: Nola onsa hiltzeko bidia den herioaz orhitzia	(39)	78
Bi adeskide	(40)	79
Gazteluzar, Bernard: Gizon guzien amudioa Iesus Haurrantzat	(41)	81
Arrantzalea	(42)	83
Etxeberry, Joannes de: Axular goragarri	(43)	84
Euskal Herriko Gazteriari	(44)	85
Eskuara eta eskualdunak	(45)	87
Larreguy, Bernard: Davit eta Goliath	(46)	90
Lopez, Apeza: Liburu hunen Huzkarala izulzaliak irakurzaliari	(47)	93
Etxahun, Pierre Topet de: Urx'aphal bat	(48)	96
Bi ama alhaba	(49)	97
Hiribarren, Jean Martin: Pilota Yokoa	(50)	99
Duvoisin, Jean Pierre: Behiaz	(51)	102
Ezekielen Profezia	(52)	103
Inchauspe, Emmanuel: Istoria edo gerthaldiak	(53)	105
Aitzin Solhasa	(54)	106
Elizamburu, Jean-Baptiste: Lau andren besta (Amets bat)..	(55)	110
Solferinoko Itsua	(56)	113
Piarresen omere ona bidean	(57)	114
Elizamburu, Michel («Fr. Innocentius»): Lehenagoko Eskualdunen zuhurtasuna beren janean	(58)	117
Adema «Zalduby», Gratien: Xuriko	(59)	120
1875ean, Jubilau urthe sainduan, Lurdeserat eta Betharramerat egin ginuen Pelegrinaia	(60)	123
Laphitze, Frantzisko: Iñazio eta Zabier Parisen	(61)	126

Joannateguy, Bazilio: Santa Eskolaztikaren azken aldi- kotch ikustea	(62)	129
Lapeyre, Estebe: Martyren lekukotasuna	(63)	132
Arbelbide, Jean Pierre: Aitzin Solasak	(64)	134
Hiriart-Urruty, Jean: Botoila bat arno	(65)	138
Barbier, Jean: Jesus Jauna eta Jon Doni Petri	(66)	141
Amaxo	(67)	142
Laminak	(68)	145
Etxepare, Jean: Mediku Xaharrak gazteari	(69)	148
Saint-Pierre, Jean: Mari-Ederren ezkontza	(70)	151
Elissalde «Zerbitzari», Jean: Bizi dadin Euskuara	(71)	156
Moulier «Oxobi», Jules: Axular idazleari	(72)	158
Bi astoak	(73)	159
Gipuzkoan eta Bizkaian gaindi	(74)	161
Ama!	(75)	163
Léon, Léon: Ursuan gaindi Makearat	(76)	165
Lafitte, Pierre: Liburu berri: «Argiz argi»	(77)	169
Makhila	(78)	170
Etcheberry, Jean Bapt.: Urgulua	(79)	173
Sallaberry, Etienne: Gerla	(80)	176
Narbaitz, Pierre: Ene oiloak	(81)	179
Larzabal, Pierre: Bordaxuri	(82)	181
Iratzeder, Xabier: Mendiz bertzaldeko	(83)	185
Besoak zabal	(84)	186
Nun habil orai?	(85)	187
Jauna dut artzain (22. salmoa)	(—)	189
Haritschelhar, Jean: Oxobi	(87)	191
Mirande, Jean: Gauaz parke batean	(88)	196
Larre, Emile: Xalbador-en «Odolaren mintzoari» Aitzin solasa	(89)	200
Hiriart-Urruty, Jean: Bertsularia artzain	(90)	203
Erdozaincy-Etchart, Manex: Hogoi ta bortzgarren oreneko meditazioa	(91)	205
Han nunbait bidean	(92)	205
Davant, Jean Louis: Abadia eta Xaho: bi abertzale	(93)	209
Landart, Daniel: Noiz	(94)	209

BESTE AURKIBIDE BATZUK:

I.—Idazleen Aurkibidea	217
II.—Gaien Aurkibidea	218
«HIZTEGI TIPIA»	221

UDAKO EUSKAL IKASTAROA

DERIO - BILBAO

IDAZTIAK

<i>Mikel Zarate</i>	Euskal Deklinabidea (2. argitalpena)
<i>Mikel Zarate</i>	Euskai Literatura
<i>Jesus Eguzkiza</i>	Aditza I - II (3. argitalpena)
<i>Mikel Zarate</i>	Euskal Literatura II
<i>Jose Maria Irazola</i>	Aditza III-IV
<i>Adolfo Arejita</i>	Euskal Joskera
<i>Karmelo Etxenagusia</i>	
<i>J. Kortazar</i>	
<i>A. Etxebarria</i>	Euskal Idazleak
	Bizkaieraz
<i>Karmelo Etxenagusia</i>	Iparaldeko Euskal Idazleak

ARIKETA IDAZTIAK

1. Aditz - Ariketak I - II - III
 2. Euskal Deklinabidea - Ariketak
 3. Atzizkibidea - Ariketak
 4. Idazkera. Ariketak
- Udako Euskal Ikastaroa. Euskeraren Ikas Egitaraua
 - Udako Euskal Ikastaroa: Derio. Amar urte euskerarentzak 1970-1979.

Derioko UDAKO EUSKAL IKASTAROAk frutu gozo barri bat eskeintzen dau aurtengo udan: IPARRALDEKO EUSKAL IDAZLEAK deritxon Antologia. Erri literaturaren 20 bitxiarekin, beste 40 idazle andiren 94 idazlan eder, ikasle barrientzat lagungarri orniduta: sarreratxo, oar, iztegi, aurkibideak...

Antologia onek zubi bat izan nai dau: Bizkaiko ertzetik Zuberoko lurralde xarmagarrirainoko zubi luze anaikorra, Iparraldeko euskera zaar landuaren ondasunak gure artean ere ezagutu dagiezan bai Ikastaroaren gailurrera eltzen diran ikasleak, bai beste edonun euskal ikasle sutsu diran guztiak.

Lorategi onen egilea, K. Etxenagusia, ez da asibarria onango lanetan: oraingo au bere boskarrena dau gure Ikastaroko irakasle onek.

Liburu au egin eta argitaratzean, gure asmo eta gurariak IRATZEDER olerkariarenak dira:

"Mendiz bertzaldeko Eskual-Herria
ezin gehiago zait zoragarria.
Badu bihotzeko Su pizgarria,
Zainetan indarra, soan irria.

Alde huntako Eskual-Herria
Etzait gutiago maitagarria.
Eztu bertzean den suzko-jauzia
Bainan bai: Goxoa eta Neurria.

Hangoek balute suan neurria,
Guk aldiz baginu su pizgarria,
Mendiz bi aldetan zer Goiz-argia,
salbu bailitake Eskual-Herria!

Ez dadila izan, gure galgarria,
Lokarri gabeko Eskual-Herri.
Har elgarren ganik bai su, bai neurri;
Jos, eskual-indarka, denek elgarri!"



LABAYRU IKASTEGIA